



D EREDUKO KIROLA

2016ko
ikerketaren
txostena



Ikerketaren zuzendaria: Jone Miren Hernandez
Ikertzaileak: Jaime Altuna eta Iñigo Beitia

Proiektuko partaide



Proiektuko partaide eta babesle



2017ko otsailaren 27a

AURKIBIDEA

AURKIBIDEA	2
SARRERA.....	5
1. IKERKETAREN GARAPENA, METODOLOGIA ETA TEKNIKAK	7
1.1. Ikerketaren prestaketa	7
1.2. Lekuan lekuko eta dokumentazio lana.....	8
1.2.1. Behaketak parte-hartzaileak:	8
1.2.2. Sakoneko elkarrizketak:	10
1.2.3. Txostenaren osaketa	10
2. HAUR ETA NERABEEN KIROLAREN TESTUINGURU OROKORRA	11
2.1. Kirola zehaztuz	11
2.2. Nerabeen kirol praktikak	12
2.3. Gazteen kirol praktika orokorrak EAEn	13
2.4. Haur eta nerabeen kirol antolaketa	14
2.5. Eskola-kirolaren datuak	18
2.6. Kirol federatuaren datu orokorrak	19
2.7. Kirol hezitzaile, monitore eta entrenatzaileak eta hauen irakaskuntza	21
2.8. Kirola eta euskara	24
2.9. Ikerketarako aukeratutako kirolen testuingurua	27
2.9.1. Esku-pilota.....	27
2.9.2. Boleibol	28
2.9.3. Eskubaloi	29
2.9.4. Futbol.....	30
2.10. Ikerketarako aukeratutako kirol elkarten testuinguruan sakontzen	31
2.10.1. Gasteiz	31
a. Gasteizko eta Zaramagako datu demografikoak	31
b. Gasteizko kirol instalazioak eta kirol elkarteak	33
c. Gasteizko nerabeen kirol praktiken datuak	34
d. Gasteizko kirol ekitaldiak.....	35
e. Gasteizko datu soziolinguistikoak.....	36
f. Zaramaga Pilota Elkartea	39
2.10.2. Getxo.....	40
a. Getxoko datu demografikoak	40
b. Getxoko kirol elkarte eta instalazioak.....	41
c. Getxoko kirol ekitaldiak.....	43
d. Getxoko datu soziolinguistikoak.....	43

e.	Euskara eta kirola lotzeko ekimenak.....	45
f.	Aixerrota Boleibol Taldea.....	46
2.10.3.	Zarautz	46
a.	Zarauzko datu demografikoak.....	46
b.	Zarauzko datu soziolinguistikoak.....	47
c.	Zarauzko kirol elkarteak eta instalazioak.....	48
d.	Zarautz Kirol Elkartea.....	49
2.10.4.	Gipuzkoa eta Donostia.....	50
a.	Donostia eta Gipuzkoako datu demografikoak	50
b.	Gipuzkoako datu soziolinguistikoak	51
c.	Gipuzkoako kirol elkarteak	53
d.	Real Sociedad.....	54
3.	ANALISIA	56
3.1.	Testuinguruaren analisisa	56
3.1.1.	Herriak eta lurraldeak	56
3.1.2.	Kirol taldeak	59
3.1.3.	Kirol espezialitateak	62
3.2.	Kirol praktiken analisisa.....	63
3.2.1.	Entrenamenduak	65
3.2.2.	Partidak.....	67
3.2.3.	Entrenatzaileak	68
3.3.	Kirol izaeraren analisisa	70
3.3.1.	Harrobizko taldea lehiari begira	71
3.3.2.	Jolasa eta jokoaren arteko nahasketa.....	72
3.3.3.	Harremanak eta sasoi fisikoa.....	74
3.4.	Genero ardatzaren analisisa.....	74
3.5.	Hizkuntza-praktiken analisisa	77
3.5.1.	Zenbat eta zer hizkuntzak.....	77
3.5.2.	Hizkuntza-mudantza.....	84
3.5.3.	Hizkuntza-alternantzia eta kode-aldaketa.....	85
3.5.4.	Klub-en hizkuntza-estrategiak eta kudeaketa	86
3.6.	Komunikazio formen analisisa.....	89
3.6.1.	Noranzkoa.....	89
3.6.2.	Hizkera.....	90
a.	Hitanoa	91
b.	Euskalkiak	91
c.	Kirol terminologiaren adierazpena	92
d.	Animo eta aginduak	93

e.	Haserrea eta poza	93
3.6.3.	Sare Sozialak	95
3.6.4.	Ahotsa eta komunikazio ez berbala	95
3.7.	Hizkuntza-ideologiaren analisia	96
4.	ONDORIOAK ETA AURRERA BEGIRAKOAK.....	98
4.1.	Hogeitabira!: Ondorio nagusien laburpena.....	98
4.2.	Aurrera begira	102
4.2.1.	Gazteak eta euskararen erabilera	102
4.2.2.	Gazteak eta hizkuntza sozializazioa	107
4.2.3.	Eskola eta hizkuntza-ideologia.....	108
4.2.4.	Hiztun berrien agerpena eta hizkuntz paisaia berria.....	112
5.	BIBLIOGRAFIA	120
6.	ERANSKINAK	124

SARRERA

Dokumentu honetan “D ereduko kirola” izeneko egitasmoan 2016ko ikerketaren emaitzak bildu ditugu. Antropologian ohikoak diren teknikak erabiliz, ikerketa etnografikoa egin dugu lau kirol taldetan: Zarautz Kirol Elkartea (eskubaloia), Zaramaga Pilota Elkartea (esku-pilota), Getxo Aixerrota Taldea (boleibol) eta Real Sociedad (futbol). “D ereduko kirola” egitasmoak bi helburu orokor zehaztu zituen:

- Begirale eta entrenatzaileen jarduna euskaraz izango duen kirol-aisialdi antolatu bat modu esperimentalean eratzea arloko eragileekin (“D ereduko kirola”).
- “D ereduko kirol” horren eraketa-prozesuaren eta bertan parte hartzen duten eragileen ahots ezberdinen gaineko ikerketa egitea: helduena (guraso, ikastetxe, udal, klub...) eta, batez ere, haur eta gazteena (jardueretako partaideak zein begiraleak).

Ikerketa, beraz, bigarren helburu horri dagokio. 2016an garatutako ikerketan aukeratutako lau kirol-talde hauen hizkuntza-praktiken lehen hurbilketa egin da, entrenatzaileen jarduna, iritziak eta bizipenak erdigunean jarritz. Horretarako hiru teknika erabili dira: behaketa parte-hartzailea (kirol talde hauen partaideen praktiken behaketa), elkarrizketa (entrenatzaileen diskurtso, bizipen eta iritzien jasoketa), eta dokumentazio lana (kirol arloko testuinguru linguistikoa eta orokorra). Lehen urte honetan egindako ikerketa-lana testuinguru orokorra finkatzeaz gain, esplorazio moduan lehenengo elkarrizketak eta behaketak burutzean oinarritu dela, 2017tik aurrera burutuko den ikerketa ondo bideratuta dagoela ziurtatzeko asmoz.

Jarraian, beraz, ikerketaren emaitza nagusienak aurkeztuko ditugu. Erabilitako metodologia eta tekniken azalpena eman ondoren, bigarren atalean ikerketaren testuinguruan sakonduko dugu; haur eta nerabeen kirolaren testuinguru orokorra zehaztearekin batera, hautatutako lau taldeen ingurunearen ezaugarri orokorrak eta egiten duten kirol espezialitateen datuak aurkeztuko ditugu. Hirugarren atalean, ikerketan egindako lan etnografikoaren analisisa da. Azkenik, laugarren kapituluaren ondorioak eta aurrera begira kontutan hartu beharrekoak aurkeztuko ditugu. “D ereduko kirola” egitasmoak jarraipena izango duela aintzat hartuta, azken atal hau

bitan banatu dugu. Batetik, analisisian ateratako ondorio nagusiak laburbildu ditugu. Bestetik, aurrerantzean egitasmo honetarako (eta gazteak eta euskara uztartzen dituzten bestelakoetarako ere) gure ustez baliagarriak izan daitezkeen hainbat hausnarketa jorratu ditugu.

1. IKERKETAREN GARAPENA, METODOLOGIA ETA TEKNIKAK

Aipatu den bezala, ikerketa honen bidez aukeratutako lau kirol-talderen hizkuntza-praktiken lehen hurbilketa egin da, ikuspegi antropologikoarekin garatu den ikerketa kualitatibo baten bidez. Ikerketaren zuzendaria Jone Miren Hernandez García gizarte antropologiako irakaslea izan da. Ikertzaile lanetan Iñigo Beitia Zabala eta Jaime Altuna Ramírez gizarte antropologoak aritu dira¹.

Ikerketak hiru fase ezberdinak eduki ditu. Batetik, ikerketaren prestaketa garaia izan dugu. Tarte horretan, eraketa esperimentalaren arduradunarekin batera, interesekoak izan zitezkeen guneetako arduradunekin bilerak garatu ziren. Horretaz gain, lekuan lekuko lanaren prestaketa garatu zen behaketen eta elkarriketen gidoiak prestatuz eta dokumentazio lanen ildoak finkatuz. Bigarren fasean, dokumentazio eta lekuan lekuko lana burutu da. Azkenik, hirugarren fasea, emaitza nagusiak bildu eta azaltzen dituen txosten honen osaketari dagokio. Jarraian, beraz, egindako lana laburbilduko dugu hiru fase horien arabera gidoia erabiliz.

1.1. Ikerketaren prestaketa

Lehen fasea 2016ko udaberrian hasi zen. Ikerketaren diseinu orokorra egiteaz gain, eraketa esperimentalaren arduradunarekin batera (Aritza Escandon), guneetako arduradunekin eta herrietako udal euskara teknikariek bilerak garatu ziren. Hona hemen bilera hauen zerrenda:

Data	Taldea	Herria
1 2016/05/12	Real Sociedad	Donostia
2 2016/05/12	Donostiako Udala	Donostia

¹ Jone M. Hernández Gizarte Antropologia irakaslea da Balioen Filosofia eta Gizarte Antropologia Sailean (UPV/EHU). Jaime Altuna doktoregaia da Sail horretan. Biak AFIT-eko (Antropologia Feminista Ikerketa Taldea) kideak dira. AFIT (Erreferentzia: IT1030-16) Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburuak finantzatutako euskal unibertsitate-sistemako ikerketa-talde bat da. 2016ko abenduaren 5eko ebazpenaren ondorioz taldeak 6 urtetarako onarpena eta babesa jaso du (2016-2021). Aipatutako deialdian 97 puntu jaso zituen (100etik) eta laugarrena geratu zen kalifikazio gorena (bikain) jaso duten lehenengo 10 taldeen artean. Mari Luz Esteban Galarza da AFIT ikerketa taldearen zuzendaria.

3	2016/05/23	Surf Federazioa	Gipuzkoa
4	2016/06/08	Aixerrota	Getxo
5	2016/06/13	Zarautz Eskubaloia	Zarautz
6	2016/06/13	Zaramaga	Gasteiz

Ikerketaren ikuspuntutik, bilera hauek testuinguru orokorraren berri edukitzeko baliagarriak izan ziren. Hainbat kirolen eta herriren hizkuntza errealitate ezberdinak jasotzeko aukera izan genuen, eta horrek asko lagundu zigun ikerketa objektua eta testuingurua zehazten.

Udazkenean, aukeratutako guneetan formazio ematen zen bitartean, ikerketa-taldeak lekuan lekuko lanaren prestaketa garatu zuen behaketen eta elkarriketen gidoiak diseinatu eta dokumentazio lanen ildoak finkatu. Horretaz gain, elkarriketa bat burutu zen azaroaren 16an Aritza Escandonekin, hura izan baita hautatutako kirol taldeen entrenatzaileei lehen formazio saioa eman diena. Elkarriketa hori lekuan lekuko lana testuinguratzeko oso egokia izan zen.

1.2. Lekuan lekuko eta dokumentazio lana

Aipatu den bezala, dokumentazio bilketarekin batera bi teknika erabiliko dira: behaketa parte-hartzaileak eta elkarriketak.

1.2.1. Behaketak parte-hartzaileak²:

behaketa ikerketa antropologikoen ohiko teknika da eta lotura berezia du etnografiarekin. Euskal Herrian gutxi garatu bada ere, tresna oso baliagarria izaten ari da testuinguru ezberdinetan garatzen ari den hizkuntza-antropologiaren lan ildoan. Behaketaren bidez ikertu nahi den egunerokotasunaren informazioa jasotzen da. Ikerketa honetan ikerlariok kirol jarduerak sortzen diren dinamika orokorrak eta hizkuntza-praktikak behatzen aritu gara. Bertan egon gara eta ikertuak diren subjektuek badakite zertan ari garen, baina interakzioa mugatua da entrenatzaileek eta gazteek euren kirol praktika ohikotasunez egiten dute. Behaketa hauek garatzen diren bitartean elkarriketa informalak sortzeko aukera izaten da.

² Behaketa hauek egiteko erabili dugun gidoia eranskinen atalean dago.

Elkarrizketa hauen bidez, ikerlariak behaketaren bidez jasotako zenbait gaien inguruan zehaztapenak lortzen ditu. Hauek dira egindako behaketen zerrenda:

Real Sociedad Futbola

	Data	Tokia	Entren./Partida	Maila	Adina	Kopuruak	
						Entrenatzaile	Gazteak
1	2016/11/18	Zubieta	Entrenamendua	Kadete 1.maila	13	3	20 mutil
2	2016/12/02	Zubieta	Entrenamendua	Kadete Txikia	12	3	20 mutil
3	2016/12/03	Zubieta	Partida	Kadete 1.maila	12	3	20 mutil

Zarautz Eskubaloia

	Data	Tokia	Entren./Partida	Maila	Adina	Kopuruak	
						Entrenatzaile	Gazteak
4	2016/11/21	Kiroldegia	Entrenamendua	Infantil	12	2	23 mutil
5	2016/11/22	Kiroldegia	Entrenamendua	Infantil	12	2	13 neska
6	2016/11/26	Errenteria	Partida	Infantil	12	2	20 mutil
7	2016/12/04	Zarautz	Partida	Infantil	12	2	13 neska

Getxo Aixerrota

Boleibol

	Data	Tokia	Entren./Partida	Maila	Adina	Kopuruak	
						Entrenatzaile	Gazteak
8	2016/11/21	Fadura Kiroldegia	Entrenamendua	Kadeteak	15-14	2	12 neska mutil 1
9	2016/11/21	Fadura Kiroldegia	Entrenamendua	Jubenilak	16-18	1	8 neska
10	2016/11/23	Aixerrota ikastetx.	Entrenamendua	Infantilak	12	2	16 neska

Zaramaga Gasteiz

Esku-pilota

	Data	Tokia	Entren./Partida	Maila	Adina	Kopuruak	
						Entrenatz.	Gazteak
11	2016/11/28	Zaramagako frontoia	Entrenamendua	Benjamin	7-8	2	13 mutil
12	2016/11/28	Zaramagako frontoia	Entrenamendua	Kadeteak	9-10	2	12 mutil neska 1
13	2016/11/30	Zaramagako frontoia	Entrenamendua	Infantil B	12	1	7 mutil
14	2016/11/30	Zaramagako frontoia	Entrenamendua	Infantil A	12-13	1	7 mutil neska 1

Behaketa bakoitzak 2 orduko iraupena izan du eta bertan jasotako informazioa eguneroko batean, idatziz eta zehaztasun handiz, deskribatuta geratu da aurrerago analizatzeko asmoz. Denera 28 orduko behaketa lana egin da.

1.2.2. Sakoneko elkarrizketak³:

Beste gizarte zientzietan bezala, antropologian eta etnografian ere oso ohiko teknika da honako hau. Ikertu nahi den gaiaren inguruan etnografoak galdetu, hitz egin eta, batez ere, entzun egiten du. Gure ikerketan lau sakoneko elkarrizketa egin ditugu; hautatutako talde bakoitzeko elkarrizketa bana. Elkarrizketetarako gidoi bat prestatu da baina ez da galdera sorta itxia. Gidoia solasaldirako eskema gisa erabili da eta elkarrizketatua izan den pertsonaren arabera moldatu da, hau da, laguntza bat izan da eta ez da hitzez hitz jarraitu ezta ordena mantendu ere ez. Asmoa elkarrizketatutako entrenatzaileekin solasaldi ahalik eta erosoena edukitzea izan da euren bizipenak, diskurtsoak eta hausnarketa pertsonalak jaso ahal izateko. Honako hauek dira elkarrizketatu ditugun pertsonak:

	Elkarrizketatua	Taldea
1	Mikel Ferradas	Real Sociedad (Donostia)
2	Karmele Makatzaga	Zarautz (Zarautz)
3	Leire Reina	Aixerrota (Getxo)
4	Mikel Larrañaga	Zaramaga (Gasteiz)

Elkarrizketa bakoitzak, gutxi gora behera, ordubete eta ordu eta erdi arteko iraupena eduki du eta denak grabatuak izan dira (elkarrizketatuaren baimenarekin). Ondoren grabazio horiek transkribatuak izan dira elkarrizketa horien edukiak aztertzeko asmoz.

1.2.3. Txostenaren osaketa

Aurretik jasotako informazioa guztiarekin esku artean duzun honako txosten hau osatu dugu. Lanketa horretan dokumentazio lana handia burutu da haur eta gazteen kirol testuingurua osatzeko. Horretaz gain, behaketa eta elkarrizketetan jasotako material guztiaren analisi zehatza egin dugu.

³ Elkarrizketa hauen gidoia eranskinen atalean dago.

2. HAUR ETA NERABEEN KIROLAREN TESTUINGURU OROKORRA

2.1. Kirola zehaztuz

Kirola ikuspegi ezberdinen arabera aztertu daiteke eta hala egin izan da: alderdi ekonomikoa edo politikoa, izaera pedagogikoa eta psikologikoa, garapen historikoa, alderdi mediatikoa... Antropologian egin izan diren azterketetan kirolaren gizarte eta kultura dimentsioak nabarmendu izan dira, eta hori izan da ikerketa lan honen ardatza. Izan ere, ikerketa honetan Euskal Herriko zenbait kirol testuinguruetan hizkuntzak bizi duen errealitate sozialera hurbiltzeko saiakera egin dugu.

Kirola egungo gizartearen eta kulturaren osagai garrantzitsua da eta norbanakoen eta gizarte-taldeen bizitzetan eragina nabarmena du. Baieztapen horren inguruan adostasun zabala dagoen arren, ez da erraza izaten kirola definitzeko eta ezaugarritzeko iritzi partekatuak topatzea. Eztabaida teoriko handietan sartzeko asmorik gabe, eta Joxan Unsain-ek egindako azterketari jarraituz (2011) hauek lirarteke kirola definitzeko emandako proposamen gehienetan ageri diren lau osagarriak: *egoera motorea* (giza mugimenduen agerpenak), *txapelketa* (arau sistema zehatz beten barnean murgilduta), *instituzionalizazioa* (erakunde ofizialak, federazio, elkarten artean antolatua) eta *entrenamendua* (emaitzak bilatzen dituen, aurre prestakuntza prozesua).

Egile berari jarraituz ikerketa lan honetan honela definitutako *kirol-jarduera fisikoaz*⁴ mintzatuko gara: “kirol parte-hartze antolatu eta askearen bidez ematen den eta helburu gisa gorputzaren eta buruaren sasoia hobetzea, aisialdian dibertitzea, harreman berriak sortzea edo emaitza lehiakorrek eskuratzea duen jarduera fisiko oro” (Unsain, 2011:222).

Definizio horretatik abiatuta, egungo kirolak duen izaera bikoitzaz konturatzen gara: alderdi ludikoa (aisialdian dibertitzea) eta alderdi *agonistikoa* (lehia). Batzuetan bi alderdi horiek oso ezberdinduak agertzen zaizkigu ia bi kirol-esparru bereiztuz: “Alde

⁴ Gure ustez definizio hori baliagarria izan daiteke aurrerantzean ere *D ereduko kirola* izena duen egitasmoren esparrua zehazteko.

batetik ikuskizunezko kirola legoke, bikaintasuna eta kirol arrakasta bilatzen duena” (Usain, 2011:237) eta bestetik olgetakoa genuke. Horiekin batera, eta askotan osagarri, hirugarren esparru bat genuke definizioan agertzen diren beste bi helburuak sartu daitezkeenak: gorputz-sasoia hobetzea eta harremanak sortzea. Nolabait, pertsonaren garapen fisikoa eta sozialarekin lotuta agertzen zaigu esparru hori haur eta nerabeen kasuan *heziketa* alderdia litzateke. Aurrerago, sakonduko dugu kirolaren izaera bikoitza (eta hirukoitza) horretan⁵, baina interesgarria iruditzen zaigu ohartaraztea bi alderdiak (lehia eta ludikotasuna) ez direla antagonikoak. Esan daiteke ia kirol-jarduera fisiko guztietan, modu batean edo bestean, biak batera ematen direla. Hori bai, kirol antolatzaile eta kudeatzaileen arabera kirol-praktika alderdi batean ala bestean kokatu daiteke, errendimendua eta lehia erabat lehenetsiz eta ondo pasatzeari inolako garrantzirik eman gabe, adibidez. Hori da, azken finean, haur eta nerabeen kirolaren inguruan azken urteetan sortu den eztabaida nagusia, eta adin horietan kirol-praktikak arautzeko eta sailkatzeko erabili izan diren ezaugarriak.

Jarraian, nerabeen kirol praktikei buruz arituko gara, jarduera fisikoak egungo gaztetxoaren artean kokatu nahian. Dena den, atal hau bukatu aurretik berriz gogorarazi nahi dugu kirolaren garrantzi soziokulturala ez dela soilik praktika aktiboaren bidez neurtu behar. Gorago aipatu dugun egungo kirolaren ikuskizun izaerak indar handia du eta, kirolik praktikatu gabe ere, gazte (eta helduen) askoren aisialdian kirola da jarraitzen duen jarduera nagusia.

2.2. Nerabeen⁶ kirol praktikak

Haur eta nerabeen arloan kirol-jarduera fisikoak garapen handia izan du XIX. mendean gorputz hezkuntza Mendebaldeko herrialdeen eskolako irakasgai gisa txertatu zenetik. Azken hamarkadetan, gainera, aurrerapen eta proposamen berri ugari nabarmendu daitezke, bai eskola barruan garatzen den gorputz hezkuntzan, baita eskolaz kanpoko jarduera fisikoaren eremuan ere. Eskaintza eta kirol aniztasuna handitu dira, kirol-praktikekin lotutako materiala eta instalazioak hobetu dira eta

⁵ Euskaraz JOLASA eta JOKOA hitzen bidez bereiztu izan dena.

⁶ Hautzaro, nerabezaro eta gaztaro kategoriak gizarte eraikuntzak dira, eta, hortaz, garaiaren arabera definitu eta pentsatzen dira. Gaur egun ez da erraza adostasun orokor bat topatzea aro hauek mugatzen dituzten adinen inguruan. EUSTAT-en arabera gazteak 15 eta 29 urte bitarteko hiritarrak dira. Osasunaren Munduko Erakundeak dio nerabezaroa 10 eta 19 urte arteko garaia dela. Edonola ere, gure ikerketa hau 10-16 urte adin tartean garatzea erabaki denez nerabeen izendapena erabiliko dugu kirol jardueretan parte hartzen duten subjektuak izendatzeko.

gizarte-diskurtsuetan eta iruditegian kirol-jarduera fisikoaren praktika ezaugarri positiboekin lotuta ageri da. Hori dela eta nerabeen artean kirola egitea aisialdiko aukera oso garrantzitsua bihurtu dela esan daiteke. Hala adierazten dizkigute aurrerago zehatzago erakutsiko ditugun datuak, baina, oraingoz, azpimarratu nahiko genuke Euskal Erkidego Autonomoan 15-19 urte bitarteko gazteen artean %49,3 astean hirutan gutxienez kirola egiten dutela aitortzen duela. Kopuru hau jaisten da adinean aurrera joan ahala: %39,2 20-24 urtekoen artean eta %35 25-29 urteko adin tartean (Gazteen Euskal Behatokia, 2013)

Dena den, Joxan Unsain-ek mundu mailan egindako ikerketen errepasoaren arabera ez dago argi kirol-jarduera fisikoa egiteko joera nerabeen artean handitu denik (2011:229). Egile askok diote azken urteetan “kirol-jarduera fisikoa, oro har, eta nerabezaroan, bereziki, murriztu egin dela antzeman dela” (Unsain, 2011:235). Ikerketa hauen guztien ondorioak honako hiru hauek dira: 1) Gizonezkoak emakumezkoak baino aktiboagoak dira, 2) Jarduera fisikoa gutxitu egiten da adinarekin batera (12 eta 18 urte bitartean ematen da fenomeno horren murrizketa nabarmena), eta 3) Nerabe portzentaje batek soilik egiten du erakunde ofizialek gomendatzen duten jarduera fisiko kopurua (ibid.).

2.3. Gazteen kirol praktika orokorrak EAEn

Ikusi dugun bezala, Gazteen Euskal Behatokiak 2013an egindako txostenak adierazten du 15-19 urte bitarteko gazteen erdiak kirola astean hirutan gutxienez egiten dutela. Ariketa fisikoa egiten dutenen kopurua handitu egiten da honako baieztapenaren inguruan galdetzerakoan: “azkeneko zazpi egunetan jarduera fisiko osasungarria (neurritzkoa edo bizia) egin dut”. Hala egiten duten 15 eta 29 urte bitarteko gazteen kopurua %75,3 da. Gizonezkoen %78,8 praktikatzten zuen kirolen bat eta emakumeen %71,6. Ez zegoen adin horretatik beheragoko daturik. Hala ere, adin tarte hau (15-29) adin tarte gehiagotan banatzen baldin badugu, datu interesgarriak ikus daitezke kirol praktikari begira:

Kirola praktikatzten duten 15-19 urteko gazteen ehunekoa

15-19 urte	20-24 urte	25-29 urte
%79,1	%76,6	%72,1

Gazteen Euskal Behatokia, 2003

Joera bat ikus dezakegu taula honen bitartez, gero eta gazteago gero eta kirol edo jarduera fisiko gehiago egiten denaren joera. 15-19 urte bitartean, hamarretik zortzik kirola praktikatzeko zuten modu ohi batez 2013an. Gazteen artean kirolaren praktikaren bilakaera nolakoa izan den erreparatuta ikusiko dugu 2007an gazteen %67,6 (15-29 urte bitarte) praktikatzeko zuela kirolen bat; 2013an berriz, jada aipatua izan den %75,3. Bilakaeran, beraz, kirolaren praktikan goranzko joera bat izan da gazteen artean. Baina, goranzko joera hau gazteetan eman da bakarrik?

Ez. Urte beretan biztanleria osoaren kirol praktika datuak hartzen badira, bertan gorakada txiki bat izan dela ikus daiteke: 2007an %66,9ak praktikatzeko zuten kirolen bat eta, 2013an aldiz %69,3ak. Kirol praktika baxuagoa da gizartean orokorrean eta bertako igoera gazteen artean baino apalagoa izan da.

Datu hauekin, ondorengo ondorioztatu daiteke: biztanleria orokorrarekin alderatuz gazteek kirol gehiago praktikatzeko dutela, eta adinean behera egin ahala, seguru aski, jarduera fisikoa gero eta handiagoa izango dela. Haur eta gazteek, beraz, kirola egiten helduek baino denbora gehiago igarotzen dute. Bestalde, genero harremanek badute zeresana kirolean, mutilek neskek baino kirol gehiago praktikatzeko baitute. Azkenik, ematen du azken urteetan jendartearen kirolaren praktikan igoera txiki bat egon dela.

Atal honetan, beraz, gazteek orokorrean zenbat kirol egiten duten zehazten hasi nahi izan dugu. Horretarako kirol-praktika orokorrean datuetara hurbildu gara. Jarraian, kirol-praktika hauen antolaketa deskribatzearekin batera, EAEko talde federatu, kirol lizentzien eta eskola-kirolaren datu kuantitatiboak erakutsiko ditugu, nerabeen kirol-jarduera fisikoen dimentsio sozio-kulturala ahalik eta gehien zehazteko nahian.

2.4. Haur eta nerabeen kirol antolaketa

Haur eta nerabeen kirol praktikak anitzak direla esan dezakegu. Gaztetxoek kirol-jarduera fisikoak gune (kalean, eskolan, kiroldegian...) eta une (eskola orduetan, denbora librean, asteburuetan...) ezberdinetan egiten dituzte. Azken urteetan aldaketak eman dira haurtzaro eta nerabezaroaren kirol antolaketan, eztabaida nabarmenak sortuz. Berrikuntza hauek, maiz, terminologian ere nahasketa ekarri izan dute (eta alderantziz), horregatik, egungo antolaketa zein den azaldu aurretik, haur eta gazteen

kirolaren inguruan erabiltzen diren hainbat kontzeptu zehaztuko ditugu. Horretarako, Luis Mari Zulaika-k egindako taula hau hartuko dugu oinarri gisa (Zulaika, 2016:5)

Eskola-kirolarekin lotutako termino desberdinak

Eskola adineko kirola	Bizi-ziklo batean egindako jarduera mota guztiak sartuko lirateke eremu honetan. Tarte horretan (<16 urte) ikuspegi oso desberdinekin egindako jarduerak sartzen dira; baita goi errendimendurako egindakoak ere, eta ez litzateke zuzena horiek guztiak eskola-kirola gisa ulertzea
Hautzaroko kirola	Aurrekoaren antzera, bizi-zikloko epe bati egiten dio erreferentzia, eta tarte horretan haurraren heziketa eta osasunaren desegokiak diren hainbat jarduera ere egin egiten dira. Bestalde, ez litzateke ahaztu behar hautzaroan kirolaz gain bestelako jarduerak ere burutu beharko liratekeela motrizitatea lantzeko
Eskolaz kanpoko kirola	Eskolaren izaera eta hezkuntza proiektuarekin zerikusirik izan beharko ez lukeen jarduera gisa izendatzen da. Albo batera utzita zein ordutegitan burutuko litzatekeen uste dugu eskolako idearioarekin bat etorri beharko lukeela.
Eskolarteko kirola	Izaera lehiakorra azpimarratu nahi da. Badirudi ikastetxe desberdinetako ordezkarien arteko liga edo konpetizio bat izatera mugatzen dela.
Oinarrizko kirola	Badirudi bere izaera justifikatzen dela goi-errendimendurako prestakuntzarako baliagarria den heinean. Bere xede bakarra eliterako jokalaria prestatzea dela.
Harrobiko kirola	Aurrekoaren antzera, harribitxi gutxi batzuk lortzearen <i>eskoria</i> edo errefusa sortzea onartzen da.

Zulaika, 2016

Termino horiekin batera, Zulaikak Eskola-kirola definitzeko egin diren proposamenak errepasatzen ditu (ibid.:4) eta oro har definizio horiek bat datozen alderdiak zein diren zehazten ditu: “Adinari dagokionez, oro har eskolaratze adinaren eremua kontuan hartzen da, gure kasuan: 6-16 urte. Helburuei dagokionez, izaera hezitzailea eta haurraren osotasunezko formakuntza bilatzen da, bai eta balioak garatzea ere. Ordutegiari dagokionez, baldintza gisa curriculumeko gorputz hezkuntzako irakasgaitik bereizteko ordutegi *lektibotik* kanpo izan beharra”. Aurretik zehaztutako taulari, beraz, Euskal Kirolaren Legeak⁷ erabiltzen duen definizioa oinarri hartuta (*“Ikasleek nahitaezko eskolatze-aldian irakas-orduetatik kanpo egiten duten kirol-*

⁷ EHAA. 1998ko Ekainaren 25a, 118 zenbakian, 11722 orrialdea

jarduera antolatua”) honela definituko genuke eskola-kirola, alderdi hezitzailea gehituz:

Eskola-kirola	Ikasleek nahitaezko eskolatze-aldian irakas-orduetatik kanpo eta helburu hezitzaileekin burutzen dituzten jarduera fisiko eta kirolen multzoa
----------------------	---

Eskola-kirolak beraz, eskola orduetatik kanpo egiten bada ere, hezkuntza sistemarekin harreman estua dauka eta haren kudeaketa ikastetxeen esku geratzen da. Horrek ez du esan nahi irakas-orduetan garatzen den gorputz hezkuntza horretara bideratuta dagoenik: bi praktikak osagarriak izan behar dute. Gorputz hezkuntzaren definizioa, beraz, osatzen ari garen zerrendara gehitzea komenigarria dela uste dugu. Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza Sailak zehaztutakoaren arabera honela definitu dezakegu Gorputz Hezkuntza:

Gorputz hezkuntza	Ikasleek nahitaezko eskolatze-aldian irakas-orduetan burutu beharreko ikas-jarduna. Mugimen-jarduerarekin eta gorputz-kulturako elementuak barneratzearekin lotutako ahalmenak garatzea du helburu nagusi.
--------------------------	--

Gainera, badago eskolatik kanpo oinarritzko kirola sustatzen duten kirol elkarteekin zerikusia duen beste arlo bat: Kirol eskolak edo kirol teknifikazio unitateak. EAEko kirol legeak zehaztu zuen⁸ zenbait kirol modalitateetan teknifikazio unitateak sortzeko eman beharreko urratsak eta bete beharreko baldintzak (Zulaika, 2016:9). Horri jarraituz Gipuzkoako Foru Aldundiak⁹ honela definitu zituen teknifikazio unitateak:

Kirol modalitateak erakusteko jarduerak dira, edota kirol irakaskuntzakoak oro har, ez daudenak lotuta lehiaketetan parte hartzearekin, eta irekiak direnak parte hartu nahi duten ikasle guztientzat, bakoitzaren kirol gaitasunagatik mugarik jarri gabe. Inoiz ere ezingo dira jarduera horiek egin, aldeztatik ezkutuko hautaketaren bat badago.

Kirol eskola hauek kirol elkarte, klubei eta federazioei erabat lotuta agertzen zaizkigu. Hezkuntza sistematik at antolatzen den kirol-jarduerak dira. Horregatik, interesgarria da kirol federatua zer den ere zehaztea, gure ikerketan kirol horren erreferentzia etengabekoa baita. Gehitu ditzagun osatzen ari garen kontzeptu multzoen zerrendan azken bi definizio hauek:

⁸1998ko ekainaren 11ko 14/98 Legeak (Euskal Herriko Kirolarenak), 55.4 artikulua.

⁹ 2007ko urriaren 19ko 63/07 Foru Agindua.

Kirol eskolak (kirol teknifikazio unitateak)	Kirol modalitateak erakusteko jarduerak dira, edota kirol irakaskuntzakoak oro har, ez daudenak lotuta lehiaketetan parte hartzearekin, eta irekiak direnak parte hartu nahi duten ikasle guztientzat, bakoitzaren kirol gaitasunagatik mugarik jarri gabe.
Kirol federatua	Federazio internazionalak zehazten dituzten arauen arabera praktikatzeko den eta lurralde bakoitzean kirol modalitate zehatz bakoitzak duen federazioaren kontrolpean egiten den kirola

Gure ikerketan eskola adineko kirolean eta haurtzaroko kirolean sartzen diren jarduerak guztiak kontutan hartzea erabaki zen: hau da, 10 eta 16 urte bitarteko edozein kirol-praktika. Adin tarte horretan, kirol praktika antolatuei dagokionez gure testuinguru geografiko eta instituzionala hiru multzo nabarmendu ditzakegu: gorputz hezkuntza, eskola-kirola eta kirol federatua (eta kirol eskolak).



“D ereduko kirola” izeneko ikerketan eskola orduetatik kanpo egiten diren jardueren erreparatzea erabaki dugunez, lehen multzo handian -gorputz hezkuntza- ez gara aritu. Praktikan, 2016. urtean hirugarren multzoko -kirol federatua- gune batzuk ikertu ditugu, baina aurrera begira bigarren multzokoak aztertzea ere aurreikusten dugu.

Gorputz hezkuntza, derrigorrezko hezkuntzaren barneko atal bat denez, 3 eta 16 urte bitarteko haur eta nerabe guztiek egin behar duten jarduerak da. Beste bi multzoetan ez da gauza bera gertatzen eta zaila da datu zehatzak topatzea erakunde ezberdin askok kudeatzen dituzten eremuak direlako. Hala ere, jarraian argazki orokor bat egiten saiatu gara Gipuzkoa, Bizkaia eta Arabako gazteen kirol-jardueren praktiketara gehiago hurbiltzeko.

2.5. Eskola-kirolaren datuak

Aurretik aipatu dugun bezala, “D ereduko kirola” izeneko ikerketaren lehen urtean ez dugu eskola-kirola eremuko gunerik aztertu. Dena den, arlo horretan aritzen diren haur kopuruari aipu bat egitea beharrezko ikusi dugu, ume askorentzat kirolarekin duten lehen harremana baita. Jarraian, EAEko probintzien araberrako datuak emango dira, erkidego osoko datuak ez daudelako.

Gipuzkoari dagokionean¹⁰, 2015-2016 ikasturtean ohiko kirol gisa izendatuak diren espezialitateetan (saskibaloia, eskubaloia, areto futbola eta futbola) 48.007 ume hartu zuten parte; bestalde, beste kirolen hastapen ikastaroetan (23 kirol desberdin daude hemen) 49.734 ume aritu ziren. Generoari erreparatuta, Gipuzkoako diputazioko dokumentuak dio ikasturte honetan partehartzaileen %58 mutilak zirela eta beste %42a berriz, neskak. Joerari begiratzuz, nesken parte hartzeak nabarmen egin du gora, hasierako urteetan mutilak %80 baitziren.

Arabari begiratuiko diogu jarraian¹¹, 2013-2014ko ikasturteko datuak erabiliz. Ikasturte horretan 6-14 urte bitarteko 14.160 gaztek hartu zuten parte. Hauetatik %39 (5522 haur) neskak ziren eta mutilak berriz, %61 (8638 haur). Generoari begira, beraz, alde nabarmena dagoela ikus daiteke. Dokumentuak esaten digu baita ere, azken hiru denboraldietan neska eta mutilen parte hartzeak nabarmenki egin duela gora eskola-kirolari dagokionean, nahiz eta, ondorengo taulan ikusten den bezala, neska eta mutilen arteko desberdintasun nabarmenak diren. Araban, partehartzaile gehien dituzten adin tarteak benjaminak eta alebinak dira. Kadeteen mailan jaitsiera nabarmena ematen da.

Arabako eskola-kiroleko parte-hartzaileak mailaren arabera

	Prebenjaminak	Benjaminak	Alebinak	Infantilak	Kadeteak	Guztira
Neskak	945	1394	1405	1144	636	5522
Mutilak	1549	2146	2266	1960	717	8638
Guztira	2494	3540	3671	3104	1351	14160

Asociación de Federaciones Deportivas de Araba

¹⁰Gipuzkoako Foru Aldundiak argitaratutako *Eskola Kirola 25 urte* izeneko dokumentutik ateratako datuak.

¹¹Asociación de Federaciones Deportivas de Araba egindako *Mujeres en el deporte federado de Álava: propuestas para fomentar su participación* txostenetik ateratako datuak.

Azkenik, Bizkaiko datuetan¹² jarriko dugu arreta. 2016-2017 ikasturtean 14265 neska eta 24602 mutil dabilta parte hartzen eskola-kirolean Bizkaian; ehunekoetara ekarriz, neskak %36,7 dira eta mutilak, berriz, %63,3. Bizkaian eskola-kirolaren partehartzearen bilakaera begiratzen bada, ohartu gara azken 15 urteetan honek gora egin duela nabarmen:

Bizkaiko eskola-kiroleko parte-hartzaileak

2000/2001		2013/2014		2016/2017	
Mutilak	Neskak	Mutilak	Neskak	Mutilak	Neskak
12485	8104	22141	12007	24602	14264
20589		34148		38867	

Azkenik, Bizkaiko kasuan neska eta mutilek praktikatzen dituzten kirol espezialitateari begiratuta, neskek gehien praktikatu izan dituzten kirolak hauek dira: atletismoa, saskibaloia, eskubaloia, gimnasia erritmikoa, igeriketa eta futbola. Mutiletan, berriz: atletismoa, saskibaloia, eskubaloia, futbola, igeriketa eta esku pilota nabarmentzen dira. Urteak aurrera egin ahala kirol berri gehiago sartu dira eskola kirolean Bizkaian; hala ere, aipatutako kirolak dira jende gehien erakartzen dituztenak.

2.6. Kirol federatuaren datu orokorrak

Espainiako Hezkuntza, Kultura eta Kirol Ministerioak kirol klub eta kirol lizentzien berri ematen du urtero. Jarraian azalduko diren datuak bertatik hartuak izan dira, 2015eko memoriatik hain zuzen. EAEn, 2015ean, guztira 211.463 pertsonen zeukaten federazio lizentzia bat, hau da, 2015ean populazioaren %9,8 zegoen federaturik kirolen batean (ia hamarretik bat, beraz). Bestalde, lizentzia kopuru horretatik 156.426 gizonenak dira; emakumeen lizentziak, aldiz, gainontzeko 55.037ak. Portzentajetara ekarriz, mutilek lizentzien % 74 dituzte eta neskek berriz %26. Genero aldetik beraz, aldeak handiak direla ikusi daitezke kirol federatuan ere.

Talde federatuei dagokionean, bestalde, 2015ean EAEn 2.791 taldek zeukaten izena emanda talde federatu bezala. Datu hauek ikusita, kirol federatuak jende asko mugitzen duela esan dezakegu, nahiz eta espezialitateen artean diferentzia nabarmenak dauden Hona hemen EAEko kirol federatuen datu orokorrak:

¹² Bizkaiko Foru Aldundiak ikerlariei zuzenean emandako datuak dira.

EAEko kirol taldeen kopurua¹³

Kirol espezialitatea	Talde kopurua
Aeronautika	23
Atletismoa	76
Arku-tiroa	27
Arrantza	48
Arrauna	26
Automobilismoa	41
Badminton	4
Beisbol eta Sofbol	9
Bela	13
Bilarra	13
Boleibol	25
Boloak	24
Boxeo	9
Borroka olinpikoak	13
Burmuin paralisia dituzten pertsonen kirolak	8
Ehiza	226
Errugbia	24
Esgrima	10
Eskubalo	56
Espeleologia	4
Ezintasun fisikoak dituzten pertsonen kirolak	9
Ezintasun intelektualak dituzten pertsonen kirolak	8
Futbola	477
Gimnasia	44
Golfa	27
Halterofilia	8
Hipika	32
Hockey	25
Igeriketa	52
Izotz kirolak	8
Judo	69
Karate	83
Kickboxing	4
Mahai-tenisa	15
Mendia eta eskalada	187
Motoziklismoa	32
Motonautika	6
Neguko kirolak	832
Padela	43
Patinajea	41
Petanka	8
Pilota (2016an)¹⁴	138
Piraguismoa	16
Saskibaloia	288
Squash	6
Taekwondo	23
Tenis	43
Txirrindularitza	269
Tiro olinpikoa	57
Triatloia	90
Ur azpiko kirolak	50
Xakea	62

Espainiako Hezkuntza, Kultura eta Kirol Ministerioa, 2015

¹³ Lau talde baino gutxiago dituzten kirolak ez ditugu zerrendan sartu. Hauek dira: Aire-tiroa(1), Sorospena(1), Uretako eskia(1), Amerikar Futbola(2), Usozaletasuna(3), Surfa(3) eta Orientazioa(3)

¹⁴ Espainiako Ministerioak argitaratutako datuetan ez da pilotaren datua agertzen, horregatik Pilotaren Federazioak 2016rako emandako datua txertatu dugu.

2.7. Kirol hezitzaile, monitore eta entrenatzaileak eta hauen irakaskuntza

2016an garatu dugun ikerketan arreta entrenatzailengan jarri dugunez, horien formazio aukeren inguruko aipamen txikia egitea interesgarria izan daitekeela uste dugu. Hasteko, ohartarazi behar da EAEn kirol jardueretan lanean aritzeko arautzen duen legerik ez dagoela, oraindik orain, onartua. 2016ko otsailean bideratu zen *Kirolarekin lotutako lanbideak izateari eta horietan jarduerari buruzko Aurreproiektua*, eta lege horrek, beste alderdi batzuen artean, kirolaren eremuan aritu ahal izateko behar den prestakuntza erregulatuko luke. Hau da lege horren bidez arautuko litzateke gaur egun Araba, Bizkaia eta Gipuzkoan kirolean hezitzaile, entrenatzaile edo begirale gisa aritzen direnen jarduna.

Eusko Jaurlaritzak 2016ko azaroan argitaratutako “EAEko kirol arloko giza baliabideen lan-egoerari eta kualifikazioari buruzko azterlana”izeneko txostenaren arabera¹⁵ EAEn 20.000 pertsona inguru (zehazki 19.703) aritzen dira aztertu diren lau lanbideetan: Soin Hezkuntzako irakasleak (1.401), Kirol Monitoreak (12.167), Entrenatzaileak (13.319) eta Kirol Zuzendariak (1.723)¹⁶. Azterlan honen arabera gehienak kirol federatua aritzen dira (% 38,1), gero, eskola-kirolean (% 31,4), eta, neurri txikiagoan, guztientzako kirolean (% 25,4) eta Gorputz Heziketan (% 5,1). Esanguratsua da lan hauetan aritzen diren emakumeen kopuru txikia: % 26,7.

EAEn kirol arloan aritzen diren pertsonen ehunekoak (2016)



¹⁵ Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saila: http://www.euskadi.eus/contenidos/noticia/estudio_situacionlaboral/eu_def/adjuntos/Kirol_eragileen_lan_eta_kualifikazio_azterlana_euskera.pdf

¹⁶ *Kirolarekin lotutako lanbideak izateari eta horietan jarduerari buruzko Aurreproiektua*-n honela bereizten dituzte kirol "lanbide" ezberdinak: **Kirol monitoreak**: Lehiaketara bideratuta ez dauden jarduerak arduratzen da. **Kirol entrenatzaileak**: Kirol modalitate baten lehiaketara bideratuta kirolari edo taldeen entrenamendua planifikatu eta zuzentzeaz arduratzen da lanbide honetan. **Kirol zuzendariak**: Kirolgunetan jarduerak zuzentzeaz, programatzeaz, planifikatzeaz, koordinatzeaz, kontrolatzeaz eta gainbegiratzeaz arduratzen da.

“EAEko kirol arloko giza baliabideen lan-egoerari eta kualifikazioari buruzko azterlana”-ren arabera kirol arloan “azpiprestakuntza maila altua dago” EAEn kirol-jardueraren batean aritzen diren pertsonen % 61,2k ez daukate garatzen dituzten lanetarako behar beste formakuntzarik edo titulaziorik, nahiz eta, prestakuntza edo titulazio egokia ez duten pertsonen erdiak baino gehiagok (% 56,4k) 750 ordutik gorako esperientzia dauka. Halaber, esanguratsua da ohartaraztea azpiprestakuntza bereziki boluntarioen (% 65,9) nahiz profesionalen (% 55,8) artean agertzen dela. Era berean, esan behar da, eskola-kirolean prestakuntzaren eta jardueraren arteko desegokitasun handiena (% 71,2) badago ere, kirol federatuan (% 63,3) eta guztientzako kirolean (% 62,4) ere desegokitasun maila handia dela.

Ikus dezagun, beraz, zein den egun eskaintzen den kirol prestakuntza. Kirol arloko formazioa bi multzotan banatu daitekeela esan daiteke: (1) Kirol formazio formala eta (2) Kirol formazio ez-formala. Lehenengoa beste bi azpi-multzo bereizi daitezke antolatzailearen arabera; batetik, hezkuntza arloko erakundeek eskaintzen duten formazio ofiziala dago, eta, bestetik, kirol bakoitzeko federazioek eskaintzen dituzten titulazioak daude. Azken urteetan, titulazio guzti hauek homologatzen eta berrantolatzen ari dira, baina, oraindik panorama ez da erabat argia eta kirol bakoitzeko egoera zehazki aztertu behar izaten da.

Luis Mari Zulaika-k *Udaltop* jardueretan aurkeztutako ondorengo taula honetan biltzen da kirol formakuntzan dauden titulazioen sailkapena (Zulaika, 2016:12)

	TITULUA	IRAUPENA	SARBIDEA
Graduondoko masterrak	Jarduera fisikoa eta kirolaren zientzietan	Urte 1 (60 ECTS)	gradua
	Bigarren Hezkuntzako irakasleak prestatzeko	Urte 1 (60 ECTS)	Jarduera Fisiko eta Kirolaren Zientzietako gradua
Unibertsitate Graduak	Jarduera Fisiko eta Kirolaren Zientzietako gradua	4 urte (240 ECTS)	Batzilergoa + selektibitatea + sarrera probak; Beste titulazioetatik
	Lehen Hezkuntzako Gradua, GHko aipamena	4 urte (240 ECTS) GHkoak: 30	Batzilergoa + selektibitatea
Kirolaren berriazko titulak	Goi Mailako kirol teknikaria	+ ikasturte 1	Batzilergoa + kirol teknikaria + proba1
	Mendia, neguko k., atletismo, eskub., saskib., futbola, areto f., hipika, bela, urpekaritza		>19 + proba 1
Lanbide Heziketa	Erdi Mailako kirol teknikaria	2 ikasturte	DBH + berriazko proba
			>17 urte + heldutasun proba
Lanbide Heziketa	Gorputz eta Kirol ekintzen animazioa (Goi mailako Heziketa Zikloa)	2000 ordu	
	Natura-ingurune gidaria (Erdi mailako heziketa zikloa)	1400 ordu	

Horiekin batera kirol federazioek eskaintzen duten titulazioak daude. Esan bezala, kirol bakoitzaren araberrako ibilbideak ezberdinak dira eta izan dira, duela urte gutxi arte kirol teknikarien formazioa federazioen esku egon baita. Federazio hauek arautzen eta antolatzen zuten entrenatzaileen formazioa administrazio publikoaren kontrolik gabe. Lurralde federazioek antolatu izan dituzten ikastaro hauek ez dute balio akademikorik, nahiz eta Estatu mailako federazioek onartu eta homologatuak izan. Dena den, pixkanaka titulazio hauek hezkuntza sisteman txertatzen ari dira¹⁷, eta gaur egun Lanbide Heziketan eskaintzen diren formazio zikloen egituraren eta titulazioen antzeko ezaugarriak dituzte.

Gaur egun hezkuntza sisteman txertatua dauden kirol modalitateak hauek dira: mendiko kirolak eta eskalada, neguko kirolak, atletismoa, eskubaloia, futbola, areto-futbola eta espeleologia, hipika, bela, urpekaritza, judo, esgrima eta piraguismoa. Hain zuzen, 2006an EAEn Kirolene izeneko Kirol Irakaskuntzetako Ikastetxe

¹⁷ Espainiako 1363/2007 errege-dekretuan zehazten da egungo kirol irakaskuntza sistema ofiziala eta modalitate ezberdinetako kirol teknikarien formazio ofiziala antolatzeako arautegia.

Publikoa sortu zen kirolari buruzko ikasketei balio profesionala eta akademikoa emateko asmoz. Kirolene da ikaskuntza hauek eskaintzen dituen ikastetxe publiko ofizial bakarra¹⁸. Gainontzeko kirol espezialitateen formazioa, oraingoz, federazioen esku geratzen dira pixkanaka hezkuntza sisteman txertatzeko asmoz. Bitartean “Kirol federazioen prestakuntzak igaroaldian zehar” izenarekin izendatzen dira formazio saio horien arautzeko sistema. Hona hemen erregimen bereziko kirol irakaskuntzen azalpena (Zulaika, 2016:13):

Igaroaldia (Kirol sistema)	Erregimen bereziko kirol irakaskuntzak (Hezkuntza Sistema)	iraupena	sarbidea
I. maila: Kirol hastapenerako	I. mailako ziurtagiria edo maila ertaineko hasierako zikloa	275 h	>16 urte + DBH
II. maila: Kirol teknifikaziorako	Erdi Mailako kirol teknikaria	440 h	>16 urte + DBH + kirol horretako I. maila
III. maila: Goi errendimendurako	Goi Mailako kirol teknikaria	610 h	Batxilergoa + kirol horretako II. maila

Baina, haur eta gazteekin aritzen diren entrenatzaileak askotan ez dute ikasketa ofizialak egiteko denborarik ezta asmorik ere, maiz eskola-kirolean eta kirol talde askotan entrenatzaileen lana boluntarioa izaten baita¹⁹ edo ez da jardunaldi-oso egiten den zeregin profesionala²⁰. Dorleta Ugaldek dio azken urteotan kirol erakunde publikoen kezka izan dela begirale eta entrenatzaile hauen prestaketa hobetzea” (Ugalde, 2016:9). Horri begira foru aldundiek online Asmoz plataformaren bidez, 20 ordu teoriko eta 15-20 ordu praktiko dituen ikastaroa eskaintzen dute. Formakuntza hau ez da ofiziala, baina Ugalderen arabera “Eusko Jaurlaritzak eta foru aldundiak lanean dihardugu maila honetan oinarritzko formakuntza ofizial bat eskaini nahian” (ibid.).

2.8. Kirola eta euskara

Kirolaren inguruan osatzen ari garen testuinguru orokor hau amaitzeko “D ereduko kirola” izeneko ikerketan oinarrian dagoen hizkuntzaren aldagaiari lehen hurbilpen orokorra egin nahi diogu. Azken urteetan ahots ezberdinek haur, nerabe eta gazteen

¹⁸ Gipuzkoa, Bizkai eta Arabako Futbol Federazioek eta beste bi zentro pribatuk soilik futbol eta areto-futbola formazio ofiziala eskaintzeko ahalmena dute.

¹⁹ Boluntarioek garatzen dituzte jardueren erdia baino gehiago (% 55,4): Kirol federatua (% 79,9) eta eskola-kirola (% 63,1) (Eusko Jaurlaritza, 2016).

²⁰ Pertsonen % 14,2 bakarrik aritzen dira 25 ordutik gora asteen eta kirolean aritzen direnen % 62,3k 250 euro baino gutxiago kobratzen dute, edo ez dute kobratzen. Pertsonen % 12,1ek bakarrik kobratzen dute 1.000 eurotik gorako hileko soldata (Eusko Jaurlaritza, 2016).

kirolean dagoen hizkuntz errealitatean erreparatzeko proposamena egiteaz gain, arlo horretan euskarak duen presentzia handitzeko beharraz ohartarazi dute. Horren isla dira, besteak beste, kirolean euskararen erabilera handitzeko asmoz erakunde eta administrazio publiko ezberdinek garatzen hasiak diren plangintzak edo 2016an Lasarte-Orian antolatu zen “Kirolean D ereduan, noizko?” izeneko *Udaltop* jardunaldia. Jarraian, beraz, une honetan kirola, euskara eta gazteen arteko uztardura erakusten diguten datu batzuk eta horretan eragiteko garatzen ari diren zenbait programen berri emango dugu²¹.

Aurreko orrietan kirol arloan dagoen aniztasuna (kudeaketan, antolakuntzan, tamainan, eraginan...) ikusi dugu. Hortik antzeman daitekenez zaila da “argazki finko” bat ematea. Praktikan, nekeza da kirolean dauden hizkuntzen-praktiken inguruko datuak topatzea, eta, ondorioz, abiatzeko diagnosi argirik gabe zaila izango da arloaren osotasunean eragitea. Dena den, euskararen biziberritze lanean aritzen diren pertsonen pertzepzioez gain, badugu interesgarria iruditzen zaigun datu bat: eskolaz kanpoko jarduera antolatuetako hizkuntza erabilerak haur eta nerabeen euskara erabileran eragin handia du.

Eusko Jaurlaritzak 2011n egindako Arrue Ikerketan²² (Eusko Jaurlaritza, 2011:71) argi ikusten da LHtik DBHra aldaketa nabarmena ematen dela euskararen erabileran. Batetik, ikaskideen arteko gela barruko erabilera irauli egiten da. LH4n beti euskaraz edo euskaraz gaztelaniaz baino gehiago %60ak egiten badu ere, DBH2n gehiengoa gaztelaniaz aritzen da (%60 beti gaztelaniaz edo gaztelaniaz euskaraz baino gehiago). Bestetik, jolaslekuan ikaskideekin egiten duten euskarazko erabileran jaitsiera nabarmena da baina abiapuntua ezberdina da. LHN ikasleen %59 beti gaztelaniaz edo gaztelaniaz euskaraz baino gehiago aritzen da eta DBH2n ikasleen %75ekoa da proportzio hori.

Euskararen erabileran ematen den jatsiera honetan eragiten duten aldagaiak aztertzerakoan, Arrue ikerketak nerabeen arteko erabileraren lotura handiena duen

²¹ Gure asmoa ez da une honetan kirola eta euskara jorratzen duten programa guztien errepaso sakon bat egitea. Beharbada *D ereduko kirola* egitasmoan baitan datozen urteetan horrelako esperientzien bilduma eta metodoen ikerketa egin daiteke.

²² Garrantzi kuantitatibo eta kualitatibo handiko ikerketa da EAEko Lehen Hezkuntzako 4.mailako (18.636 ikasle) eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 2.mailako (17.184 ikasle) ikasle guztiek parte hartu zutelako.

aldagaia Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 2. mailako ikasleen artean, hizkuntza-erabilera eskolaz kanpoko jarduera antolatuetan (LHn garrantzia duen bigarren aldagaia da honako hau) (Eusko Jaurlaritza, 2011:61). Hau da, argi ikusten da eskolaz kanpoko hizkuntza-giroak haur eta nerabeen euskararen erabileran duen zeharkako eragina handia dela, eta eskolaz kanpoko jarduera antolatuen artean kirola da, ziur aski, garrantzi handiena duen ekintza multzoa.

Aipatu dugun bezala, haur eta nerabeen kirol arloan euskararen presentzia zenbatekoa den azaltzen digun ikerketa orokorrik ez dago²³ eta, bestalde, hizkuntza irizpideak zehazten dituen arautegi zehatzik ere, gaur gaurkoz ez dago. Horren inguruan Unai Aberasturi-k eta Iñaki Lasagabaster-ek *Udaltop* jardunaldirako idatzitako artikuluan araubideen azterketa egin zuten eremuaren konplexutasuna ohartaraziz:

Lan eremu edo gai hau konplexua da benetan, arrazoi ezberdinengatik: Batetik, harremanetan jartzen dira errealitate eremu ezberdinak: euskara, kirola, hezkuntza. Bestetik, gai hauek izaera transbertsala edo zeharkakoa daukate eta gai ezberdinen gain eragiten dute. Hirugarrenik, errealitate eremu honetan eragiten duten beste hainbat gai aurkitu daitezke: diru-laguntzak, laguntza-hitzarmenak, baimenak... Azkenik, kontuan hartu behar da, euskararekin askotan gertatu den legez, bere erabileraren normalkuntzak ez dituela bakarrik neurri juridikoak galdatzen, baizik eta erabaki politikoak eta testuinguru sozial egoki bat ere beharrezkoa dela (Aberasturi eta Lasagabaster, 2016:3).

Aberasturik eta Lasagabasterrek kirol lege eta dekretuetan euskararen aipamenen errepasoa egiten dute eta oinarri nahikoa ikusten dute euskaren biziberritzerako: “Pentsa daiteke egun indarrean dagoen araudian jasotako xedapenak nahikoa izan daitezkeela gure helburua betetzeko, batez ere xedapen batzuen interpretazio hedatzailea egin ezker” (ibid.:6). Gure ikerketan xedea diren entrenatzaileen kasuan ere hauxe nabarmentzen dute: “euskara faktore hori bermatzeko ere egungo araudian

²³ Zenbait herrietan egindako ikerketek aipamen batzuk egiten dituzte. Adibidez, Pello Jauregik 2013an egindako *Gazteak eta euskara Lasarte-Orian. 20 urteko bilakaera* ikerketan dio euskararen erabilera zabalduagoa dagoela jarduera artistikoetan (dantza taldeetan bereziki) eta aisialdiko jardueretan, udalekuak barne, bestelako jardueretan baino (ikastaro praktikoak, kirol jarduerak eta klase partikularrak). Edo Soziolinguistika Klusterrak Bergaran 2013an egindako *Bergarako nerabeen hizkuntza-erabilera formala eta informala* ikerketan honako hau ondorioztatzen da: “Continuum bat dagoela dirudi: erabilera handiena gertatzen da talde gidariren bat dagoen irakaskuntza edo kultur kutsuko leku formal eta arautuetan (ikastetxe, kultur jarduera, musika-jarduera eta dantza -jardueretan). Ondorengo maila da aisia eta kirol arloko jarduera gidatuetan gertatzen dena (gazte-lekuan eta kirol jardueretan). Azkenik, erabilerarik txikiena izaten da testuinguru erabat libre eta gidatu gabekoetan”.

oinarri juridikoa nahikoa bilatu daiteke arren oinarri hori oso ez dela oso sendoa eta komenigarria litzatekeela osatu edo aldatzea” (ibid.).

Zentzu horretan, entrenatzaileen hizkuntza praktikan eragiteko bi alderdiri begiratu beharko litzaioke: (1) irakaskuntzari eta (2) euskararen erabilera handitzeko/bermatzeko plangintzei. Irakaskuntzari dagokionez Dorleta Ugaldek ohartarazten gaitu gaur egun euskarazko kirol formakuntzaren eskaintza mugatua dela:

Unibertsitatean formakuntza euskaraz eta erdaraz eskaintzen da (Irakasle-eskola eta Jarduera fisiko eta kirol fakultateetan). Kirolene, kirol arloko irakaskuntza bereziak eskaintzen dituen ikastetxe ofizial publiko bakarra EAEn, eta ia eskaintza osoa erdaraz da. Federazioek oso eskaintza gutxi egiten dute euskaraz (...) Udalek, batzuetan, enpresak kontratatzen dituzte entrenatzaileei saioak euskaraz emateko (...) Baina orokorrean, ekintza puntualak dira. (Ugalde, 2016:10)

Entrenatzaileen euskararen erabilera handitzeko/bermatzeko plangintzetan ere antzeko egoera topatzen dugu. Aldundiak eta zenbait udal programa puntualak garatzen ari badira ere, ez dago plangintza orokorrik haur eta nerabeen kirol-jardueretan entrenatzaileen hizkuntza praktika nagusia euskara izan dadin, ezta, gaztetxoek artean euskararen praktika bermatzeko ere.

2.9. Ikerketarako aukeratutako kirolen testuingurua

“D ereduko kirola” izeneko ikerketan baita 2016an lau kirol gune aukeratuak izan dira: Zaramaga Pilota Eskola, Getxo Aixerrota Boleibol Taldea, Zarautz Eskubalo Elkartea eta Real Sociedad Futbol Taldea. Bigarren atal honetan ikerketarako hautaturiko kirolen datu batzuk aurkeztuko dira jarduera hauen testuingurua zein den azaldu nahian.

2.9.1. Esku-pilota

Esku-pilotari dagokionean, EAEn guztira 138 talde daude eta hauetako 62 Gipuzkoan daude, 20 Araban eta 56 Bizkaian. Pilota elkarte askotan eskuaz gain erramintaren bat erabiltzen duten modalitateak ere sartzen dira, beraz, lizentziei dagokionean eskuz soilik aritzen direnak ez dira bereizten. Hala ere, modalitate guztiak kontutan harturik iaz 2701 lizentzia egon ziren. Gehienak eskuzkoen lizentziak dira baina esan bezala,

ezin dugu jakin zehatz zenbat izan ziren. Hemen, noski, federatuen datuak sartzen dira soilik, ez dira eskolarteko datuak sartzen.

Generoa kontutan hartzen badugu, emakume edo neska gehienek paletarekin jokatzen dutela jaso dugu²⁴. Jarraian, lizentzien datu batzuk emango dira lurraldeka, eta aldi berean hauen bilakaera nolakoa izan den ikusi ahal izango da. (Esan bezala, ezin izan dugu esku-pilotakoak beste modalitatekoengatik banatu).

Pilota lizentzia kopurua urteka

	2012		2013		2014		2015	
	Gizon	Emakum.	Gizon	Emakum.	Gizon	Emakum.	Gizon	Emakum.
Bizkaia	1027	58	984	60	899	45	950	60
Araba	276	24	261	27	249	24	283	25
Gipuzkoa	1284	71	1119	72	1054	70	1105	74
Guztira	2587	153	2364	159	2202	139	2338	159

Pilota Federazioa (2016)

Ikus daiteke, adibidez, Gipuzkoan pilotarekiko zaletasun handiago dagoela, lizentziei dagokionean behintzat, gehien berak baititu banaturik. Generoari dagokionean, gizon eta emakumeen arteko aldea oso nabaria da, kuantitatiboki izugarria. Berez, esan bezala, esku-pilotan oso emakume gutxi dabilta, beraz, aldea oraindik handiagoa izango genuke. Azkenik, federatuen kopuruaren bilakaerari dagokionean beherantz doala esan daiteke, baina 2500 lizentzia inguruan dago. Azkenik, 2015ean, adin talde bakoitzean zenbat federatu dauden ikusiko dugu. Zoritxarrez, datuak ez du generoa erakusten.

Mailen araberako pilota lizentzia kopurua

	Kadete	Jubenil	22 urte azpikoak	Senior
2014/2015 denboraldia	283	345	312	1557

Pilota Federazioa (2016)

2.9.2. Boleibol

Kirol taldeen datu orokorrak emandakoan ikusi den bezala, boleibola ez da kirolari asko mugitzen duen kirol espezialitatea. 2015-2016 denboraldian EAEn 243 lizentzia egin ziren (54 gizonak eta 189 emakumeak). Denboraldi horretan 6 talde maskulino aritu ziren eta 19 talde femeninoak.

²⁴ Kopuru zehatzak biltzea ezinezkoa egin bazaigu ere, azken urteetan eskuz jokatzen hasi diren nesken kopuruak igo direla jaso dugu eta gaur egun hogeiren bat inguru dabilzala jakin ahal izan dugu.

Bi ondorio atera daitezke hemendik; beste kirol batzuekin alderaturik kuantitatiboki jende gutxiagok praktikatzen duela batetik, eta, bestetik, neskek mutilek baino partehartze handiagoa daukatela kirol honetan. Jarraian, EAEko lurralde bakoitzean, adinaren arabera banaturik, zenbat boleibol talde dauden ikusiko da, eta hauetan zenbat jokalaria lizentzia dauden.

Boleibol taldeak 2015-2016 denboraldian

	<i>Absolutuak</i>		<i>Jubenilak</i>		<i>Kadeteak</i>		<i>Infantilak</i>		<i>Alebinak</i>		<i>Benjaminak</i>	
	Gizon	Emak	Gizon	Emak	Gizon	Emak	Gizon	Emak	Gizon	Emak	Gizon	Emak
Araba	0	1	0	1	0	0	0	0	0	0	0	0
Gipuzkoa	1	1	1	2	0	1	0	0	1	0	0	0
Bizkaia	1	6	0	4	1	2	0	1	1	0	0	0
Guztira	2	8	1	7	1	3	0	1	2	0	0	0

Boleibol lizentziak 2015-2016 denboraldian

	<i>Absolutuak</i>		<i>Jubenilak</i>		<i>Kadeteak</i>		<i>Infantilak</i>		<i>Alebinak</i>		<i>Benjaminak</i>	
	Gizon	Emak	Gizon	Emak	Gizon	Emak	Gizon	Emak	Gizon	Emak	Gizon	Emak
Araba	0	10	0	13	0	0	0	0	0	0	0	0
Gipuzkoa	13	8	8	26	8	14	8	0	11	0	3	0
Bizkaia	14	52	0	34	8	20	0	12	1	0	3	0
Guztira	27	70	8	73	16	34	8	12	12	0	6	0

Aurreko taula horietan ikus daiteke Araban boleibol espezialitatea errotze oso txikia duela (bi talde besterik ez daude) eta Bizkaian aritzen dira talde gehienak. Horretaz gain, aurretik ohartarzi dugun bezala, emakume gehiago praktikatzen dute boleibola eta adin guztietan askoz neska gehiago aritzen dira mutilak baino.

2.9.3. Eskubaloi

2016-2017an EAEn, guztira 58 elkartek lantzen dute eskubaloi espezialitatea eta elkarte horietan guztira 4037 lizentzia tramitatu dira. Esan behar da 4037 lizentzietatik 1457 emakumezkoenak direla, %36,09 hain zuzen. Eskola Kirolean parte hartzen dutenak ez dira hemen sartzen.

Jarraian, taula baten bitartez lizentzia hauek adinka banatzen baditugu maila bakoitzean zenbat jokalaria dauden ikusi ahal izango da²⁵:

Boleibol lizentziak 2016-2017 denboraldian

	Kadete	Jubenil	Senior
Neska	417	492	1207
Mutil	301	667	1446

Genero aldagaian aldea dagoela ikusi arren (mutilak neskak bainogehiago dira) kadete mailan neska kopurua mutilena gainditzen duela ohartzea deigarria da. Bestalde, interesgarria da aipatzea kadeteek EAEn kirol eskolaren barruan mugitzen direla; hala ere, nahi badute federatuen lizentzia lor dezakete. Batzuk egiten dute, hauetako gehienek Gipuzkoan.

Azkenik, fitxa kopuruen bilakaerari buruz, salbuespen txikiak kendurik urtero mantendu izan direla jaso ahal izan dugu. Beherakada 2014-2015 denboraldian eman zen, segurua garestitu zelako eta kirol eskolako kadeteek ez zutelako egin; hala ere, kirol hau beti mugitu izan dira EAEn 3500-4000 federatuen artean.

2.9.4. Futbol

Futbolari dagokionean, EAEn 2015-2016 denboraldian guztira 31.575 lizentzia egon ziren 477 klub edo elkartetan banaturik. Ikus daitekeen bezala, kuantitatiboki jende asko mugitzen duen kirola dugu futbola, lizentzia asko daudelako.

Lizentzia kopuru oso horretatik 28.629 mutilenak ziren eta, beste 2.946 neskenak. Datu hauek ehunekoetara eramanez, mutilek lizentzien %90,6 dituzte eta neskek, geratzen den %9,4. Generoen arteko aldea beraz, kirol honetan oso handia dela esan dezakegu. Jarraian, 2013-2014 denboraldian EAEn futboleko zeuden maila desberdinetako lizentzia kopuruak emango dira genero banaketa eginez:


Futbol lizentziak 2013-2014 denboraldian

	Profesionala	Afizionatua	Jubentila	Kadetea
Mutilak	204	7.191	6.527	6.268
Neskak	22	934	840	770

²⁵ Kopuru hauetan EAE eta Espainiako lehiaketetan jokatzen duten jokalaria guztiak sartzen dira

2.10. Ikerketarako aukeratutako kirol elkarteen testuinguruan sakontzen

Ikerketarako aukeratutako lau kirol taldeen ingurunearen ezaugarri orokorrak zein diren ezagutzea ere interesgarria zaigu, txertatua dauden kultur eta jendarte errealitateak gako batzuk eskaintzen baitigu. Jarraian, aukeratu diren kirol elkarteen testuinguruan murgilduko gara euskara, adina eta kirola kontuan hartuz.



2.10.1. Gasteiz

Gasteiz Euskal Autonomia Erkidegoko hiriburua da, Araba probintziako hiriburua izateaz gain. Eusko Jaurlaritza eta gobernuaren egoitzak bertan aurkitzen dira. Gasteizen, 2016aren hasieran, 246.042 pertsona bizi ziren. Hiriak, bestalde, 276,34 km²ko azalera du. Ekonomiari dagokionean, biztanleko BPG 32.252,2 eurotan kokatzen zen 2012an; eta urte berean jarduera ekonomikoari dagokionez, industriak BEGaren %25,1 osatzen zuen eta zerbitzuek aldiz, %67,1.

a. Gasteizko eta Zaramagako datu demografikoak²⁶

Gasteizko demografia datuei buruz hitz egiteko, iturri bezala biztanleen udal errolda erabili da. Dokumentu honek 2015ean egondako demografi-mugimendu guztiak hartzen ditu kontutan; hemen agertzen diren datuak beraz, 2016ko hasierakoak dira.

²⁶ Gasteizko datu demografikoak Gasteizko 2016ko biztanleriari buruzko txostenetik lortu dira: <https://www.vitoria-gasteiz.org/wb021/http/contenidosEstaticos/adjuntos/eu/40/39/64039.pdf>

Iturri honen arabera Gasteizen, 2016ko urtarrilean, 246.042 pertsona bizi ziren. Hirian biztanleriak eduki duen bilakaerari begiratzen baldin badiogu 1997tik 2016ko tartean urteko bataz beste 0,7 hasi da biztanleria; 215.253 biztanle edukitzetik 246.042 biztanle izatera eduki arte hain zuzen. Biztanle hauetatik gehienek espainiar herritartasuna dute (%91,1) eta atzerritarren pisua hiriko biztanlerian %8,8koa da. Gasteizen bizi direnen %48,9 gizonezkoa da eta %51,1 emakumezkoa.

Adin taldeen arabera Gasteizko populazioa

Adin taldeak	Gizona	Emakumea	Guztira	Populazio osoan duten pisua
15 urte artekoak	19.800	18.518	38.318	% 15,57
16 urtetik 64ra bitartekoak	78.896	79.634	158.530	%64,43
65urte gorakoak	21.622	27.572	49.194	%19,99

Gasteizko Udala, 2016a

Taula honek Gasteizko hirian biztanleriaren adinaren gaineko profila ematen digu. Hala ere, gazteek populazioan duten pisuan sakonduko da ondoren; gure ikerketa objektua gazteak diren heinean. Jarraian beraz adin desberdinetako gazteek hiriko populazioan duten pisua ikusiko da:

19 urte azpikoen Gasteizko populazioa

Adin-taldeak	Gizona	Emakumea	Guztira	Populazio osoan duten pisua
5-9 urte	6.469	5.972	12.441	%5,05
10-14 urte	5.654	5.411	11.065	%4,5
15-19 urte	5.389	5.069	10.458	%4,25

Gasteizko Udala, 2016a

2016. urte hasiera honetan bestalde, Gasteizen bizi diren 0-15 urte bitarteko gazteen %5,3 atzerrian jaiotakoak direla esan behar da eta beste %6,44 espainiar estatuan. Datu hauekin beraz, Gasteizko gazteria gehiena bertan jaiotakoa dela ondorioztatu daiteke. Jarraian, Gasteizko Zaramaga auzoko demografia datuak emango dira gure ikerketa objektua hobetozehazten lagunduko digulakoan, Zaramaga pilota elkarte bertan dagoelako kokaturik.

Gasteizko udalerrria hiriguneak eta menpeko erakundeek osatzen dute, azken hauetan populazioaren pisua oso txikia izanik (%2); hiriguneak beraz, populazioaren pisu osoa hartzen du. Esan bezala, ikertuko den pilota elkarte Gasteizko Zaramaga auzoan dago non hirigunea osatzen duten auzo bat den. Bertan 11.885 biztanle bizi dira,

hirigunearen %4,9a eta bertako zazpigarren auzorik populatuena da. Espainiar Estatutik kanpo jaiotakoen kopurua %12,8koa da.

Mugimendu begetatiboari dagokionean (jaio eta hiltzen direnen arteko erlazioa alegia) Zaramangan saldoa negatiboa da (-70). Honek, beraz, auzoan bizi direnen profil bat egitea ahalbidetzen du, biztanle gazteen pisua txikia dela pentsaraziz. Adibidez, hiriguneko Salburua auzo gaztearekin alderatzen bada diferentzia esanguratsua da bertan 419ko saldo positiboa izan dutelako urte berean.

b. Gasteizko kirol instalazioak eta kirol elkarteak

Kirol instalazioei dagokionean, Gasteizek kirol aukera zabala du hirian zehar banaturik: kirol esparru, kiroldegi eta gizarte etxeetako kirol ekipamenduak aurkitzen dira bertan besteak beste. Kirol esparruei dagokionean hiru daude: Mendizorrotza, Gamarra eta Beti Jai. Kiroldegiak berriz aunitz dira, bederatzi egonik guztira (Aranalde, Abetxuko, Ariznabarra, Arriaga, Landatxo, Landazuri, San Andres, Mendizorrotza eta Olanabe) eta azkenik, gizarte etxeetako kirol ekipamenduak aurkitzen dira: Aldabe, Lakua, Ibaiondo, Judimendi, Hegoalde, Iparralde, Pilar eta Salburuan. Gasteizen frontoiak, igerilekuak, futbol zelaiak, kanpo pistak, areto futbola, eskubaloia pista eta beste instalazio batzuk (izotz pista, gimnasioak, atletismo pistak, tenis eta padel pistak....) aurki ditzakegu.

Jarraian, Gasteizko kirol elkarten bildumaren inguruan mintzatuko gara²⁷. Taula honetan kirol edo klubek praktikatzen duten kirol mota azalduko dugu eta, jarraian, zenbat talde dauden erregistraturik kirol hori praktikatzen dutenak edo praktikatu izan dutenak:

Gasteizko kirol espezialitatearen arabeko kirol elkarteak

Kirola	Elkarteak
Ur azpiko kirolak	13
Xakea	7
Atletismoa	13
Automobilismoa	13
Badminton	6
Saskibaloia	178
Eskubaloia	10

²⁷ Jaurilaritzak Kirol Elkarten erregistro bat du eta bertan begiratu da Gasteizko kirol taldeak zeintzuk diren jakiteko. Bertan agertutako datu guztiak jarri dira dokumentu honetan, baina baliteke datu hauetarikoz batzuk (klub batzuk) gaur egun ez egotea. Atal honetan beraz, gutxi gorabeherazko datuekin gabeztatu kontutuan eduki behar da. Hala ere, Gasteizen zein kirol praktikatzen diren ikusteko balio digu erregistroak.

Beisbol eta softball	7
Bolo jokoa	10
Boxeo	17
Ehiza	48
Txirrindularitza	63
Aireko kirolak	19
Kirol egokia -ez onartua-	2
Neguko kirolak	9
Eskrima	3
Uretako eskia eta manonautika	1
Futbola	545
Amerikar futbola	1
Gimnastika	19
Golfa	2
Hockeya	1
Halterofilia	5
Herri Kirolak	6
Hipika	4
Judoa	20
Karatea	29
Mendia	38
Borroka eta sanboa	5
Motoziklismoa	6
Igeriketa	11
Padel	6
Patinajea	13
Euskal Pilota	12
Arrantza	7
Petanka	5
Piraguismoa	2
Squasa	3
Surfa	2
Tenisa	4
Taekwondo	7
Mahai tenisa	7
Tiroa	7
Arku tiroa	4
Olinpiar tiroketa	17
Triatloia	13
Bela	1
Boleibola	11
Billarra	7

Eusko Jaurlaritza, 2004

c. Gasteizko nerabeen kirol praktiken datuak

2010-2012. urteen artean egindako Udalaren III. gazte plana txostenean Gasteizko hiritarrek duten kirol praktika zenbatekoa den agertzen da, adinaren arabera sailkatuta:

Adina	Adin horretako zenbatek praktikatzen duen kirola, ehunekoetan
14 urte edo gutxiago	%82
15-24 urte tartean	%66,8
25-44 urte tartean	%55,4
45-65 urte tartean	%41,5
65-75 urte tartean	%35,9
75 urtetik gorakoak	%9,6

Gasteizko Udala, 2010

Ikus daitekeen bezala, adinak gora egiten duen ahala kirolaren praktika murrizten doa. Gu 24 urtetik beherako adinean fijatuko gara gehien bat. Hamalau urtetik beherakoen artean ehuneko handi batek praktikatzen du kirola Gasteizen (%82), hurrengo adin taldean, ehunekoak jaitsi egiten diren arren nahiko altu mantentzen dira %66,8ra helduz. Gazte plana txostenean aipatzen denaren arabera, beherakada hau eskola eta ikastoletan ematen diren kirol jarduerak adin horretara heltzean amaitzen direlako gertatu daiteke.

Bestalde, generoari dagokionean (zoritxarrez gazteagoen datuak ez daude), 16-24 adin tartean, Gasteizen, mutilen %70,4ak praktikatzen duela kirol jardueraren bat; aldiz, adin tarte berean, nesken %46,3ak bakarrik egiten du kirola aisialdian. Atal honen hasieran esan bezala kirola praktikatzerako orduan generoak ekartzen duen desberdintasuna kontutan hartu behar dugu, ikusi den bezala aldeak esanguratsuak direlako Gasteizen ere.

d. Gasteizko kirol ekitaldiak

Ziur aski, Deportivo Alavés futbol eta Baskonia saskibaloit taldeek egiten dituztenak ekitaldiak dira Gasteizko kirol ekitaldi nagusienak. Deportivo Alavés SAD taldea XX. mende hasieran sortu zen eta 1921ean hartu zuen egungo izen ofiziala. Bere historian lehen mailan hamaika denboraldi egin ditu (aurreko denboraldian bigarren mailan zegoen eta aurten igo berri da lehen mailara berriz), hogeita hamabost denboraldi bigarren mailan, hamaika bigarren B mailan eta, azkenik, hogeita bi denboraldi hirugarren mailan. Nazioarteari begira UEFA txapelketako finalera heldu zen 2001ean eta txapelkunorde izan zen. Gasteiz mailan ez ezik, Araba mailako futbol talde garrantzitsuenak da Alaves.

Saski Baskonia S.A.D taldeak berriz, saskibaloian jolasten du eta oso ohikoa da Europa mailako txapelketan jokatzeko ikustea, Espainiako ACB ligan ere talde

garrantzitsua da. Taldearen sorrera 1959. urtean izan arren ez zen lehen mailara igo 1973 urte arte. Urteen poderioz gero eta talde indartsuagoa bilakatzen joan da. Espainiari begira, talde honek ACB liga hiru aldiz irabazi du eta Errege kopa berriz sei aldiz; Europan, bestalde, Europako kopa finalera hiru aldiz heldu zen baina finaletako bat irabazi du soilik. Honetaz gain, Final Four deiturikoetara (final aurrekoetara) lau aldiz gehiagotan heldu da.

Gasteizen, udalak kirol ekintza asko antolatzen ditu; honegatik, jarraian 2015eko Kultura, Hezkuntza eta Kirol sailak egindako memoriako datu batzuk aurkeztuko dira arlo honetan garatutako ekimenen mapa irudikatzeko asmoz (Gasteizko Udala, 2016b). Udalak 2015ean guztira 743 ikastaro egin zituen. Hauetan 20.431 plaza eskaini ziren eta %74 bete ziren. Guk ikertu behar dugun adin taldera joaz eskolatik kanpo antolatutako gazteentzako kirol ekintzei jarriko zaie fokua jarraian.

Aipatutako txostenaren arabera 8-16 urte bitarteko gazteei begira udalak 81 kurtso eskaini zituen, denera 845 plaza. Leku guzti hauetatik %91,47 bete ziren (773) eta hauetan %50,1 neskek bete zituzten eta beste %49 berriz, mutilek. Egin ziren jarduerak honakoak izan ziren: arte martzialak, badminton, esgrima, igeriketa estiloak, padela, izotz patinajea, squash-a eta tenisa. Aipaturiko kirol jarduera hauek eskola orduetatik kanpokoak ziren, baina eskola orduetan kirol hastapena ere bultzatu du udalak ikastaro desberdinen bitartez.

Bestalde, Gasteizko Udalaren kirol instalazio desberdinetan 5-15 urte bitarteko 17.149 pertsona ziren bazkide 2015ean, bazkide kopuru guztiaren %19. Bazkide gazte hauetako 8.379 mutilak ziren eta 8.060 neskak; %48,9 eta %47 hurrenez hurren.

e. Gasteizko datu soziolinguistikoak²⁸

Azpi-atal honetan Gasteizko euskara datuak zeintzuk diren azalduko dira. Aipatuko den informazioa 2011ko datuak dira, garai honetan Gasteizko biztanleria (2 urtetik gorakoak) 232.827 pertsonakoa izanik. Datuon arabera, urte horretan Gasteizko %22,5 euskalduna zen, %26,1 euskaldun hartzailea (ia eskaldunak) eta azkenik %51,4 ez

²⁸ Gasteizko euskara datuak "Euskara biziberritzeko plan nagusia-Gasteiz- 2013-2017" dokumentutik lortu dira: <http://www.vitoria-gasteiz.org/wb021/http/contenidosEstaticos/adjuntos/eu/07/37/60737.pdf>

euskalduna. 1986tik 2011kara bitartean ez euskaldunen kopurua gutxitzen doa %77tik aipatutako %51,4 kokatzeraino.

Datu hauek hala ere, biztanleren adinarekin alderatu behar dira diferentzia nabarmenak ematen direlako. Euskararen ezagutza mailak gora egiten baitu adinean behera joanez. Adibidez, 2011kan 40-44 urte tartean ez euskaldunak %51,69 dira, euskaldun hartzaille eta euskaldunak beste %48,3 izanik. Adin tarte honetatik adinean gora egiten baldin badugu ez euskaldunen kopurua igotzen da (45-49 urte tartean %60,13, 55-59 urte tartean %75,91) amaierako 75+ adin tarteko ez euskaldunen %88,27ra heldu arte.

Gazteen artean aldiz, joera alderantzizkoa da. Horrela, 2011an 25-29 urte tartean euskaldunak %29,46 dira eta euskaldun hartzailleak berriz %35,62. Adinean behera egiten baldin bada (15-19 urte bitartean) euskaldunak %57,36 dira eta euskaldun hartzailleak %24,12; 10-14 urte bitartean euskaldunak %72,59 eta euskaldun hartzailleak %21,49. Azkenik, 2-4 urte bitartean %51,96a euskalduna da eta %37,81a euskaldun hartzaillea. Gasteizen, beraz, hizkuntza gaitasunean desberdintasun handiak topatzen dira adinaren arabera.

Hizkuntzen kale erabilera

Gasteizen 2011an euskararen kale erabilera %3,1ekoa zen, hala ere, honen bilakaerari erreparatuta 1983. urtetik hona igoera eman dela ikus daiteke, 2006an bere punturik altuena (%4) eman zuen arte. Nabarmenezkoa da Gasteizen 2011an euskara eta gaztelania ez diren beste hizkuntzen erabilera (%4,7) euskararena baino handiagoa zela (%3,1). Haur eta gazteen artean euskarazko kale erabilera zertxobait altuagoa da: haurren artean %5,3 eta gazteen artean %5,2.

Adin desberdinetako batz bestekoa egitean emakumeen %4,2ak kale erabileran euskara erabiltzen duela ikus daiteke, gizonetan aldiz, %3,7ak. Haurren artean nesken %6,1ak erabiltzen du eta mutiletan berriz %5,4ak. Gazteetan berriz, aldea nabarmenagoa egiten da nesken artean %7,1ak erabiliz euskara eta mutilen artean %5,2ak. Heldu eta adinekoen artean genero eta euskararen erabileraren gaineko aldeak egon eta mantendu egiten diren arren, ez dira gazteenak bezain esanguratsuak.

Etxeko hizkuntza

Gasteizko herritarren %90,48k etxean gaztelania erabiltzen du. Euskaraz bakarrik %2,75ak hitz egiten du eta euskara zein gaztelera erabiltzen dutenen kopurua %3,56koa da. Bilakaerari erreparatuta gorakada eman da etxean euskara bakarrik eta euskara eta gaztelania erabiltzen dutenen artean: %4,3tik %6,3ra pasa da hurrenez hurren bi hauen batuketa.

Honi loturik adinak garrantzia du, Araban 2-4 urte bitarteko umeen artean %21ak baitu euskara -gaztelaniarekin batera- lehen hizkuntza. 5-9 urte bitartean aldiz, %19,6ra jaisten da kopurua. Datu hau Arabakoa izan arren, Gasteizen emango den fenomenoak izango da baita ere, beraz, hiriburuaren egoerara gerturatzeko baliagarria delakoan gaude.

Euskara, aisialdia eta kirolak

Jarraian emango diren datuak Gasteizko hirian orokorrean dauden datuak dira; hau da, ez daude haurren aisialdira begira soilik. Datuen arabera, 500 kirol jarduera eskaini dira urte honetan Gasteizen eta hauetan 87.000 izen-emate eta 5.000 talde osatu dira. Ekintza hauetako %21 euskara hutsean edota elebitan izan dira. Aipatu behar da 2006tik aurrera azken zifra hau ehuneko horren inguruan mugitu izan dela (2006an %22,6, 2008an %24,1, adibidez).

2016ko udan, Gasteizen, Caja Vital-en fundazioaren eskutik, “Kirola euskaraz” deituriko ekimena jarri dute martxan. *Bere helburuetariko bat “euskaraz jolastuz eta kirola eginez ondo pasatzea da”*. Bertan, 2008-2012 urteen artean jaiotako umeek hartu dute parte; hau da, egun lau urtetik zortzi urte bitartera dituzten neska-mutikoak hain zuzen. Bere helburuak batetik, haurrek aisialdian euskara erabiltzeko aukera izatea da, euskaren “gaitasuna garatzea; eta bestetik, kirol jarduera beraien artean zabaltzea. Bost astetan banatu zuten ekimena, bost “ikastaro” (beraiek dioten moduan) desberdinetan, honetaz gain, ekimena goizez dela bakarrik esatea garrantzitsua da.

Bestalde, Gasteizko udalak, 2008-2009 ikasturtearen hasieran OKE deituriko ekimena martxan jarri zuen, kirol arloan euskara bultzatzeko asmoz. OKEk, Ostiraletan Kirola

Euskaraz esan nahi du eta, izenak adierazten zuen moduan, ostiralero egiten ziren kirol ekintza batzuk euskaraz gauzatzea aurreikusten zen.

Denboran atzerago eginez, kirola eta euskara lotzen duen beste ekimen bat topatuko dugu. Ekimen honen aurkezpen eta gauzatzea 2006ko abenduan izan zen eta egitasmoaren izena “Kirol kanpusak euskaraz” zen. Eusko Jaurlaritzak diseinatutako proiektua zen eta Gasteizez gain, Derio eta Irunen ere martxan jarri zen. Ekimenaren helburu nagusia umeez aisialdiko kirola euskaraz bizitzea zen. Guztira, zortzi eta hamaika urte arteko 200 umek hartu zuten parte Gasteizen, eta orduko TAU-Cerámica Baskoniaren laguntza izan zuten ekimen honetarako.

f. Zaramaga Pilota Elkarteak

Ikerketa honetan aztertu dugun pilota elkarteak “Zaramaga pilota elkarteak” du izena eta euren web orrian dioten bezala “esku-pilota sustatzea helburutzat duen Gasteizko pilota elkarte bat gara”. Klubaren helburuetan, beraz, hezkuntzak garrantzi handia du; giza baloreak nahi zaizkielako kirolariei transmititu, esku-pilota erakustez gain. Kluba auzokideek sortu zuten, 1974ko martxoaren 10ean. Hasiera baten, bi pilota modalitate egiten ziren: eskuzkoa eta pala. Egun, palako modalitatea ez dute lantzen. Bestalde, garai hartan erabiltzen zuten frontoia ez zen gaur egungoa, “Fronton Vitoriano” deiturikoa baizik.

Elkartearen lehendakaritza lau lehendakari egon dira: Agustin Perez Medina (lehen lehendakaria), Rafael Fernandez, Gerardo Bengoa eta azkenik, 2010az geroztik, Jokin Larrañaga. Elkarte hau sortu zenetik pilotari asko pasa izan dira eta bertan hezitako batzuk lortu izan dute sona. Honek, Zaramaga pilota elkarteari prestigioa eman dio, bai herrialdeko mugen barruan eta hauek kanpo ere.

Esan bezala Zaramagak Pilota Elkarteak Gasteizen aurkitzen da, Zaramaga auzoan. Frontoia 35 metrokoa da, zabalera 8 metrokoa du eta altuerak 12. Pilotalekuak bestalde 500 harmaila ditu.

Guztira zortzi talde daude: prebenjaminak, benjaminak, alebinak 1, alebinak 2, infantilak, kadeteak, jubenilak, 22 urte azpikoak eta seniorrak. Egun, guztien artean

ehun pilotari baino gehiago ditu talde honek federaturik. Eskola adinekoak honela banaturik daude:

Zaramaga Pilota Elkarteko eskola adineko pilotariak

Kadete eskolarrak	Infantilak	Alebinak	Benjaminak	Pre-benjaminak
4	17	7	10	7

2.10.2. Getxo

Getxo Bizkaian dagoen udalerria da, Bilbotik hurbil dago eta 77.759 biztanle zituen 2016an. Jarduera ekonomikoari dagokionean, industriak bere BEGaren %4,2 osatzen zuen 2012an eta zerbitzuek aldiz, %88,9a. Udalerriaren azalera 1.184km²-koa da. Historikoki herri garrantzitsua izan da XX.mende hasieran Bilboko aristokrazia eta goi-burgesiaren bizigune bilakatu zelako, honen eraginez luxuxko etxe asko aurkitzen dira hiri honetan.

a. Getxoko datu demografikoak²⁹

Eustaten 2016ko datuak erabiliko dira jarraian Getxoko datu demografikoen inguruan hitz egiteko. Getxoko hirian 2016. urte hasieran 77.759 biztanle zeuden, non horietatik 36.412 (%46,83) gizonezkoak ziren eta 41.347 (%53,17) emakumezkoak. Getxoko hirian biztanleriaren %6,4 Espainiar Estatutik kanpo jaioak dira.

Adinaren arabera populazioa Getxon (ehunekoetan)

0-19 urte	20-64 urte	65+ urte
%17,3	%59,9	%22,7

Eustat

Azken urteetako joera beherakorra da, hau da, Getxoko biztanle kopurua gutxitzen ari da. 2002. urtean jo zuen goia hiriak 84.024 biztanlerekin, hala ere, urte horretatik aurrera urtero-urtero biztanleria galtzen joan da. 2004. urtean 83.004 biztanle zituen, 2009. urtean 80.277, 2013an 79.839 eta azkenik hasieran aipatutako 2016. urteko 77.759ko biztanle kopurura heldu arte.

²⁹ Getxoko datu demografikoak Eustaten "Bizkaiko biztanleria barruti eta zentsu-sekzioen arabera, sexuaren, adin-taldean eta naziotasunaren arabera" dokumentutik jaso dira: http://eu.eustat.eus/elementos/ele0011400/ti_Bizkaiko_biztanleria_barruti_eta_zentsu-sekzioen_arabera_sexuaren_adin-taldean_eta_naziotasunaren_arabera/tbl0011435_e.html#axzz4PhVaSfqM

Getxo udalerri bat izan arren honek hiru auzo ofizial dituela esan behar da: Andra Mari, Algorta eta Areeta/Las Arenas. Bestalde, badaude beste bi auzo, ofizialak ez diren arren, ezagunak direnak herritarren artean: Neguri eta Romo. Guk, hala ere, ofizialen inguruko datuak erakutsiko ditugu jarraian agertzen den taula baten bitartez:

Getxoko datu demografikoak auzoka

	Biztanleak	Gizonak	Emakum.	Adinaren arabera populazioa		
				0-19 urte	20-64 urte	65+ urte
Andra Mari	13.694	6.572	7.122	%18,3	%61,9	%19,8
Areeta	26.167	12.085	14.082	%16,1	%58,1	%25,8
Algorta	37.898	17.755	20.143	%17,8	%60,5	%21,7

Eustat

b. Getxoko kirol elkarte eta instalazioak

Getxon kirol elkarte ugari ditugu. Ez hori bakarrik, kopuruz asko izateaz gain, lantzen dituzten kirol aniztasuna dagoela esan daiteke. Jarraian klub hauek garatzen dituzten espezialitateak zeintzuk diren aurkeztuko ditugu:

Kirola	Elkarteak
Paddel surf	1
Boxeo	1
Hockeya	1
Mendi irteerak	9
Golfa	1
Saskibaloia	3
Txirrindularitza	4
Herri kirolak	2
Beisbola	2
Triatloia	2
Bela	4
Multikirolak	3
Gimnasia erritmikoa	2
Ur kirolak	1
Futbola	1
Areto futbola	1
Arku tiroa	5
Eskubaloia	1
Xakea	1
Esku pilota	1
Boleibola	1
Irristaketa artistikoa	1
Skate	1
Atletismoa	2

Errugbia	1
Aireko kirolak	1
Motoziklismoa	1
Aeromodelismoa	1
Elbarrientzako kirol ekintzak	1
Nabigazioa	1
Igeriketa eta Waterpoloa	1
Arrantza	1
Kayaka	1
Surfa	1
Arrauna	2
Urpeko kirolak	1
Kirol anitzeko klub pribatua	1
Hipika	1
Neguko kirolak	2
Tenis	2
Padela	2

Getxon hiru instalazio nagusi daude: Fadura, Gobela eta Andra Mari. Fadurako kirol-hiria Algortako auzoan dago eta 360.000 metro karratu eta 600 aparkaleku ditu. Hau, bestalde, lau zona handitan dago banatuta: atletismoko zona, frontoien eraikina, igerilekuen eraikina eta Boluetako futbol zelaiak.

Atletismoko zonak, besteak beste, atletismoko pista bat du, belodromo eta errugbi zelai bat, belar artifizialeko hockey zelaia, belar artifizialeko kirol anitzeko zelaia, estali gabeko teniseko zortzi pista eta sei pista estali, padeleko estali gabeko zazpi pista... Frontoien eraikinean bi frontoi luze aurkitzen dira, esku-pilotarako frontoi bat, trinketea, estalitako lau padeleko pista eta erabilera anitzeko hiru gimnasio daude.

Igerilekuen eraikinean, estalitako bi igerileku daude, haurrentzako kanpoko bi igerileku, teilatu bilkorra duen igerileku olinpiko mistoa, estalitako kirol anitzeko pista bat, osasun zerbitzua eta fitness-muskulazio gela bat besteak beste. Azkenik, Boluetako futbol zelaietan belar artifizialeko hiru futbol zelai daude.

Gobelan kiroldegi bat dago eta hau Erromo auzoan dago. Honek, futbol artifizialeko zelai bat dauka, estalitako kirol anitzeko pista bat (eskubaloia, saskibaloia...), erabilera anitzeko bost pista (spinning, aerobic...), fitness-muskulaziorako gela bat, estali gabeko teniseko bi pista, estali gabeko padeleko bi pista eta estalitako hiru igerileku.

Andra Mariko kiroldegia Getxoko Santa Maria auzoan dago. Instalazio hau, hala ere, ez dago bideraturik herritarren kirol ekintzetarako, baizik eta egon daitezkeen ospakizunetarako. Hala ere, frontoi labur batez dago ekipaturik.

c. Getxoko kirol ekitaldiak

Getxoko hirian besteak beste ikastetxe desberdinek, kirol elkarte eta Getxo Kirolak erakunde publikoak antolatzen dituzte kirol ekintzak. Hau jakinik, Getxo Kirolak-en jarri da fokua: “Getxo Kirolak udal-kiroldegiak eta amateur eskola nahiz federatu mailako kiroletan gauzatzen diren jarduerak kudeatzen dituen Getxoko Udaleko erakundea da”. Bi helburu ditu erakunde honek: bata, jendeak erraztasunak izatea kirola egiteko eta bestea, hiriko kirol instalazio eta kirol izaera desberdinak dituzten beharrei erantzutea.

Getxori dagokionean, beraz, erakunde hau da hirian kirol ekintza gehienetarikoa antolatzen dituen erakundea. Adibidez, 2014ko datuak hartzen baditugu, erakunde honek 264 kirol ekitaldi antolatu zituen Getxon eta haietako 73 (%27,6) gazteei zuzenduta zeuden.

d. Getxoko datu soziolinguistikoak³⁰

Hizkuntz gaitasunari dagokionean 2006an, Eustat-en arabera, Getxoko biztanleriaren %29 elebiduna zen, %27 ia euskalduna eta aldiz, % 44a erdalduna. Kontutan eduki behar da urte honetan Getxoren biztanleria egungoa baino handiagoa zela, 82.327 biztanle edukiz. Datu hauekin, beraz, hamarretik hiru euskalduna dela esan daiteke.

Hizkuntz gaitasunaren bilakaeran jartzen badugu fokua, hizkuntzari dagokionean, hirian aldaketa nabarmenak egon direla ikusi daiteke; 1981. urtean %9,9 elebiduna zen adibidez. Erdaldun elebakarren kopurua jaitsiz joan da 1981eko %66,88tik 2006ko %43,6ra. Tartean, ia euskaldunen kopurua, 1981ean %23,21ean kokatzen zen.

³⁰ Getxoko euskera datuak “Getxon euskarak badu etorkizunik III” dokumentutik jaso dira: http://www.getxo.eus/DocsPublic/euskara/EUSK_behin_betikoa.pdf

Portzentai honek igoera nabarmena eduki zuen 2001ean %31,5koa zen; hala ere, 2006an behera egin du jada aipatutako %27,4ean kokatuz.

Bilakaera honetan, hala ere, adinaren arabera ezberdintasun asko agertzen dira. Adibidez, 65 urtetik gorako adin taldea 1981ean elebidun kopuru gehiena izatetik, ia gutxien izatera pasa da (%20tik -%13ra). Bestalde, elebidun kopuruaren gorakadarik handiena gazteen artean eman dela esan behar da, hain zuzen, 44 urte azpitik dauden artean. 1981ean 2 urtetatik 44 urte bitarteko jendearen %7a zen soilik elebiduna, batz besteko bat egiten badugu. 2006an aldiz, 2-14 urte bitartekoen %57 elebiduna da, 15-24 urte bitarteko %58, 25-34 urte bitarteko %36 eta, azkenik, 35-44 urte bitartekoen %23. Adinaren arabera aldeak handiak dira beraz hizkuntz gaitasunari dagokionean.

Etxeko hizkuntza

Jasotako datuen arabera, Getxoko etxeetan 2006an erabiltzen den hizkuntza nagusia gaztelera da %89,9ko datuarekin; euskara, berriz, %3,6k erabiltzen du eta biak %5,3k. Aipatu behar da baita ere %1,7k gaztelania eta euskaratik at, beste hizkuntza bat erabiltzen duela. Etxeko euskararen erabilerak, hala ere, goranzko apala izan du bilakaerari begiratuz gero: 1991. urtean %2,18koa baitzen erabilera eta egun, esandako %3,6.

Hizkuntzen kale erabilera

Hizkuntzaren kale erabilerari dagokionean, euskararen erabilerak gora egin duela esan behar da, aurreko urteekin alderatzen baldin bada. 2010ean euskararen presentzia kalean %9,2koa da eta gaztelaniarena, berriz, %90,8koa. 1994.urtean, euskararen erabilera kalean %2,8koa zen (gaztelaniarena %97,2 izanik), beraz, euskararen erabilerak gora egin duela esan daiteke, %4,4 puntu hain zuzen.

Adinari begiratzen badiogu kale erabileran, haurren artean %15,6ko euskararen erabilera daukagu, gazteen artean %7,8koa helduen artean %9koa eta adinekoen artean %2,3koa. Datu hauekin esan daiteke euskararen erabileran aldeak nabarmenak

direla adinaren arabera baita ere. Datuen arabera euskararen erabilerak haurren presentzian gora egiten du, erabilera %16an kokatuz. Orokorrean, kalean, egon daitekeen euskararen %9,2ko erabileratik %16ra igotzen da berau. Honek esan nahi du, umeen presentzian areagotu egiten dela euskararen erabilera.

e. Euskara eta kirola lotzeko ekimenak

Getxo Kirolak-ek kirol elkarteei umeentzako entrenamenduak euskaraz ematearren diru laguntzak banatzen ditu; hala ere, kirolaren arloan laguntza gehiago ematen dira euskarari begira. Euskara zerbitzuak adibidez, eskolaz kanpoko jardueretan (denak ez daude kirolari lotuta baina batzuk bai) euskara sustatzeko diru laguntzak ematen ditu.

Bestalde, Getxoko kirol zerbitzuak euskara plan bat du eta honek, kirol ekitaldietan eta hauen inguruan sor daitezkeen esparrutan (monitoreen jarduna, kontratazioa, irakasleen eskaintza...) euskarak ardatz batzuk bete behar dituela dio. Honen barruan, “BIZI bidea” egitasmoa dago non bere helburua gazte eta umeen kirol eskaintza osoa euskaraz izatea den; hau da, kirol esparrutan komunikazioa euskaraz izatea proposatzen da, lehen aukera bezala beti euskara jarritz. Norbaitek arazoak baldin baditu euskara ulertzeko arreta berezia eskainiko zaio.

“Bizarra lepoan” euskara elkarteak hitzarmena du udalarekin eta honek hiriko kirolaren euskalduntzearen jarraipen bat egiten du. Baita ere, ikastetxeen kirol jarduera dezente, euskaraz izaten dira. Honetaz gain, udan begirale izango direnei euskara prestakuntza saioak eskaintzen zaizkie. Aipatu behar da batzuetan Alkarbide Bizkaiko Euskara Zerbitzuaren laguntza izaten dutela ekimenak prestatzerako orduan. Hauen artean kirola eta euskara uztartzeko egindako ekimen bat aipatu daiteke: “Pasa baloia euskarari!”. Programa honek euskararen erabilpena sustatzea zuen helburu Getxoko saskibaloia taldeetan.

Bestalde, Getxoko udalak “Gehitu kirola” deituriko hitzarmen-plana du kirolean euskararen erabilera sustatzeko. Jasotako informazioaren arabera, 2014an, Getxoko 39 elkartek hitzarmena sinatuta zuten eta hauetatik 33 elkartek ume eta gazteekin parte hartu zuten. Ekimen honetan, beraz, 8 urtetik 20 urterako tartean zeuden 946 ume eta gazteri ematen zitzaien euskaraz entrenamendua. Urte hartan entrenatzaile eta begiraleen %75,5 euskalduna zen. Kirol hezitzaile hauei gazteen hizkuntza-praktikei

buruz galdetuta hauek izan ziren jasotako emaitzak: dena edo gehiena euskaraz %25,9k egiten zuen eta ele bietara %29,6k. Gazteleraz gehiena %22,2k eta, ez daki-ez du erantzuten, beste %22,2k.

f. Aixerrota Boleibol Taldea

Aixerrota boleibol taldea 1999ko azaroan sortu zen, izen bereko ikastetxeko irakasle batzuen eskutik. Taldeko entrenatzaile batzuk eskolako irakasleak dira, heziketa fisikoko irakasleak hain zuzen. Egun, elkarte honek sei talde ditu: umetxoak, umeak, infantilak, kadeteak, jubenilak eta seniorrak. Jarraian agertzen den taulan talde bakoitzaren jokalaria kopurua ikus daiteke, genero aldagaia tartean dagoelarik:

Aixerrota taldeko jokalaria kopurua

	Jaiotza data	Jokalaria	Neskak	Mutilak
Umetxoak	2007-08	16	14	2
Umeak	2005-06	20	15	5
Infantilak	2003-04	26	26	0
Kadeteak	2001-02	24	23	1
Jubenilak	1998-99-00	14	14	0
Seniorrak	1997tik aurrera	14	11	3

Elkartearen sorrera eskolarekin loturik dagoen heinean, bertako jokalaria gehienak Aixerrota ikastetxekoak dira. Amaitzeko, esan behar da senior mailako taldeak egun bigarren mailan jokatzen duela, beraz, kirol maila altuko taldea dugu.

2.10.3. Zarautz

Zarautz Gipuzkoako kostaldeko udalerri bat da eta Aia, Aizarnazabal, Getaria, Orio eta Zumaia udalerriekin batera Urola Kosta eskualdea osatzen du. Industria (BEGaren %13,8a) eta zerbitzuak (BEGaren %78,4a) dira Zarauzko jardura ekonomiko nagusienak. Esan daiteke turismoa dela udalerri honen oinarri ekonomikoa: Euskal Herriko gune turistiko garrantzitsuenetariko bat da eta uda iristean, bertako populazioa bikoiztu egiten da.

a. Zarauzko datu demografikoak

Urola Kosta eskualdeko herririk populatuena da eta Gipuzkoako bostgarrena: 23.040 biztanle zituen 2016ko hasieran. Zarautzen biztanleen %18,2 dira EAetik kanpo jaiotakoak (Estatu Espainiarretik at jaio direnak %7,68). Haur, nerabe eta gazteen

populazioari erreparatuta, Zarautzen 4.670 biztanle dira 19 urte baino gutxiago dituztenak (%20,27)³¹.

b. Zarauzko datu soziolinguistikoak

Hizkuntzari dagokionez, Eustat-ek emandako datuen arabera Zarautzarren hizkuntza-gaitasun datuak hauek dira ³²: *euskaldunak* (%70), *ia euskaldunak* (%17) eta *erdaldunak* (%13). Gure ikerketa nerabeen kirol praktiken ingurukoa denez, adinaren arabera gaitasunaren datuak aurkeztea interesgarria dela uste dugu:

Euskara gaitasunaren datuak Zarautzen

	<i>euskaldunak</i>	<i>Ia euskaldunak</i>	<i>erdaldunak</i>
2-14 urte	89,7	7,7	2,6
15-34 urte	77,7	10,5	11,8
35-64 urte	62,2	24,3	13,5
>64 urte	63,1	14,6	22,4

Eustat

Hau da, ia zarautzar nerabe guztiek euskaraz aritzeko gaitasuna badute. Izan ere, Eustatek 2012-2013 ikasturterako emandako datuen arabera Zarauzko ikasleen gehiengo zabal batek D ereduan ikasten du (%88,9). A ereduan %9,6k ikasten du eta B ereduan matrikulatutakoak %1,5 dira. Etxeko hizkuntzari dagokionez Eustat-en 2011ko datuen arabera Zarautzen %40,2 da euskaraz soilik hitz egiten diren etxeen kopurua; % 42,4an gaztelaniaz egiten da eta %15,4ean bietan.

Hizkuntzen kale erabilera

Kale erabilerari dagokionez 2011an egindako Hizkuntza Erabileraren Kale Neurketak ³³ euskararen erabileraren datu zehatzak eskaintzen digu. Urte hartan neurtutakoaren arabera Zarauzko kaleetan euskararen eta erdararen erabilera parez pare dagoela esan daiteke: euskararen erabilera %50 da, gaztelaniaren erabilera %48,5 eta beste hizkuntzen erabilera %1,5). Adinez, haurrak eta gazteak direla euskara gehien erabiltzen dutenak:

³¹ Biztanleen Udal-Erroldaren Estatistika (BUEE) 2016ko urtarrilaren 1ean. Eustat Euskal Estatistika Erakundeak emandako datuak: http://eu.eustat.eus/municipal/datos_estadisticos/info_territorial_e.html

³² 2011 urteko datuak, Eustat Euskal Estatistika Erakundeak emandakak: http://eu.eustat.eus/municipal/datos_estadisticos/info_territorial_e.html

³³ Soziolinguistika Klusterraren EDB datu basea: <http://www.soziolinguistika.eus/edb/index.php?erakus=aurkezpena>.

Kale erabilera Zarautzen

Haurrak 2-14 urte	68,5
Gazteak 15-24 urte	53,5
Helduak 26-63 urte	41,8
Nagusiak >64 urte	37,9

Soziolinguistika Klusterra

c. Zarauzko kirol elkarteak eta instalazioak

Kirola garrantzizko jarduera da Zarautzen, herriko kirol elkarten aniztasuna eta hauetan mugitzen den herritar kopurua handia baita. Aurrerago ikusiko dugun bezala, Zarautz Kirol Elkarteak biltzen ditu herriko kirol espezialitate gehien, baina badira beste kirol talde ugari ere. 2010ean Kirolbegi³⁴ egindako ikerketaren arabera, Zarautzen 29 kirol modalitate praktikatzen dira³⁵. Hauek dira 50 lizentzia baino gehiago dituzten kirolak:

Zarauzko kirol taldeen lizentzien kopurua

Kirola	Gizonak	Emakumeak	Guztira
Golf	522	308	830
Mendia eta eskalada	143	256	399
Eskubaloia	111	102	213
Futbola	168	43	211
Ehiza	193	0	193
Surf	103	20	123
Saskibaloia	90	32	122
Txirrindularitza	103	0	103
Rugby	88	0	88
Triatlhoia	57	17	74
Arraunketa	55	6	61
Judo	40	13	53
Xake	51	1	52
Igeriketa	35	16	51
Atletismoa	34	16	50

Kirolbegi

Ikusten den bezala, eskubaloia hirugarren kirol espezialitatea da, futbolen gainetik. Datu oso esanguratsua da, ikerketa honetarako aukeratutako kirol honek Zarautzen duen garrantzia adierazten diguna.

³⁴ Kirolbegi- argitaratutako datuak: <http://info.kirolbegi.net/federado/municipio/82>

³⁵ Lizentzia dituzten kirolarien inguruko datuak dira. Federatu gabe kirola egiten dituzten pertsona kopurua handiagoa izango da.

Aipagarriak dira itsasoarekin lotutako kirolak. Surfa izango da, ziur aski, herritik kanpo Zarautzi sona handiena ematen dion kirola. Bertako hondartza surf egiteko toki egokia denez, herriko surflari asko mundu mailako lehiaketetan aritu izan dira. Gainera, urtero Munduko Surf Txapelketarako puntuagarria den lehiaketa jokatu ohi da Zarautzen. Arraunketak, ordea, ez du horrenbesteko tradizio kostaldeko herri honetan. 1983an sortu zen Zarauzko Arraun Elkarte eta 2003tik aurrera lortu izan ditu gizonezko arraunketan emaitzarik hoberenak. Emakumezko taldea 2013an sortu zen eta azken urteetan Getariako Arraun Elkartearekin batera aritzen dira. Horretaz gain, oso adierazgarria da golfak duen presentzia. 1916an sortutako Iñurritza biotopo babestuaren alboan dagoen Golf Zelaiak kirol honen zale asko erakartzen ditu, bertakoak eta herritik kanpokoak ere. Goiko taulan ikusi dugun bezala kirol honek duen lizentzia kopurua oso handia da: 830 lizentzia. Zarautzen guztira 30 klub daude eta guztien artean (aipatu dugun Golf Zarautz kluba kontutan hartu gabe) Zarautz Kirol Elkarte da garrantzitsuena. Klub honek 11 kirol espezialitate ezberdin jorratzen ditu eta guztira 600dik gora lizentzia kudeatzen ditu.

Kirol instalazioei dagokionez hiru dira aipagarrienak. Batetik, herriko kanpoaldean dagoen Asti udal instalazioak ditugu. Kirolgune honek bi futbol zelai eta errugbi zelai bat ditu eta bertan Zarautz Kirol Elkarteko Futbol eta Errugbi Taldeak eta Antoniano Futbol Taldeak jokatzen dute. Bestetik, 1981ean eraiki zen Aritzbataldeko udal kiroldegia dago. Hainbat handitze prozesuak izan ditu eta gaur egun ekipamendu hauek ditu: hiru igerileku, gimnasioak, pilotalekua, eskubaloï kantxa eta saunak. Azkenik, Antoniano ikastetxeko kiroldegia dugu, erabilera anitzeko bi kantxa eta pilotaleku bat ditu.

d. Zarautz Kirol Elkarte

Zarautz Klub Elkarte Eskubaloia izeneko eskubaloï-taldea Zarautz Kirol Elkarte-ren (ZKE) atal bat da. Kirol Elarte honek historia luzea du eta bere baitan hainbat kirol batzen ditu. Kluba 1944an sortu zen, Zarautzen ahalik eta kirol-espezialitate gehien sustatzeko asmoz. Lehen urte haietan futbola, pilota, atletismoa eta xake taldeak osatu zituzten eta 1965ean saskibaloia eta eskubaloï sailak sortu ziren. Gaur egun kirol-sail hauek osatzen dute ZKE: Xakea, Atletismoa, Eskubaloia, Saskibaloia, Futbola, Halterofilia, Pilota, Errugbia, Areto Futbola, Squash eta Herri Kirolak. Guztira, egun

ZKE-k 1255 bazkide ditu eta aurreko denboraldian 1796 kirolari aritu ziren bertako taldeetan.

ZKE Eskubaloia

XX. mendeko 40ko hamarkadan Zarauzko lehen eskubaloia taldeak osatu baziren ere, ez zuten jarraipenik izan. Baina 1965ean ZKEren barruan eskubaloia atala sortu zen. Hasiera batean mutil helduen taldeak eratu ziren, baina 1972tik aurrera eskolarteko txapelketak antolatzen hasi ziren gaztetxoaren artean kirol hau sustatzeko asmoz, eta 1976an nesken lehenengo txapelketa antolatu zen. Urte guzti hauetan ZKE Eskubaloia oso talde sendoa bihurtu da, eskubaloia herriko kirol garrantzitsuenetakoa bilakatuz. Urtero kategoria guztietan osatzen dituzte taldeak eta Zarauzko espezialitate artean talde gehien osatzen duen kirola da: kategoria ezberdinetako 28 talde baititu eta Gipuzkoa mailan, eskubaloia talde gehien dituen udalerria da: 14 gizonezkoenak eta 14 emakumezkoenak, guztira, aurreko denboraldian 556 eskubaloia jokalarik federatuekin. Senior taldeek goi mailako txapelketetan aritzen dira. 2016-2017 denboraldian emakumezkoen senior talde nagusiak, Aiala Zarautz izenekoa, eta gizonezko senior talde nagusia, Amenabar Zarautz izenekoa, Espainiako Zilarrezko Ohorezko Eskubaloia Txapelketan jokatzeko dute (Estatu Espainiarrean bigarren txapelketa garrantzitsuenak).

2.10.4. Gipuzkoa eta Donostia

Zalantzarik gabe futbola da egungo Hego Euskal Herriko kirol adierazpenik esanguratsuenak. Herri eta hiri gehienetan futbol taldeak daude eta haur eta gazteen artean aisialdiko praktika nagusienetakoa izateaz gain, helduen artean ere gehien jarraitzen den kirol jardura da. Horrek mundu mailan futbola duen garrantziarekin bat egiten du. Izan ere, egun futbola da kirolik zabalduena, praktikatuena eta jarraitzaile gehien duena. Gipuzkoan ere futbola da jende gehiena mugiarazten duen kirola. Horregatik, Real Sociedad taldea testuinguratzeko Donostiako eta Gipuzkoako futbolari erreparatzea hautatu dugu, lurraldean praktikatzeko eta jarraitzen diren gainontzeko kirol aniztasunari aipamenik egin gabe.

a. Donostia eta Gipuzkoako datu demografikoak

Real Sociedad taldean aritzen diren jokalariek, entrenatzaileak eta gainontzeko langileak Gipuzkoa osokoak dira. Donostian kokatutako taldea izan arren, esan daiteke Gipuzkoa ordezkatzeko duen kirol talde nagusia dela. Horrek ez du esan nahi bertan

aritzen diren guztiak gipuzkoarrak direnik, baina ikerketa honetan kontutan hartuko ditugun gazteen mailetan oso gutxi dira inguruko lurraldetako jokalaria (Errioxa, Araba, Lapurdi...). Gipuzkoak 710.699 biztanle zituen 2016ko hasieran³⁶. Gipuzkoako ekonomian bigarren sektoreak du garrantzirik handiena baina hirugarren sektorearen garrantzia handitzen ari da eta horren barruan turismoak gero eta indar handiagoa du. Donostia Gipuzkoako hiriburua da, 180.179 biztanle ditu (herrialdeko populazioaren %25) eta hiriaren ekonomia jardura nagusia zerbitzuen-sektorea da (%88,6), turismoak oso garrantzi handia duelarik.

Gipuzkoako biztanleen %17,23 dira EAetik kanpo jaiotakoak (Estatu Espainiarretik at jaio direnak %8,8). Donostiako biztanleen %18 jaio dira EAetik kanpo (Estatu Espainiarretik at jaio direnak %9,5). Haur, nerabe eta gazteen populazioari erreparatuta, Gipuzkoan 136.401 biztanle dira 19 urte baino gutxiago dituztenak (%19,19) eta Donostian 30.906 dira adin honetako hiritarrak (%17,15)

b. Gipuzkoako datu soziolinguistikoak

Gipuzkoa da euskararen presentzia handiena duen lurraldea. Datu soziolinguistikoek hori erakusten digute, baina horrek ez du esan nahi Gipuzkoako hizkuntza-errealitate soziala homogeneoa denik, tokiaren arabera (eskualde, udalerri, auzo...) eta gizarte-arloaren arabera (hezkuntza, lan-mundua, administrazioa, aisialdia...) ezberdintasun nabarmenak topatu ditzakegu. Ikusi dezagun, dena den, hizkuntza-errealitate orokorra zein den erakusten dizkiguten datu nagusienak.

Eustat-ek emandako datuen arabera Gipuzkoarren hizkuntza-gaitasun datuak hauek dira ³⁷ : *euskaldunak* (%53,3), *ia euskaldunak* (%22,8) eta *erdaldunak* (%24). Euskararen ezagutzari dagokionez Donostiako datuak zertxobait apalagoak dira: *euskaldunak* (%40,6), *ia euskaldunak* (%28,6) eta *erdaldunak* (%30,8).

Gure ikerketa nerabeen kirol praktiken ingurukoa da, hortaz, adinaren arabeko gaitasunaren datuak aurkeztea interesgarria dela uste dugu:

³⁶ Atal honetako datu estatistiko guztiak Eustat Euskal Estatistika Erakundeak emandako datuak dira. Biztanleen Udal-Erroldaren Estatistika (BUEE) 2016ko urtarrilaren 1ean:
http://eu.eustat.eus/municipal/datos_estadisticos/info_territorial_e.html

³⁷ 2011 urteko datuak, Eustat Euskal Estatistika Erakundeak emandakoak:
http://eu.eustat.eus/municipal/datos_estadisticos/info_territorial_e.html

Gipuzkoa eta Donostiako euskara gaitasunaren datuak

	Gipuzkoa			Donostia		
	<i>euskaldunak</i>	<i>Ia euskaldunak</i>	<i>erdaldunak</i>	<i>euskaldunak</i>	<i>Ia euskaldunak</i>	<i>erdaldunak</i>
2-14 urte	85,8	10,6	3,6	81,2	14,5	4,3
15-34 urte	67,1	18,3	14,6	58,0	23,3	18,7
35-64 urte	42,2	31,0	26,7	29,2	37,3	33,5
>64 urte	41,3	16,7	42,0	24,6	23,1	52,4

Eustat

Ikusten denez, beraz, haurtzaroa, nerabezaroa eta gaztaroa da euskaraz aritzeko gaitasuna duen multzo handiena topatzen dugun adin tartea, bai Gipuzkoan eta baita Donostian ere. Ohartarazi behar da 2-14 urtekoen artean euskaraz ez dakien ehunekoa oso txikia dela, %3,6 Gipuzkoan eta %4,3 Donostian. Gipuzkoako datu horiek bat egiten duten gaztetxo hauek ikasten duten hizkuntza-ereduen datuekin. Izan ere, Eustatek 2012-2013 ikasturterako emandako datuen arabera Gipuzkoako ikasleen %74k D ereduan ikasten du eta %12,2 B ereduan matrikulatu zen. A ereduan %13,7k ikasi zuen. Donostiako kasuan ordea, A eta B ereduan ikasten dutenak (%23,5 eta %22,9 hurrenez hurren) eta D ereduan matrikulatutakoak (%53,6) oso paretsu daude.

Etxeko hizkuntza

Etxeko hizkuntzari dagokionez Eustat-en 2011ko datuen arabera Gipuzkoan %26 da euskaraz soilik hitz egiten diren etxeen kopurua; % 60,6an gaztelaniaz egiten da eta %11,5ean bietan. Donostian euskararen erabilera etxeetan askoz txikiagoa da, %12,0 euskaraz soilik, %9,7 euskaraz eta erdaraz eta %76,2 erdaraz.

Hizkuntzaren kale erabilera

Kale erabilerari erreparatuz gero 2011an egindako Hizkuntza Erabileraren Kale Neurketak³⁸ euskararen erabileraren datu zehatzak eskaintzen digu. Urte hartan

³⁸ Soziolinguistika Klusterraren EDB datu basea:
<http://www.soziolinguistika.eus/edb/index.php?erakus=aurkezpina>

neurtutakoaren arabera Gipuzkoako kaleetan euskararen erabilera %32,7 da, gaztelaniaren %65,3 eta beste hizkuntzena %2. Donostiako kaleetan euskararen presentzia txikiagoa da: %15,9. Adinez, aztertuta hemen ere haurrak eta gazteak euskara gehien erabiltzen dutenak direla ikus dezakegu:

Gipuzkoa eta Donostiako euskararen kale erabilera

	Gipuzkoa	Donostia
Haurrak 2-14 urte	48,9	28,8
Gazteak 15-24 urte	36,9	15,6
Helduak 26-63 urte	28,8	14,8
Nagusiak >64 urte	22,4	6,5

Soziolinguitika Klusterra

c. Gipuzkoako kirol elkarteak

Gorago aipatu dugun bezala futbola da Gipuzkoan jarraitzaile gehien dituen kirola. Horren adierazle garrantzitsu bat kirol horretan urtero kudeatzen den federazio-lizentzia kopurua da. Kirolbegi-k 2010ean egindako ikerketaren³⁹ arabera 10.000 lizentzia baino gehiago egin ziren futbolekoan Gipuzkoan, zehazki 10.207 lizentzia⁴⁰. Lizentzia hauek generoaren arabera aztertuta, oso argi agertzen zaigu Gipuzkoako futbola nagusiki maskulinoa dela: lizentzien %87 gizonei dagozkie (8880 lizentzia) eta gainontzeko %13 emakumeen lizentziak dira (1327 lizentzia).

Gipuzkoan 64 klub daude. Kontutan hartuta lurraldea 89 udalerriz osatua dagoela esan daiteke ez dela kopuru handiegia eta futbolak baina klub gehiago dituzten bost federazio daude Gipuzkoan: Txirrindularitza (98), Ehiza (82), Mendia (81), Negu Kirolak (80) eta Pilota (75). Datu horrek adierazten digu futbol talde bakoitzak lizentzia kopuru handia kudeatzen dituela, media bat eginez 159,5 lizentzia ditugu talde bakoitzeko.

Gure ikerketarako interesgarria iruditu zaigu kategorien arabera datuak eskuratzea. Hona hemen Kirolbegik 2010ean emandako datuak:

³⁹ Kirolbegi-k 2012ko maiatzean argitaratutako txostena:

http://www.kirolbegi.net/docs/reports/Informe_deporte_federado_Gipuzkoa_10.pdf

⁴⁰ Futbola ez da, hala ere, lizentzia gehien duen Gipuzkoako kirola. Mendi Federazioak 14.282 kudeatu zituen eta Ehizarena 13.050 lizentzia. Guztira 46 kirol federazio, 1157 talde eta 79.990 lizentzia daude Gipuzkoan.

Gipuzkoako adinaren arabera lizentzia kopuruak

Maila	Adina	Lizentzia kopurua
Infantil	13-14 urte	1316
Kadete	15-16 urte	2458
Jubenil	17-18 urte	2377
Senior	19 urtetik gora	2636
Teknikoak	-	361
Epaileak	-	149
Besteak	-	910
Guztira		10207

Kirolbegi

d. Real Sociedad

Real Sociedad taldearen izen ofiziala honako hau da: *Real Sociedad de Fútbol Sociedad Anonima Deportiva*. 1909an sortu zen gizonezko futbol talde gisa eta Espainiako Liga txapelketako lehen mailako taldea da eta hala izan da bere ibilbideko urte gehienetan. Gizonen futbola elkarte honen jarduera nagusia bada ere, emakumeen futbol taldea ere badu. 2004ean sortu zen eta Estatu Espainiarren lehen mailako txapelketan aritzen da. Horretaz gain, beste kirol espezialitate hauetan tradizio handia duten taldeak dituzte. Batetik, 1914tik atletismo taldea du. Bestetik, gizonen belar hockey taldea 1916an sortua eta emakumezkoen belar hockey taldea 1932an sortua. Zalantzarik gabe, azken hau da kirol arrakasta handiena lortu duen Real Soiedad taldeko espezialitatea: zazpi aldiz irabazi ditu Espainiako Lehen Mailako liga txapelketa eta hiru aldiz Espainiako Kopa txapelketa.

Donostiako eta Gipuzkoako futbol eta kirol talde erreferentziala dela kontsideratzen da eta horren erakusle da urtez-urte duen aurrekontua (2016-2017 denboraldian 76,3 milio euroko aurrekontua du). Gainera, Gipuzkoako kirol instalazio garrantzitsuenak erabiltzen ditu. Gizonen lehen mailako taldeak Donostian dagoen Anoeta Estadioan jokatzen ditu bere partida ofizialak. Kirol instalazio hauek 1993an eraiki ziren eta 32000 ikusle sar daitezke bertan. Horretaz gain, Zubietako kirol instalazioak erabiltzen ditu gizonen lehen taldearen entrenamendu saioak egiteko, eta Realeko gainontzeko taldeen entrenamenduak eta partidak jokatzeke. Bertan zazpi futbol zelai eta bestelako ekipamenduak daude: prentsa aretoa, gimnasioak, bulegoak, aretoak...

Real Sociedad Fundazioa

D ereduko kirola izeneko ikerketan gazteen kirola aztertzen ari garenez, Real Sociedad taldearen kasuan klub honek sortua duen fundazioari erreparatu behar diogu. Izan ere, fundazio honen bidez bideratzen da kirol-formazioari dagokion taldeen kudeaketa. Real Sociedad Fundazioa irabazi asmorik gabeko erakundea da, eta bere eginkizun nagusia da kirol, gizarte eta kultur jardueren zabalkundea eta sustapena⁴¹.

Fundazioaren bidez haur eta gazteen artean kirolaren praktika sustatu nahi da, eta horregatik helburu nagusienetakoa honako hau da: “hautzaroan eta gaztaroan kirolaren praktika sustatzea eta hedatzea, guztiek praktikatzeko aukera izan dezaten eta kirolaren praktika gazteen prestakuntza integralari lotuta joan dadin saiaturaz”. Kirol prestakuntza da, beraz, Real Sociedad Fundazioaren oinarria, hala ere, eginkizun hau lortzeko “balioen inguruko heziketa” etengabe presente dutela adierazten dute: “etorkizuneko futbolari profesional posibleak prestatzeko lana garrantzitsua izanik ere, garrantzitsuena pertsona dela. Eginkizuna futbolariak prestatzea da, bai, baina baita ere Real Sociedad uzten dutenean futboleko jokatzen baino zerbait gehiago ikasi zutela aitortuko duten pertsonak prestatzea”. Horretarako, balio hauek aipatzen dituzte: esfortzuaren kultura, entrega, konpromisoa, errespetua, hobekuntza pertsonala, laguntasuna, harrotasuna, umildadea, parte hartzea eta lidergoa. Helburu horiek lortzeko Real Sociedad Fundazioak bi jarduera multzotan banatuak agertzen diren programak antolatzen ditu: (1) Gazte kirolarien prestakuntza: bereziki mutil futbolariena; eta (2) Eginkizun soziala: kultur jarduerak, jolas-kirol jarduerak eta gizarte jarduerak (besteak beste “euskararen babesa” izendapenez aipatzen duten euskararen inguruko jarduerak).

Real Sociedad Fundazioaren formazio ibilbidea infantil mailatik hasi eta jubenetan amaitzen da. Hauek dira, gaur egun, Realak dituen formazio taldeak⁴²: Jubenil A, Jubenil B, Kadete, Kadete Txiki, Infantil eta Infantil Txiki. Gure ikerketan Kadete Txiki eta Infantil taldeak parte hartu dute.

⁴¹ Atal honetako informazio gehiena Real Sociedad Fundazioak duen web orritik aterata dago: <http://fundazioa.realsociedad.com/>

⁴²Formazio talde guzti hauek maskulinoak dira. Real Sociedad futbol atalean nesken talde bakarra dago: Espainiako Liga Profesionaleko Lehen Mailan jokatzen duen senior taldea.

3. ANALISIA

Hirugarren kapitulu honetan lanaren alderdi enpirikoena aurkeztuko dugu. Zarautzen, Zubietan, Getxon eta Gasteizen egindako behaketen eta elkarrizketen informazioa aztertuko dugu, aurreko orrietan aurkeztutako lan ildoen arabera. Kapituluak sei ataletan banatuta dago. Lehen zatian, talde bakoitzaren testuinguruak zehazten duen informazioaren analisia egingo dugu. Bigarren kapituluan, kirol taldeetan osatzen diren praktika-komunitate hauen kirol-praktikak deskribatu eta analizatuko ditugu, ondoren, hirugarren kapituluan, talde hauen kirol izaeraz hausnartzeko. Laugarren zatian, ikerketa honetako protagonisten hizkuntza-praktikei buruz hitz egingo dugu, jarraian, bosgarren kapituluan, komunikazio formetan sakontzeko. Azkenik, seigarren zatian, entrenatzaileek hizkuntzen dinamika sozialen inguruan dituzten diskurtso orokorra aztertuko dugu. Gai bakoitzaren analisia hobeto ulertzeko tartekatu ditugu ikerketa etnografikoan behatu ditugun zenbait egoera, elkarrizketa sakonetan jasotako hausnarketak eta behaketetan entzundakoak.

3.1. Testuinguruaren analisia

Gerturatu ahala kirola “entzuten da”: epaileen txilibitu soinua, gurasoen builak, txaloak... (Zarautzen behaketa, 2016-11-26)

Txosten honen aurreko zatian, ikertu ditugun kirol taldeen testuinguruaren azterketa dokumentala egin dugu. Zalantzarik gabe, talde bakoitzaren errealitate sozial eta kulturalak baldintzatzen ditu bertan emango diren hizkuntza-praktikak, eta horri erreparatu gabe zaila da aukeratutako guneen analisia sakontasunez egitea. Jarraian, beraz, talde bakoitzaren testuinguruak zehazten duen informazioaren analisia egingo dugu, elkarrizketa eta behaketetan jasotako informazioa eta aurretik dokumentazio bilketan jasotakoa uztartuz.

3.1.1. Herriak eta lurraldeak

Donostia eta Gasteiz ez dira berdinak, Gipuzkoa eta Araba berdinak ez diren moduan, ezta Getxo eta Zarautz ere. Ikerketa honetarako ezaugarri ezberdinak dituzten lau talde aukeratzeaz gain, EAEko hiru lurraldeetako lau hiri ezberdinetako taldeak aukeratu dira, lauak tamaina handi samarrekoak. Luze joko luke, lau hiri hauen ezaugarri sozio-

ekonomikoak eta sozio-kulturalak alderaketa zehatza egitea, baina testuinguru orokorrean emandako datuek ez dizkigute hain ezberdinak diren kopuruak ematen. Jarduera ekonomikoari buruz esan daiteke lau guneetan zerbitzuek dutela garrantzi handiena baina Getxon (%89) eta Donostian (%88) nabarmenagoa dela, Gasteizen (%67) eta Zarautzen baino (%78).

Populazioari dagokionez, Gasteiz (246.042 biztanle) eta Donostia (180.179 biztanle) handienak dira, jarraian Getxo daukagu (77.759 biztanle) eta azkenik Zarautz (23.040 biztanle). Hiritarren jatorrian ez dago horrenbesteko diferentziarik. Hala ere, Espainiako Estatutik kanpo jaiotakoen kopuruei begiratuta, deigarria da Getxo (%6,4) eta Gasteizko Zaramaga auzoa (%12,8) artean dagoen aldea. Gure ikerketa gazteen kirol arloan garatu denez, adin talde honen kopuruei ere erreparatu diogu, eta lau hirien artean ezberdintasunik ez dugu topatu: 19 urte arteko biztanleak %17 eta %20 artean dago.

Ezaugarri soziolinguistikoetan, ordea, diferentziak askoz nabarmenagoak dira. Aurretik landutako datuen laburpen taula bat osatu dugu hiri bakoitzaren ezaugarri soziolinguistikoak argiago ikusteko⁴³:

Datu soziolinguistikoaren laburpen taula

		Gaitasuna			Kale erabilera	Etxeko hizkuntza		
		elebidunak	Ia elebidunak	Ez elebidun	Euskaraz	Euskara	Biak	Gaztelania
Gasteiz	Orohar	22,5	26,1	51,4	3,1	2,75	3,56	90,48
	Gazteak	34,1	34,8	31,1	5,2	-	-	-
Getxo	Orohar	29	27	44	9,2	3,6	5,3	89,9
	Gazteak	44,4	35,1	20,5	7,8	-	-	-
Zarautz	Orohar	70	17	13	50,0	40,2	15,4	42,4
	Gazteak	77	10,5	11,8	53,5	-	-	-
Donostia	Orohar	40,6	28,6	30,8	15,9	12	9,7	76,2
	Gazteak	58	23,3	18,7	15,6	-	-	-
Gipuzkoa	Orohar	53,3	22,8	24	32,7	36	11,5	60,6
	Gazteak	67,1	18,3	14,6	36,9	-	-	-

Eustat eta Soziolinguistika Klusterra

**Datu guztiak ehunekotan daude*

Esan bezala, errealitate soziolinguistiko ezberdineko hiriak aukeratu ditugu. Batetik, Gasteiz eta Getxo ditugu. Bi hiri hauen elebidun kopurua ez da %30era iristen

⁴³ Donostia eta Gipuzkoako datuak kontutan hartu ditugu Real Sociedad taldeak beste taldeekiko ezberdintasun nagusi bat duelako: ezin da herri zehatz bakar baten talde gisa hartu. Bertan aritzen diren jokalariek, entrenatzaileak eta gainontzeko langileak Gipuzkoa osokoak dira. Donostian kokatutako taldea da baina Gipuzkoa ordezkatzeko duen kirol taldea da. Gainera, lurralde honetatik kanpoko zenbait jokalaria ere hartzen ditu. Ikerketa honetan parte hartu duten beste taldeetan, ordea, herrian bertan bizi diren jokalariek eta entrenatzaileak aritzen dira.

(Gasteizen %22,5 eta Getxon %29) eta, ondorioz, euskararen kale erabilera txikia da (Gasteizen %3,1 eta Getxon %9,2). Bestetik, Donostia eta Gipuzkoako datuak ditugu. Horietan, elebidun kopurua %40 eta %55 artean dago, eta euskararen kale erabilera %15,9 da Donostian eta %32,8 Gipuzkoan. Azkenik, bestelako errealitate soziolinguistikoa duen hiria dugu: Zarautz. Bertako 10 biztanleetatik 7k elebiduna da, eta kalean ematen diren elkarrizketen erdia euskaraz dira.

Azken urteetako euskararen biziberritze prozesuaren ondorioz haur eta gazteen artean elebidun kopurua handiagoa da, eta hori ere islatzen da gure lau hirietan. Horrela, Zarautzen ia gazte guztiak euskara ulertzeko gaitasuna dutela ikusten dugu. Gipuzkoan ere oso gutxi dira euskara ulertzeko gai ez diren gazteak. Esanguratsua da, halaber, Gasteiz eta Getxon elebidun eta ia elebidunen kopurua batuz gero agertzen zaizkigun datuak: Gasteizen %69 eta Getxon %79. Gazteen euskararen kale erabileraren datuak bat datoz hiri bakoitzean jaso diren kopuru orokorrekin.

Orohar, behaketetan eta elkarrizketetan jasotako datuen arabera esan daiteke, kirol taldeetan jaso ditugun hizkuntza-praktikak txertatua dauden herrien errealitate soziolinguistikoarekin nahiko bat datozela. Hala ere, kasu guztietan euskararen presentzia handiagoa da talde bakoitzaren herri edo auzoaren kaleetan dagoena baino.

Real Sociedad taldean ematen diren hizkuntza-praktikak aztertzerakoan Gipuzkoako testuinguru soziolinguistikoa kontutan hartu dugu eta, oro har, esan daiteke jaso duguna bat datorrela lurralde honetako datu soziolinguistikoek erakusten digutenarekin. Izan ere, azertu ditugun taldeen jokalaria eta entrenatzaileak Gipuzkoako gazteak direnez, denek badute euskaraz egiteko gaitasuna eta euren kirol jardunean euskaraz eta gaztelaniaz aritzen dira. Hau da, Zubietako instalazioak ez dira dentsitate-gune bat (ondoan duten Landaberri Ikastola Lasarte-Orian izan daitekeen moduan), baina ez guke esango euskarak bertan duen presentzia Gipuzkoan duena baino txikiagoa denik. Behaketetan jasotako pasadizo honetan ondo laburbiltzen da Zubietako hizkuntza errealitatea:

Porteria bakar batekin partidak egiten ari dira. Batez ere, lehen entrenatzaileari (euskaraz) eta atezainari (gaztelaniaz) entzuten zaie. Tarteka bigarren entrenatzaileari ere entzuten zaio (euskaraz). Entrenamendua ikusten bi aita daude zutik. Ez dute asko

hitz egiten baina esaten duten guztia erdaraz esaten dute. Gazteen artean gaztelania dezente erabiltzen dute baina egia esan ez dute gehiegi hitz egiten (Zubietan behaketa, 2016-12-02).

Zarautzen ere inkesta soziolinguistikoek ematen dizkiguten gaitasunaren datuak eta ikerketa honetan jasotakoa bat datoz. Zarautz Eskubaloi taldeko entrenatzaile eta gazte guztiek euskaraz egiteko gaitasuna dute. Erabileran, ordea, ezberdintasun nabarmenak daude. Zarauzko kaleetan egin den azken kale neurketan elkarriketen erdia gaztelaniaz jaso baziren ere (baita gazteen artean ere) gure behaketetan apenas ez dugu gaztelaniazko elkarriketarik entzun. Esan daiteke, beraz, Zarautz Eskubaloi Taldea dentsitate-gunea dela ingurune oso euskaldun batean. Horren erakusle entrenatzaile batek kontatutako anekdota: iaz izan zuen taldean mutil bat euskaraz hitz egiteko batere ohiturarik ez zuena, ez kalean, ez etxean. Horrek hasiera batean taldetik aparte samar geratzea eragin zion baina berehala moldatu zen, eta aita harrituta omen zegoen euskaraz hitz egiten ikusi zuelako. Beraz, esan daiteke euskaraz egiteko ohitura txikia duten gaztetxoek jarduna handitzeko baliagarria da Zarauzko eskubaloi taldea.

Getxon eta Gasteizko entrenamenduetan ere euskara gehiago entzuten da, kale neurketek ematen duten ehuneko baino. Aixerrota eta Zaramaga taldeetan dabilzan nerabe eta entrenatzaile guztiek elebiduntzat har ditzakegu. Entrenatzaileen jarduna nagusiki euskaraz da, eta gaztetxoek hainbatetan entrenatzaileei euskaraz egiten diete, baina nerabeen arteko elkarriketa eta ahozko espresio ia guztiak gaztelaniaz dira.

3.1.2. Kirol taldeak

“Haur eta nerabeen kirol antolaketa” kapituluan azaldu dugun bezala, gure testuinguru geografiko eta instituzionalean 10 eta 16 urte bitarteko kirol praktika antolatuak hiru multzotan banatu ditzakegu: gorputz hezkuntza, eskola-kirola eta kirol federatua. 2016an ikerketa honetan parte hartu duten talde guztiek kirol federatuaren multzoan sartzen badira ere, bere artean ezberdintasun nabarmenak daude. Talde izaera eta nortasun ezberdin hauek hizkuntza-praktiketan eragina ote duten esploratzea interesgarria iruditzen zaigu. Jarraian, beraz, klub bakoitzaren izaeraren zehaztapena egingo dugu, aurretik deskribatu duguna behaketan eta entrenatzaileen elkarriketetan jasotako informazioarekin.

Real Sociedad Fundazioan dauden taldeen jarduna *oinarrizko kirola* eta *harrobizko kirola* izendapenaz ulertzen den kiroltzat hartu behar da. Fundazioaren helburua “hautzaroan eta gaztaroan kirolaren praktika sustatzea eta hedatzea” izanik ere, Zubietan aritzen diren taldeen eginkizun nagusia “etorkizuneko futbolari profesional posibleak prestatzeko lana” egitea da. Hau da, eliterako jokalaria prestatzen dituzte, harribitxi gutxi batzuk lortuz. Gainera, Realak egungo gizartean prestigio handiena duen kirol espezialitatean aritzen da, eta talde profesionala mundu mailan erreferentzia handienetakoa duen Espainiako Liga txapelketan jokatzen du. Horrek guztiak eliteko taldea bihurtzen du, eta hori argi agertu zaigu behaketetan jasotako hainbat alderdietan.

Hasteko, kirol-instalazioaren alderdia azpimarratu daiteke. Realeko entrenatzaileak onartu digunez “daukagun bentaja da hemen zelaia degula; hemen etortzen zea sei t’erdietan eta zelaia dezu, eta bi ordu zelaian”. Ikerketan parte hartu duten gainontzeko taldeetan, ordea, entrenatzeko espazioaren falta agertu den arazo bat izan da.

Zubietan dauden instalazioen kalitateaz gain, aztertu ditugun Realeko taldeen dinamikan izaera berezi hau nabari da: gazte guztiak taxiz joaten dira entrenamenduetara (baita Errioxa, Gasteiz edo Burgosetik ere) eta erabiltzen dituzten kirol jantzi guztiak taldeak jaso eta garbitzen ditu. Gainera, taldeak pertsona bat kontratatua du gazte guztien ikasketen jarraipena egiteko: eskoletako tutoreekin harreman zuzena du, noten jarraipena egiten du, entrenamendu ondoren Zubietako ikasgela batean eskolako lanak egiteko aukera eskaintzen zaie... Hau da, baliabide ekonomiko handiak erabiltzen dira gazte hauen kirol-heziketan. Bestalde, “elite” izaera hori ez da alderdi materialean soilik islatzen. Eredu sinbolikoan ere agertzen zaigu. Entrenatzaile batek aipatu zigunez, gazte hauek “pertsonaia publikoak” bihurtzen dira Realean aritze hutsagatik, eta bizi diren herrietan prestigioa lortzen dute. Prestigio izaera hori oso interesgarria izan daiteke hizkuntza-plangintza egokia txertatuz gero. Batetik, klubak jartzen dituen arauak betetzea erraza izaten delako. Bestetik, eredugarria izan daitekeelako Gipuzkoako (Euskal Herriko?) beste taldeentzat.

Getxoko Aixerrota Taldeak izen bereko institutuarekin lotura zuzena du. Ikastetxe horretako gorputz-hezkuntzaren irakasleak dira taldearen arduradunak eta, beraz, eskola giroarekin lotura handia duen taldea dela esan dezakegu. Horrek guztiak isla

argia du entrenatzaileen erabiltzen dituzten kirol-metodoetan eta baita hizkuntza trataeran ere. Entrenamenduak Getxoko udal kiroldegian garatzen diren arren, ia jokalaria guztiak Aixerrota institutuko ikasleak dira. Euskal Herri mailan bolei klub handienetako bat da eta Getxoko beste eskoletako gazteak hazteko aukerarik ez dute ikusten entrenatzeko espazio gehiago edukitzeko arazoak dituztelako.

Euskarari dagokionez, ikastetxe batetik sortutako kluba izateak eragina nabarmena du. Euskarari lehentasuna ematen zaio eta klubaren nortasunean ezaugarri zentrala da: “euskaraz egin den klub bat da” (Getxoko entrenatzailea). Bestalde, taldearen arduradunak Aixerrota ikastetxeko gorputz hezkuntzako irakasleak direnez nolabait ikastetxeetan ematen diren hizkuntza-praktiketarik hurbil dauden dinamika batzuk sortzen dira.

Zarautz Eskubaloi Elkartea oso klub “familiar” gisa izendatua izan da egin ditugun elkarrizketetan: “ez gea profesionalak ta dana danagatik ite deu, famili handi bat bezela” (Zarauzko entrenatzailea). Bertan aritzen diren guztiek (jokalaria, entrenatzaileak, bestelako langileak) erabat lan boluntarioa egiten dute. Maila goreneko ligetan aritzen diren jokalariek eta entrenatzaileek ere ez dute soldatarik. Nerabeen entrenatzaileek oso barneratua dute taldearen izaera hau: “bere garaian haiei eskainitakoa orain itzuli behar dutela euren lana eta denbora gaztetxoei eskainiz” (Zarauzko entrenatzailea). Horrek ez du kentzen Zarauzko taldea eliteari begira ere egotea. Klubak dituen entrenatzaile asko jokalaria profesionalak izan dira, eta senior taldeak oso maila goreneko ligetan jokatzen dute.

Bestalde, talde honek ez du lotura zuzena Zarauzko ikastetxe bakar batekin. Bertan parte hartzen duten jokalaria Zarautzen dauden ikastetxe guztitakoak dira. Hala ere, gehienak Zarauzko Ikastolakoak eta, zertxobait gutxiago, Lizardi Ikastetxe Publikokoak dira. Gutxiago dira, Antoniano eta La Salle ikastetxetako ikasleak. Senior mailako partidetan (emakumeenak eta gizonezkoenak) ikusle asko izaten dituzte. Kiroldegia txikia geratu omen zaie eta askotan jende asko sartu ezinik geratzen da: “Familia handi bat bezela gea, gero gurasoak dia, gero afiziyua, geo dana...” (Zarauzko entrenatzailea). Sinbolikoki izaera familiar horren baitan, bestelako balore batzuk transmititzearekin batera, taldeko entrenatzaileek euskara transmititzeko ardura ere badutela nabaritu dugu.

Zaramaga Esku-pilota Taldea ere Zarauzko eredu “familiar” horretatik hurbil dagoela esan daiteke. Klubaren kudeaketa Zaramaga auzoko jokalarien gurasoen esku dago. Beharbada “auzo-talde” gisa definitzea ere ez legoke gaizki. Zaramaga auzoko frontoian aritzen dira eta behaketetan ikusi dugunaren arabera, entrenamendu saioetan nahiko gertuko giroa sortzen da: guraso asko harmailetan geratzen dira, merienda bertan jaten dute, nerabe batzuk eskolako lanak egiten ikusi ditugu... Entrenatzaileen aldetik ere, Zarautzen bezala, nolabaiteko ardura nabaritzen dute urte asko jokalaria gisa aritu eta gero, klubak beharra duenean, beraiek entrenatzaile gisa aritzeko. Kasu honetan ere lan boluntarioa egiten dute.

Aixerrota, Zarautz eta Zaramaga klubek badute komunean beste ezaugarri garrantzitsu bat. Euren kirol-espezialitatean eta euren lurraldean erreferentziazko taldeak dira. Zaramaga Gasteizen sortu zen esku-pilotako lehen taldea izateaz gain, Lakuako taldearekin batera, hiri honetako talde handiena da. Aixerrota ere Euskal Herri mailan boleiko talde garrantzitsuenetakoa da, eta lehenago adierazi dugun bezala, Zarautz Eskubaloia taldea ere erreferentziazko kluba da. Izaera horrek, beraz, ere lagungarria izan daiteke aurrera begira ereduazko hizkuntza-plangintzaren bat ezarritik gero.

3.1.3. Kirol espezialitateak

Ziur aski iruditegi kolektiboan badira kirol espezialitate batzuk euskararekin errazago lotzen direnak: pilota, arrauna, herri-kirolak... Gure ikerketan lau kirol espezialitate ezberdinetan aritzen diren klubak aztertu ditugu, eta kirol horietan euskararen presentzia nolakoa den esploratzen hasteko datu batzuk lortzen saiatu gara. Zaila da, hala ere, kirol-espezialitate bakoitzeko talde bakar batekin hizkuntza-praktika orokorra nolakoa den ondorioztatzea.

Gainera, aurretik datu makroetan ohartarazi dugun bezala, argi dago kirol moten artean ezberdintasun handiak daudela. Hala adierazi digute elkarrizketatu ditugun entrenatzaileek, kirol batzuei beste batzuei baino garrantzi handiago ematen zaiela:

Hemen arazoak daude pues futbolakin..., saskibaloia... Ta azkenean, azkenean, garrantzia ematen zaie gehiago kirol horiei. Ta gero... pistak hartzeko.... materiala

hartzeko... zailago dago. Orduan, pista gabe, ezin dira neska gehiago hartu eta... zentzu hortan pixkat zailago dago hazteko. (Getxoko entrenatzailea)

Antzera mintzatu zen Zaramagako entrenatzaile batek:

Klubean baditugu batzuk pilotan eta gero futboleant aritzen direnak, eta gehienbat futbolak tiratzen du gehio. Azkenean hemen Araban ez dagoenez pilotan erreferente bat...azkenean hemen saskibaloia eta futbola daude. (Zaramagako entrenatzailea)

Hizkuntzari dagokionez, ez dugu kirol-espezialitateekin lotutako datu askorik jaso. Zaramaga esku-pilota taldeko entrenatzaileak aipatu zigun bere pilota ibilbide osoan entrenatzaile euskaldunak izan dituela, bat ezik. Futboleant ere aritua zen eta hor entrenatzaile erdaldunak izan zituen. Gaur egun ere antzeko panorama ikusten du:

Pilota futbola baino euskaldunagoa da. Futbola ere askoz jende gehiagok egiten du ta badago jende pila bat ez dakiena euskeraz. Ni partidoak ikustera noanean, entrenatzaile guztiak dabilta erderaz hitz egiten, ez da ikusten euskeraz hitz egiten duen inor. Partidetan ere jokalariai beraien artean beti erderaz. (Gasteizko entrenatzailea)

Boleiren kasuan, euskararen presentzia handia dela adierazi digu Aixerrotoako entrenatzaileak:

Handia da bai ze... talde gehienok... osea euskara, entrenatzaile gehienak euskaraz dakite, ta haien artean euskaraz egiten da. Aber, salbuespenak daude baten batek euskeraz ez badaki erderaz egiten da baina... normalean... (Getxoko entrenatzailea).

Dena den, klubeko arduradunak aipatu zigun behin baino gehiotan entzun behar izan duela bolei kanpoko jendeari honako galdera hau egiten “Zer egiten du zu bezalako euskaldun batek horrelako kirol batean?”.

3.2. Kirol praktiken analisisia

Frontoira sartzean zarata igarri nuen, korrika, pilotak alde batetik bestera, oihuak... Pilota “gogorren” zarata da nagusi eta pilotak harriaren kontra hain berezko duen soinu horrek frontoi osoa estaltzen du. (Gasteizen behaketa, 2016-11-30)

Hizkuntza-praktikak aztertzeke garrantzitsua da hiztunen praktikak zein eta nolakoak diren ondo zehaztea. Testuingurua deskribatzeko idatzitako orrietan ikusi dugu gaur egungo gazteen artean kirol-praktikak duten dimentsioa eta garrantzia. Makro

konsideratu daitekeen testuinguru hori osatzeko ikertu dugun kirol-talde bakoitzeko testuinguru zehatzeko kirol-praktikak deskribatzen saiatuko gara. Horretarako, Hizkuntza Antropologian azken hamarkadetan proposatzen eta erabiltzen den praktika-komunitatea kontzeptuaz baliatuko gara.

Jone Miren Hernandezek idatzitako “Euskara birpentsatu beharra. Ekarpen batzuk antropologiatik” artikuluan, praktika-komunitatea kontzeptua erabiltzeko proposamena egin zuen (2008:35). Praktika-komunitatearen bidez hizkuntza ez da elementu aske eta isolatutzat hartzen, gizarte egiturarekin jartzen da harremanetan “eta hau da, hain zuzen ere errealitatean aurkitzen dugun egoera. Hiztunak komunitate bateko kideak dira, baina zein paper jokatzan du hizkuntzak komunitate horretan?” (ibid.). Praktika-komunitatea honela definitu daiteke:

Un conglomerado de personas que se reúnen alrededor de un compromiso mutuo para llevar a cabo algo. Formas de hacer cosas, formas de hablar, creencias, valores, relaciones de poder – en una palabra: prácticas – surgen en el curso de ese esfuerzo mutuo. Como un constructo social, una CP es diferente de la comunidad tradicional, ante todo porque se define simultáneamente por su membresía y por la práctica en la cual esa membresía se emplea (Lave eta Wenger (1991); in Holmes eta Meyerhoff, 1999).

Praktika-komunitatea kontzeptuak norbanakoak bere bizitzan komunitate anitzetan parte hartzen duela onartzetik abiatzen da. Hizkuntza-komunitatean, ordea, hizkuntza arauak partekatzen dituen homogeneoa den komunitate bat irudikatzen da; taldea norbanakoaren gainetik dago. Horregatik, hizkuntza-komunitatea aztertzerakoan makroagoa den ikuspegia erabiltzen da (Hernandez, 2008:35). Jarduera-komunitatea ez dute kideek bakarrik definitzen ez eta jarduerak bakarrik ere, biak lotzen dituzten harreman kontzeptuek baizik. Horrek dakarren ondorioetako bat komunitatearen ertzak lauso eta nahiko irekitzat ikustea da:

Jarduera komunitatearen ereduak edozein taldetan aniztasuna dagoela aurreikusten du eta komunitate batean baino gehiagotan (sarritan gainjarrita egonda) parte hartzeko eredu dinamiko eta aldakorak onartzen ditu (Kasares, 2014:54).

Jarraian, beraz, kirol taldeetan osatzen diren praktika-komunitate hauen egunerokotasuna zehazten dituzten hainbat ezaugarri deskribatuko ditugu.

3.2.1. Entrenamenduak

Aztertutako talde guztietako entrenamenduetan jaso dugun giroa antzekoa izan da. Giro lasaia eta erlaxatua nabaritu dugu eta, era berean, disziplina eta formaltasun handiko esparrua dela ikusi dugu. Entrenatzaileak dira erreferentea eta gidariak. Egin beharreko ariketak azaltzerakoan gazteek adi-adi eta isilik entzuten dute. Entrenatzaileek esaten dituztenak gazteek betetzen dituzte, eta guk egindako behaketetan ez dugu haserrealdi edo gatazka handirik behatu. Barrea eta ziria ere oso presente daude, baina irain edo burlarik gabeko txantxa giroa da. Entrenatzaileen ustez gaztetxoak gustura aritzen dira: “giro ona dago, ondo pasatzen dute” (Getxoko entrenatzailea). Disziplina hori txikitatik lantzen dutela aipatu zigun Zarauzko entrenatzaileak “arau batzuk, basikuak, errespetua eta gauza hoiek txiki-txikitatikan zeatu behar dia” (Zarauzko entrenatzailea).

Disziplina giroa da baina, esan bezala, txantxarako aukera handia uzten da. Hori oso nabarmena da entrenamenduak amaitzeko antolatzen diren ariketetan. Nolabaiteko amaiera erritual gisa egiten diren jarduera batzuk behatu ditugu. Zarauzko kasuan penalti jaurtiketen bidez amaitzen da entrenamendua. Jokalarien eta atezainen arteko lehia modukoa da, golak eta geldiketak zenbatzen dituzte. Ariketa honetan txantxa giroa erabatekoa da, eta entrenatzaileek jokalaria eta atezainak zirikatzen dituzte. Zaramagan ere entrenamendua bukatzeko beti ariketa bera errepikatzen da: “putxe” izeneko jokoa:

Entrenamendua bukatzeaz da eta entrenatzaileak umeei “putxe” edo “kale” deitzen den jokora jolasteko esaten die. Denak frontoiko aurreko aldera doaz joko hau egitera. Bertan, txarra egiten duena kalera doa -eliminatzen da- eta kasu honetan etxera ere badoa jokoa amaitzean entrenamendua amaituko delako. Gurasoak beraz, (bertan egon direnak entrenamendu saioa ikusten edo orain etorri direnak) prest daude beraien seme-alabak jasotzeko eta alde egiteko (Gasteizen behaketa, 2016-11-28)

Jolas giroko une erlaxatu hauek nerabeen arteko hizkera ez formalerako aukera handia ematen dute. Bestalde, entrenamenduetan jokalariek badituzte ardura batzuk material jasoketa eta entrenamendua egiteko behar diren instalazioak prestaketan. Realean, adibidez, talde txikiak eginak dituzte eta entrenamendu bakoitzean talde bat baloiak eta bestelako tresnak (piboteak, petoak...) eramateaz eta jasotzeaz arduratzen da. Aixerrota baloien arduraz gain, taldekide guztiek bolei sareak jartzen eta kentzen dituzte. Esku-pilotaren kasuan, Zaramagan, indibidualagoa da prestaketa saioa, eta

eskuetako takoak jartzeko jardueran kontzentratzen da. Aurrerago ikusiko dugun bezala, tarte hauetan gazteen arteko solasaldi laburrak sortzen dira.

Hauekin batera, entrenamenduetan errepikatzen diren pautak edo errutina batzuk jaso ditugu. Guztietan, entrenamendu hasieran egiten den beroketa saioa egoten da. Entrenamendu amaieran luzatze-arietak egitea ere ohikoa da, baina ez da talde guztietan egiten. Beroketa eta luzaketa tarteetan nahiko giro erlaxatuan aritzen dira eta binaka edo hiruak elkarriketatxoak sortzeko aukera izaten da. Zenbaitetan, entrenatzaileek ere erabiltzen dituzte une horiek aipatu nahi duten zerbait esateko.

Bestalde, entrenamenduetan intentsitate handia izaten dela ere jaso dugu. Alderdi hori, bereziki, Getxoko Aixerrotako entrenamendu saioetan nabari dugu. Estatu Batuetako entrenatzeko metodologia bat erabiltzen dute oso erritmo azkarra txertatuz. Ariketak egitean geratu gabe bakoitzak ahal duen guztia ematen du. Horrek, noski, gutxiago hitz egitea ekartzen du, baina, era berean, intentsitateak emozioak azalarazteko balio du. Intentsitate horrekin lotuta kontzentrazioa ere ageri zaigu, aipatu dugun bezala, disziplinak, kontzentrazioak eta intentsitateak ez dute giro ona oztopatzen eta Aixerrotan (baita beste taldeetan ere) entrenatzaile eta jokalarien artean konfiantza giroa nabari da .

Realean ere intentsitatea bilatzen dute. Alderdi fisikoa ez dute gehiegi lantzen eta, batez ere, teknika eta taktika jorratzen dute. Interesgarria iruditu zaigu Realak nerabeen autonomiaren lanketari garrantzi handia ematen diola. Jokalariek erabakiak hartzea oso garrantzitsua dela uste dute eta horretarako ausardia bultzatzen dute: “Ikasteko ordun planteatzen dugu beaiek ausartzea gauza ezberdinak egiten, nik beti esateut ikasketa prozesua dala fallo asko itea. Ta akatsa egingo dituzte, eta errepikatuko dituzte, eta hortatik ikastea” (Realeko entrenatzailea). Horrekin lotuta, jokalaria lantzen dutenaz kontzientzia edukitzea ere nahi dute, eta horregatik, entrenamenduen aurretik saioen eta ariketen helburuak zein diren azaltzen dieten. Gainera, tarteka, jokalariek planteatu behar izaten dituzte helburu zehatz bat lortzeko zer egin behar duten, edo partidetan taldeak gaizki egindakoa hobetzeko aldaketak eta estrategiak.

Beharbada, Zaramaga pilota taldea da entrenamenduetan intentsitate gutxien nabari den gunea. Orohar giro lasaia badago ere, tarteka intentsitate gutxiagoko uneak behatu

ditugu. Horrelakoetan gaztetxoak aztoratzeko joera izaten dute eta elkar-joka, oihuka eta txorakeriak egiten hasten dira.). Joera hori gaztetxoekin nabarmentzen da. Adinean gora egin ahala intentsitateak eta seriotasunak gora egiten du. Horretaz gain, kontzentrazioa handitzen da, entrenamenduetako partidak jokatzen dituztenean, partidak irabazteko grina intentsitateak areagotzen duelako. Dena den, Zaramagako taldekide guztien artean ere giro ona, umorea eta entrenatzaileekiko hurbiltasuna gailentzen da.

3.2.2. Partidak

Lehiaren izaerak eskatzen duen bezala, partidetan entrenamenduetan baino tentsio handiagoa dago. Getxoko entrenatzaile batek esan zigun entrenamenduak partidak baino gustukoagoak dituela:

Partidutan ez dute jolasten, generalean ez da demostratzen ikasten dena. Urduri daude, gradetara begira daude ea gurasoak begira ari diren. Ta ez da berdina. Guk jokalaria bat daukagu klubean esaten duena “Niretzako dibertigarriena entrenamenduak dia”. Zergatik, pues azkenean partidotan beste taldeak ere bai baldintzatzen zaitu, beste taldeak ez badauka mailarik aspertuta zaude, maila gehiegi badauka ere txarto pasatzen duzu. Ordun klaro, entrenamenduak pixkat berdinduago daude. Gainera ezberdina da jokua, joku ezberdinak egiten dia, ta ordun, nik uste hori dela dibertigarria. Bueno niretzako... (Getxoko entrenatzailea)

Behatutako partidetan, hala ere, ez dugu tarteka gertatu ohi diren aparteko istilurik edo haserrealdirik behatu. Nahiko giro lasaia ikusi dugu eta ikusleen oihuak baino gehiago txaloak entzun ditugu. Entrenatzaileen elkarriketetan halako istiluak tarteka sortzen direla aipatu digute: bi talderen gurasoen artean edota epaileekin.

Talde kiroleko partiden azken minutuak izaten dira tentsio handiena biltzen duten uneak. Urduritasuna nabaritzen da eta ikusleen animo eta protesta oihuak areagotzen dira. Ordizian behatu genuen eskubaloï partidan adibidez ikusleen protesta oihu batzuk jaso genituen “eh! doubles, doubles!”, “arbitro, alderantziz izango da!”. Errenteriako eskubaloï partidan ere bi entrenatzaileen arteko eztabaida txiki bat egon zen eta mahaiko epaileak lasaitzeko eskatu zien.

Partidetan ere errepikatzen diren erritu moduko batzuk daudela behatu dugu. Partida amaieran, adibidez, bi taldeen kideen (edo bi jokalarien) artean eskua emanez agurtzea ohikoa da, eta irabazi dutenei zoriontzea espero den jarrera da. Halaber, une

horretan ikusleek txalo egiteko ohitura dago. Erreterian behatutako partida amaitzean Zarauzko entrenatzaileak harrituta geratu zela aipatu zigun Ereintza taldeko jokalariei eskua emandakoan gertatutakoarekin: “banan bana zorionak esan diet eta gazte batzuk “gracias!” erantzun didate!” (Zarautz, 2016-11-26). Talde izaera indartzeko eta animoak emateko oso zabaldutako erritua honako hau da: taldeko jokalaria guztiak borobil itxi bat osatzen dute, esku bana luzatzen dute eta esku guztiak elkartuta oihu bateratu bat botatzen dute: “Bat, bi, hiru, Zarautz!” adibidez. Jaso ditugun mota horretako oihu guztiak euskaraz izan dira.

Entrenamenduetan bezala, partidetan ere berotze eta luzatze-ariketak egitea ohikoa da, partida hasi aurretik eta baita bukatzerakoan ere. Amaierako luzatze une horretan entrenatzaileak partidaren inguruko azalpenak eta iruzkinak ematen dizkie jokalariei.

3.2.3. Entrenatzaileak

Gorago aipatu dugun bezala, entrenatzailea erreferentea da, “heldua da (benetako gizartearen eredu) eta autoritatea da (prestigioa duen autoritatea, afektiboki eraginkorra da gustuko aktibitatea delako)” (Jauregi, 2016). Entrenamenduak eta partidak euren esku daude. Erreferentea dira eta ikerketa honetan elkarriketatu ditugunak kontziente dira erreferentzia horrek hizkuntza kontuetan ere garrantzia duela. Autoritatea dute eta zenbaitetan aginduak haserre tonuan eta oihuka adierazten badituzte ere, ez dugu umiliazio edo irain tonurik nabaritu. Askotan, haserre esandako gauzak eta gero animoak ematea ere ohikoa dela ikusi dugu.

Jokalariek betetzen dute entrenatzaileek esandakoa eta ematen dituzten aginduak entzuten dituzte. Hona, adibidez, Realean egindako behaketan idatzitako lerro batzuk:

Zutik daude denak ikasgelaren aurrealdean, psikologoa hitz egiten ari da eta mutilak adi entzuten dute. Ez dut irudikatzen horrelako eszenarik institutuko ikasgela batean.
(Zubietan behaketa, 2016/11/18)

Talde bateko entrenatzailea izateko bide ezberdinak jaso ditugu. Kasu guztietan aurretik praktikatu dute entrenatzen duten kirola eta klub horretan aritutako jokalaria

dira, Realaren kasuan izan ezik⁴⁴. Ikerketan parte hartu duten klubek behar dituzten entrenatzaile guztiak lortzeko arazoak izaten dituztela aipatu dute, baina horretan ere Realak salbuespena da.

Getxoko Aixerrota taldean entrenamenduetarako metodo zehatza garatua dute. Oso planifikatua dute entrenamenduen ariketak eta erritmoa eta entrenatzen hasten diren guztiak programa hori aplikatu behar dute eta horretarako klubaren arduradunekin formatzen dira. Alde horretatik, bertako entrenatzaileak kirol ikasketa zehatzei baino ikasteko gogoia behar dela uste du:

Ze batzutan eduki ditugu IVEF ikasitako batzuk, baina klaro!, pixkat, kirolean, boleibolean espezializatu behar zara ez? Pixkat. Hori ikasteko gogorik ez badau zaila da entrenatzaileak lortzea, ez? Saiatu gea noizbait futbolekin ibili diren entrenadoreekin baina... (Getxoko entrenatzailea)

Zarautzen ere boluntario gisa parte hartu nahi duten jokalariai dira entrenatzaileak. Oraingoan ez dute entrenamenduetarako planifikazio oso zehatza, entrenatzaile bakoitzaren esku geratzen da. Hala ere, hainbat urrats ematen ari dira, eta material teknikoa prestatzen ari dira sartzen diren entrenatzaile berriei aholkuak emateko. Bestalde, Federazioaren bidez formazio saioak ere antolatzen dituzte eta Zarautzen bertan izaten dira. Ikastaro hauek euskaraz izatea nahi izaten dute eta Zarautz Taldeak hala eskatzen ditu. Batzuetan hala izaten da, baina klubeko arduradun batek esan zigun zailtasunak izaten dituztela formazioa euskaraz jasotzeko. Beste kontu bat da Espainia mailako entrenatzaile titulua ateratzea: hori gaztelaniaz egin behar da. Zaramagan ere entrenatzaileen esku geratzen da entrenamenduen prestaketa eta, tarteka, on-line ikastaroak jasotzen dituzte.

Bestelakoa da Realeko egoera. Bertan aritzen diren entrenatzaile guztiek kirol-formazioaz gain, hezkuntza arloan ere ikasketak eginak dituzte. Guk elkarriketatutako entrenatzailea, adibidez, ikasketekin batera, kirol arloko master bat eta Futbol Federazioak antolatzen duen entrenatzaile ikastaroa eginak ditu. Azken ikastaro hau,

⁴⁴ Berezi aipagarria da Zarautzen elkarriketatu dugun Eskubaloitako Taldeko entrenatzailea den Karmele Makatzagaren kasua. Makatzaga ibilbide profesional luzea egin zuen eskubaloitako munduan. Zarautzen hasi zen eta jubenil kategorian zegoela Donostiako Unibertsitariotako taldean jokatzuen lehen mailan. Ondoren, Hernanin zortzi urtez aritu zen ohorezko mailan eta azkeneko bi urtean Bidebietan (oraingo, Bera-Bera taldea). Urte guzti horietan zehar Espainiako selekzioan jokatu zuen: 130 partida jokatu zituen Espainiako selekzioan eta Bartzelonako Olinpiadetan (1992an) taldeko kapitaina izan zen. Eskubaloien praktika utzita entrenatzaile gisa jarraitu du Zarautzen orain arte. Urte gehienak emakumeen lehen taldeko entrenatzailea izan da.

nagusiki euskaraz zela adierazi zigun. Hortaz gain, Realeko entrenatzaileak kontratuarekin lana egiten dute. Nahiz eta, gehienetan, gazteekin aritzen direnak ez dituzte jarduna osoko kontratuak eta beste lan batekin bateratzen duten.

Hori guztia, entrenamenduaren prestaketan islatua geratzen da. Realean lan egiteko modu zehatza dute eta entrenatzerakoan metodologia zehatza jarraitu behar dute:

Guk biali behar degu, normalean asteleheneako, asteko plangintza. Aste osoan egingo deguna. Hiru hiru ziklo desberdin ditugu eta jartze deu ze ziklotan gauden eta ziklo horren barruan ze helburu landuko ditugun. Eta helburu horren barruan ze kontzeptu eta ze indikatzaile izango dian eta ariketak. (Realeko entrenatzailea)

Entrenatzaile izateko arrazoiei buruz galdetuta, elkarrizketatu ditugun entrenatzaile guztiak kirolzaleak direla eta kirol bat baino gehiago praktikatuta izan dutela adierazi digute. Elkarrizketatu ditugu bi emakumezko entrenatzaileak (Aixerrotakoa eta Zarauzkoa) aurretik atletismoa praktikatzear gain, beste zenbait kirolekin harremana izan dute: futbola, surfa, gimnasia erritmikoa... Elkarrizketatu ditugun gizonezkoek ere kirol ezberdinak praktikatuta dituzte, baina nagusiki bi aipatu dituzte: futbola eta esku-pilota.

Elkarrizketatutako entrenatzaileak langintza horretan aritzea gustukoa dutela adierazi dute- Getxoko entrenatzailearen ustez “barrutik betetzen duen prozesua da, haurrak irakastea eta progresioa eta hobekuntza ikustea berezia da”. Antzerako mintzatu zen Zaramagako entrenatzailea: “Disfrutatzen dut asko. Azkenean ikusten duzunean umeak pixkanaka ikasten, ikusten duzu haien hobekuntza, hazkuntza...hor sortzen den harremana umeekin...”. Horregatik, entrenamenduetan giro ona egoten saiatzen dira, alderdi horri ere entrenatzaile guztiek garrantzia ematen diote.

3.3. Kirol izaeraren analisia

Aurretik hitz egin dugu kirolak duen izaera bikoitzaz: ludikotasuna eta lehia. Horiekin batera, eta askotan osagarri, hirugarren esparru bat ere agertzen zaigula aipatu dugu: heziketa alderdia. Eta hiru alderdiak ia kirol-jarduera fisiko guztietan, modu batean edo bestean, batera ematen dira, nahiz eta, kirol antolatzaile eta kudeatzaileen arabera kirol-praktika zehatz bat alderdi batean ala bestean kokatu daiteke. Guk aztertutako

taldeen artean ezberdintasun oso nabarmenak topatu ez baditugu ere, badira aipatzekoak diren hainbat alderdi.

3.3.1. Harrobizko taldea lehiari begira

Real Sociedad futbol taldeetan, *harrobizko taldeak* diren heinean, errendimendua eta lehia oso presente daude. Gipuzkoako (eta maila txikiagoan inguruko lurraldetako) herrietan futboleko hoberen moldatzen diren haur eta nerabeek bertan jokatzen dute. Gazte hauek eliteko futbolariak izateko formatzen dituzte, eta lehia bikoitza batean murgiltzen dira. Batetik, asteburuetan jokatzen dituzten partidetan Reala prestigio handiena duen Gipuzkoako taldea dela erakutsi behar dute. Horren isla da ikerketan parte hartu duen talde baten honako egoera: kadete kategoriako txapelketan jokatzen dute, nahiz eta adinez infantil kategoriakoak diren. Hori egiten joan den urtean hasi ziren, exijentzia maila handitzeko helburuarekin. Talde horren entrenatzaileak esan zigunez: “ez genitun urtean partida lehiatzen. Dena zan 6-0 edo 7-0, 4-0...”. Zaharragon kontra jokatzeak teknikoki eta fisikoki exijentzia handitzen dela ikusten ari dira, eta hori da Realean bilatzen dutena: kirol lehiari begira jokalariai prestatzea.

Bestetik, jokalariai profesionalak izatera iritsi nahi dute eta horretarako gainontzeko gaztetxoekin lehiatu behar dute, baita taldekideak diren horiekin. Entrenatzaile batek hala adierazi zigun “talde bakoitzetik batek lortuko du, agian, profesionaletara iristea. Besteak bidean geratuko dira... eta hori kudeatzea konplikatua da”. Lehia horren kudeaketa konplikatua denez, alderdi ludikoari eta heziketa alderdiari ere erreparatzen diote Realean. Heziketaz arduratzen den pertsona bat dute eta bere esanetan “garrantzi handia du Realerako gazteek ikasketak ez uztea”. Horri begira, laguntza emateaz gain, zigorrak ere erabili izan dute: eskolan jarrera txarra edukitzeak partida baten deialdian ez sartzeko ekar dezake.

Ikerketan parte hartu duten gainontzeko taldeek ere badute lehiari begirako alderdia oso presente, eta aste barruan egiten diren entrenamenduak asteburuetan jokatzen dituzten partidak prestatzeko izaten dira. Dena den, argi ikusi dugu talde hauetako jokalariai ez dutela hain presente eliteko kirolariaren aukera. Agian baten bat iritsiko da, baina Realean aukera hori askoz presenteagoa da. Zarauzko Eskubaloia Taldean hala adierazi ziguten:

Batez ere horrek ezberdintzeigü. Guk talde asko ditugu, ez ditugu jende onenak bakarrik hartzen eskubaloirako . Danak hartzeitugu geo ateakoa, baña eske beste herri askotan iteue talde bat ona ta bestia txarra ta ordun onak geatzeue. Guk e bai igal aukera gehio dakau, bost talde ditugu ta. Gutzat e errexo zan onak hartu ta hoyekin lan in baña... Guk iñorrei eztiyou ezetzik esaten (Zarauzko entrenatzailea)

Hau da, lehiak garrantzia hartzen duen arren, bestelako lehentasunak dituzte, eta horrek laguntzen du alderdi ludikoa presentzia handiago edukitzen.

3.3.2. Jolasa eta jokoaren arteko nahasketa

Itxuraz entrenamendua jolasetik gehiago du jokotik baino. Hala ere, ezberdintasuna erabatekoa ez dela iruditu zaigu. Jolasa da taldekide guztien artean batasuna osatzen dutelako, nolabaiteko disoluzioa dago gaztetxo guztien artean. Baina era berean, nolabaiteko lehia dago euren artean. Entrenatzaileari erakutsi behar diotela ondo jokatzen dutela, gaitasuna dutela asteburuko partida jokatzeko, eta taldekideak baino hobeto jokatuko dutela. Hau dena noski, ezberdina da talde eta konpetizioaren arabera: ez da gauza bera Realean aritzen direnen talde bereko gaztetxoen arteko bereizketa eta lehia, eta Zarautzen aritzen direnen artekoa. Jolas eta jokoaren arteko nahasketa hori Zarautzen entrenamenduak bukatzeko egiten duten ariketan ikusten da:

Entrenamenduaren azken ariketa penalti jaurtiketa da. Jokalarien eta atezainen arteko lehia modukoa da. Golak eta geldiketak zenbatu behar dituzte. Txantxa giroa nagusi da, ez da presio handiko giroa. Karnele barre egiten die atezainei. (Zarautzen behaketa, 2011-11-22)

Joxi eta Ainhoaren taldea entrenamenduaren azken partera iritsi da: penalti jaurtiketak. Txantxa giro erabatekoa da. Jokalariren batek gola sartzen ez badu Joxik barre egiten dio. (Zarautzen behaketa, 2011-11-21)

Entrenatzaile batekin izandako elkarrizketan, dena den, txantxa giro hau lehiarekin lotura ere baduela adierazi zigun. Jolas honen bidez, partidetan oso beharrezkoa duten penalti jaurtiketetan trebatzen dituzte: “Hor batzutan jolas bezela iten det bestetan seriyo. Batzutan ya ba hori ikasteko. Hasieran batzuk eztekie ezta hanka nola jarriber dan”(Zarauzko enterantzailea). Edonola ere, entrenatzaileak jokalaria zirikatzeke uea izaten dela aipatzen du: “Pikatu nayan eo...Karo! beak espabilatzeko!”.

Partidetan jolas gutxiago dago, partida bera lehia garbia da eta nerabeengan presioa areagotzen du. Horrek eragina du jokalaria, entrenatzaile eta ikusleen gorputzetan partida baten une honen deskribapenean islatzen den bezala:

Azken minutuetan urduritasuna da nagusi. Ikusleen artean, entrenatzaileen artean eta baita jokalarien artean. Azpeitiako bankilloan denak zutik daude, Realekoan, aldiz, eserita daude. Armailetatik botatzen diren animo eta agindu oihuak areagotu dira. Nekea ere nabari da eta tarteka jokalarien artean animoak ematen dituzte edo bostekoa elkarri ematen diote. (Zubietan behaketa, 2016-12-17)

Hala ere, partidetan jolaserako tarterik geratzen da. Hona hemen adibide bat:

Bigarren zatia hasi baino lehen Ainhoa jolasean hasi da taldekoekin. Bultza egiten die beraiek gauza bera egiteko eskatuz: punk kontzertuetan antolatzen diren pogo moduko bat da. Partida berriz hasi da eta lehen zatiaren antzera joan da. (Zarautzen behaketa, 2016-11-26)

Bestalde, jolasak entrenatzeko tresna gisa erabiltzen dira. Hau da, lehiari begira erabiltzen dira. Zarautzen, adibidez, entrenamenduaren hasieran harrapaketa jolas ezberdinak egiten dituzte. Halakoetan neska-mutilak jolasean erabat murgiltzen dira eta esamolde labur edo lokuzioak botatzen dituzte, batzuetan txantxa tonotan (“tranpik ez, eh!”, “venga, va, va, va, animo!”, “venga, venga, ostia!”, “kar, kar, kar...”), besteetan haserre (“la ostia!, uain hasi behar dek lotzen?”, kontrolatzen ikasi!”, “ixo, ostia!”, “venga, venga, ostia!”) (Zarautzen behaketa, 2011-11-21). Antzeko egoera topatu dugu Gasteizen entrenamenduetan antolatzen diren jolasetan. Entrenatzailearen ustez, horrelakoetan asko hitz egiten dute.

Ikusi dugunaren arabera, beraz, lehia eta alderdi ludikoa batera ematen dira. Taldea eta unearen arabera batek pisu handiagoa hartzen du, baina esan dezakegu behatu ditugun kirol-jarduera fisiko guztietan, modu batean edo bestean, biak batera ematen direla, eta batzuetan ez da erraza jokoa eta jolasa bereiztea:

Entrenamendua bukatzean da, azken minutuetan gaude. Entrenatzaileak denei aurrera joateko esan die eta saioa amaitzeko “puche” jolasa egingo dutela. Amaiera izan arren entrenatzaileak intentsitatea nahi du eta irabazten duenari Coca-Cola bat emango diola esaten du. Serio dabilta jolasean, lehena eliminatzen asko kostatu da. Hortik aurrera besteak errazago joan dira jokotik irteten. Azkenean, mutil batek irabazi du eta Coca-Cola beretzat izan da. Irabazleak Coca-Cola apur bat eman die denei eta niri ere eskaini dit (Gasteizen behaketa, 2016-11-30)

3.3.3. Harremanak eta sasoi fisikoa

“Kirola zehaztuz” atalean aipatu dugun bezala, lehia eta ludikotasunarekin batera eta askotan osagarri, hirugarren esparru bat agertzen da bi helburuekin lotuta: gorputz-sasoia hobetzea eta harremanak sortzea. Nolabait, pertsonaren garapen fisikoa eta sozialarekin lotuta agertzen zaigu esparru hori haur eta nerabeen kasuan *heziketa* alderdia litzateke. Ez ditugu alderdi honen inguruko aipamen zehatz gehiegirik jaso, baina talde guztietan horren inguruko lanketa bat dagoela nabaritu dugu. Horren adibidea da, Getxoko Aixerrota taldeko entrenatzaileak klubak dituen lehentasunak aipatzerakoan esan zituen hitz hauek: “talde-kirola sustatzea eta euren artean giro ona egotea”. Zarautz eta Ordizia arteko eskubaloï partidan sortu zitzaigun hausnarketa honek ere, nerabeen gorputzak edozein direla ere, sasoi fisikoaren lanketa garrantzia duela erakutsi zigun:

Deigarria egin zait gorputz dinamikak zentroan dagoen jarduera honetan kirolerako “gorputz ez normatibo” batzuk berdintasunean jokatzeko ikustea. Ordiziako taldean oso gorpuzkera ahula duen neska bat dago, korrika egiteko ere modu berezia du. Zarauzko taldeko atezain bat lodia da eta beste jokalaria bat eskuineko besoan arazo bat dauka, ezin du ukondoaren joko osoa egin eta ezkerreko besoa erabiltzen behartzen du. Hala ere, hiru neska hauek besteak bezala parte hartu dute jokoan. (Zarautzen behaketa, 2016-12-4)

3.4. Genero ardatzaren analisisa

Testuinguru soziolinguistikoa, adina, taldeen izaera edo kirol-espezialitate bakoitzaren ezaugarriei gain, bada gure ustez hizkuntza-praktikak aztertzerakoan hartu beharreko beste elementu bat: generoa. Hizkuntza ez da diskurtso, arau, uste eta praktiketatik aparte dagoen egitate autonomoa, eta gizarte egiturek eta agentziek hizkuntzen bizitza bideratzen dute. Bestalde, gizartearen generoaren arabera antolatua dago eta, norbanakoen sozializazio prozesuan “bi sexuen” arabera bereizketa egiten indar eta energia handia erabiltzen denez, esperokoa da horrek hizkuntzaren gizarte erabileran ere eragina izango duela.

Ikerketa lan honetan genero harremanek jokatu dezaketen paperari ere erreparatu diogu. Ez da azterketa sakona izan, baina aurrerantzean garrantzia eduki dezaketen zenbait gako jaso ditugula uste dugunez, labur-labur aipatuko ditugu.

Behatu ditugun talde guztiak *nesken taldeak* edo *mutilen taldeak* dira. Salbuespen bakarra Gasteizko Zaramaga Esku-pilota taldea izan da. Bertan jokalaria guztiak (eta

entrenatzaileak) mutilak badira ere, neska bat ere aritzen da. Urte batzuk daramatza neska honek pilotan eta ez dugu inolako bereizketarik behatu, gainontzeko taldekide moduan aritzen da.

Gauza jakina da gizonen kirol-praktikak gizarte prestigio handiagoa dutela emakumerenak baino. Gure ikerketan horren zantzu batzuk somatu ditugu. Pasadizo honetan ikusten den bezala duela 30 urte oso ezaguna zen futbol jokalaria bat mito bihurtuta dago:

Gaur entrenatzaile guztiek afaria dute. Lagun batek prestatuko die afaria elkarte batean. Lagun horrek baldintza bat jarri zien: Gajate joatea. Gajate entrenamenduetan ibiltzen da eta askorentzat mito bat da, bi Espainiako Liga irabazi zituen Realeko jokalaria zelako. Urte haietan ni ere haur bat nintzen eta guretzat Gajate eta haren taldekideak idoloak ziren. (Zubietan behaketa, 2016-11-18)

Aldiz, eskubaloia arloan sekulako ibilbidea egin zuen emakume bat elkarriketatu genuen eta ez genuen berari buruz inolako aurre-ezagutzarik⁴⁵.

Galdera: Neska zarelako ez zara ezaguna?

Erantzuna: Noski a klaro noski. Eskubaloiko jendea zerbait bai baña bestela ez (...) Ta oain neskana asko meioratuala, prentsan eta hori, baina gu ... ez, vamos!

Bere kontakizunak argi adierazten du kirol-praktiketarako izan dituen oztopoak emakume izateagatik.

Futbolian ez etziguaten utzi mutilen aurka jolasten. Frustraziyo kriston frustraziyoa dakat. Playerotan etziguaten utzi neskai jolasten, esaten genun mutilan aurka berdin zitzaigula. Etzan posible izan gure garaian ez. Orain bai oain neskan liga danetik dao.

Kirol femeninoaren prestigio ezaren beste adibidea Aixerrota taldeko arduradunak kirol espezialitate horren inguruan askotan entzun izan duen espresioa da: “el boley es un deporte de maricones”. Hau da, neskak nagusi diren kirol espezialitatea maskulinitate ezarekin lotzen da horrelakoetan ohikoa izaten den homofobia adierazpen baten bidez.

Bestalde, gazteekin egin izan diren ikerketa askotan ageri izan da adina aurrera joan ahal neskek kirol praktika egiteari errazago uzten diotela. Elkarriketatu genuen

⁴⁵ Karmele Makatzaga ibilbide profesional luzea egin zuen. Zarautzen hasi zen eta jubenil kategorian zegoela Donostiako Unibersitarios taldean hasi zen lehen mailan. Ondoren, Hernanin zortzi urtez aritu zen Ohorezko Mailan eta azkeneko bi urtean Bidebietan (oraingo, Bera-Bera taldea). Urte guzti horietan zehar Espainiako selekzioan jokatu zuen: 130 partida jokatu zituen Espainiako selekzioan eta Bartzelonako Olinpiadetan (1992an) taldeko kapitaina izan zen. Eskubaloiaaren praktika utzita entrenatzaile gisa jarraitu du Zarautzen orain arte. Urte gehienak emakumeen lehen taldeko entrenatzailea izan da.

entrenatzaile batek hala adierazi zigun “neskek denbora gutxiago dute denerako”. Adierazgarria iruditzen zaigu, hala ere, gure ikerketan parte hartu duten emakumezkoen bi taldeetan neska gehiago hartzeko arazoak dituztela ikustea. Zenbaitetan kirol hauek egiteko gogoia duten neskak kanpoan utzi behar izaten dute entrenatzeko instalazio nahikorik ez dutelako:

Ehun da piku ume daude gaur egun, estatu mailan agian txikia izango da baina Euskal Herrian nahiko handia. Ta bueno...ezin gara gehiago hazi ze hemen arazoak daude futbolakin, saskibaloia... ta azkenean garrantzia ematen zaie kirol horiei: pistak hartzeko, materiala hartzeko... zailago dago. Orduan, pista gabe, ezin dira neska gehiago hartu eta zentzu hortan pixkat zailago dago hartzeko (Aixerrotako entrenatzailea)

Zarautzen ere jendea kanpoan utzi behar izaten dute nahiko espazioa ez dutelako entrenatzeko. Bestalde, emakumeen taldearen ibilbide historikoak ere argi adierazten du, kirol emaitza garrantzitsuak lortu arren egin behar izan duten lana ekonomikoki aurrera ateratzeko:

Gu izan giñan aurrenak. Hasi giñan tonto tonto, ta izan zan handikan bi urtea iyo giñan lehenengo mailara. Ta orduan arazua zan diruik ez gendula. Ta kluba, klaro! neskak zeuden nahiko abandonata. Eta jun ber gendun Castroa fasia jolastea eta ez genun diruikan. Ta klubak ba etzekila ze in...(barre). Jun giñan dendaz denda eskean ta atea behar genun hiru eguneako, Castroako asteburuako, ta atea gendun ez dakit zenbat diru geyo! Ta gañea jun da iyo ite gea. Geldtiu giñan txundituta (Zarauzko entrenatzailea)

Genero ardatza gurasoen bileretan ere adierazita geratzen da. Realean, adibidez, ikasturte bakoitzean gurasoekin hiru bilera egiten dituzte: aurkezpen bilera, sasoi erdikoa eta amaierakoa. Jokalari bakoitzaren gurasoekin banakako bilerak dira. Askotan aita eta ama joaten direla esan ziguten, baina bakarria joanez gero aita izaten da. Biak joaten direnean aitek kirol arloez hitz egiten dute eta amek jarrera eta ikasketen inguruan. Ikasturte honetan behin bakarrik egokitu zaie ama bat bakarrik joatea. Eskolen guraso bileretan alderantziz gertatu ohi da.

Hizkuntza-praktikei dagokionez, esan behar da neska eta mutilen artean hitz egiteko ezberdintasun batzuk jaso ditugula. Hurrengo atalean horietako batzuk ikusi ahal izango dugu, baina oro har neskek baxuago hitz egiten dutela ikusi ahal izan dugu. Mutilek berriz, orokorrean, buila eta zarata handiago ateratzen dute.

3.5. Hizkuntza-praktiken analisia

Ilun dago. Entrenamenduaren giroa lasaia da, entrenatzaileak isiltzen badira baloien kolpeak besterik ez dira entzuten: txut! txut! txut!... Baita Zubieta ondoan pasatzen den Irun-Madril errepidearen trafiko ugaria ere. Nire atzeko zuhaitzetatik txori bakarti baten txio ozena aditzen da... euskararen txatxangorria izango ote da?
(Zubietan behaketa, 2016-12-02)

Ikerketa honetako protagonistek (entrenatzaileak eta gazteak, batez ere) erabiltzen dituzten hizkuntzen inguruko azterketa egiteko garaian, hizkuntza-praktikei buruz hitz egingo dugu. Horretarako, praktika-komunitatea kontzeptutik abiatuko gara hizkuntza gizarte egiturekin harremanetan jartzeko asmoz (Hernandez, 2008:35). Aurretik esan den moduan, praktika-komunitatea kontzeptuak norbanakoak bere bizitzan komunitate anitzetan parte hartzen duela onartzetik abiatzen da eta gu aztertzen ari garen esparruan oso erabilgarria dela iruditzen zaigu. Izan ere, eskubaloia, futbol, pilota edo bolei taldean parte hartzen duten gazteek beste komunitate batzuetan ere parte hartzen dute, baina argi dago kirol talde horietan parte hartzerakoan komunitate horren partaide (ere) sentitzen direla. Gainera, talde hauetan partaide izatearen sentimendua indartu egiten da kirolak dituen jolas eta lehia izaerengatik. Taldeko gainontzeko nortasun ezaugarriekin batera hizkuntzarena ere oso kontutan hartzekoa izango da, eta horregatik talde zehatz bakoitzean aktibatzen diren hizkuntza-dinamikak ulertzeko hizkuntza-praktikak jasotzea oso interesgarria zaigu.

3.5.1. Zenbat eta zer hizkuntzak

Aurretik aipatu dugu zein den ikerketa honetarako aukeratutako gune bakoitzean hizkuntzaren erabilera orokorra. Jarraian, kirol talde hauetako eragile bakoitzak dituzten hizkuntza-praktikak aztertuko ditugu. Horretarako, bost multzo osatu ditugu: entrenatzaileak, gazteak, ikusleak, bestelako langileak eta epaileak.

a. Entrenatzaileak

Entrenatzaileak erreferenteak direla aipatu izan dugu. Horregatik, ikerketa honetan erdigunean jarri ditugu eta, batez ere, euren hizkuntza-praktikei erreparatu diegu. Zenbait ezberdintasunak topatu baditugu ere, orohar, behatutako entrenatzaile gehienek kirol-jardueretan euskaraz egiteko joera dutela ikusi dugu.

Gasteizko Zaramaga esku-pilota taldeko entrenatzaileak ia erabateko jarduna dute euskaraz. Gazteei azalpenak, aginduak edo animoak emateko euskara erabiltzen dute baita euskaraz dakiten gurasoei ere. Gazteen hizkuntza-praktikak etengabe gaztelaniaz diren arren, entrenatzaileak euskarari eusten diote. Partidetan, beste taldeetako entrenatzaileekin euskaraz mintzatzen direla aipatu zigun Zaramagako entrenatzaileak: “umeen aurrean batez ere”.

Real Sociedad taldean jasotako hizkuntza-praktika orokorra laburbiltzeko behaketaren bigarren egunean behatzaileak idatzitako esaldi hau erabili dezakegu: “giroa ez da erabat euskaraduna, baina euskara dezente entzuten da”. Gazteekin lana egiten duten entrenatzaile guztiak, bi ezik, euskaraz egiteko gaitasuna dutela adierazi ziguten. Guk bi talde aztertu ditugu eta horietako bakoitzean hiruna entrenatzaile aritzen dira: lehen entrenatzailea, bigarren entrenatzailea eta atezainen entrenatzailea. Bi taldeen lehen entrenatzaileak euskaraz aritzen dira etengabe. Esanguratsua da bi taldeetan Euskal Herrian bizi ez diren gaztetxo bana dituztela, baina horrek ez du eragiten entrenatzaileen jarduna gaztelaniaz izatea. Talde osorako hitz egiten dutenean, lehendabizi euskaraz mintzatzen dira, ondoren ulertzeko gai ez diren gaztetxoei laburpena gaztelaniaz egiteko. Antzeko egoera bat deskribatu digute Getxoko Aixerrota taldean:

Seniorrean batzutan etortzen dira kanpotarrak, Italiarrak ta hola. Iñaki entrenatzaileak azalpena ematen du euskeraz eta gero apartatzen du pertsona hori eta azaltzen dio, baina beti, beti, beti azalpenak euskeraz. Ta gero normalean ere bai, batzutan, hitzak soberan daude, ta ikusten duzu nola egiten den ariketa eta gero jarraitzen duzu azalpena ulertu ez arren ez? Baina bueno, hori zerbait.. azaldu behar bazen edo apartatzen da pertsona hori azalpena ematen zaio eta badoa. (Getxoko entrenatzailea).

Dena den, Realean behatu ditugun entrenatzaile guztiek ez dute hizkuntza-dinamika bera. Ikerketan parte hartu duen talde baten bigarren entrenatzailearen jarduna gaztelaniaz da ia erabat. Lehen behaketan ohartarazi zigun hala egiten zuela “euskaraz ez naizelako ondo moldatzen”, nahiz eta lehen entrenatzaileak zuzendu egin zion: “esaten duena baino hobeto moldatzen da”. Edonola ere, entrenamenduetan gaztelaniaz zuzentzen zituen egin beharreko ariketak, tarteka euskarazko hitz edo

esaldiren bat sartuta. Atezainen entrenatzailetako bat ere gaztelaniaz egiteko joera handia erakutsi zuen, bestea, ordea, dena euskaraz egiten zuen.

Zarauzko entrenatzaile guztiak (behatutako bi talderenak eta entrenamenduetan entzun ditugun beste taldeen entrenatzaileak) euskaraz aritzen dira. Euren jarduna osoa euskaraz da eta ez dute inolako unean hizkuntza aldatzen. Gehienez, eskubaloiko hitz edo esamolderen bat gaztelaniaz adierazten dute baina horrek ez du elkarriketa erdalduntzen. Talde handian, talde txikietan edo banakako elkarriketetan entrenatzaileak euskaraz behatu ditugu.

Getxoko Aixerrota taldeko entrenatzaileak euskaraz aritzen dira, batzuk irakasleak dira eta gaitasun ona dute hala egiteko; irakasle ez direnak ere euskaraz eroso aritzen dira. Entrenamenduetako ariketen azalpen guztiak euskaraz dira, baita iruzkin eta aholku nagusienak ere. Animoak, errita edo agindu espresioak tarteka gaztelaraz esaten dituzte eta entrenatzaile batek ere horretaz ohartarazi digu. Esamolde hauek entrenamenduetan hartzen duten garrantzia kontutan hartuta, esan daiteke nagusiki euskaraz egiten dutela, baina gaztelera ere entzuten dela Getxoko bolei talde honen entrenatzaile batzuen ahotan.

Behatutako partidetan egoera ezberdinak topatu ditugu. Realak eta Azpeitiko Ikasberri taldearen aurkako partidari bi talderen entrenatzaileak euskaraz aritu ziren nagusiki. Eskubaloian behatutako Ordiziako partidari ere entrenatzaileen jarduna euskaraz izan zen, baina Errenteriako partidari Ereintza taldeko entrenatzaileak gaztelaniaz aritu ziren. Hasteko esan beharra dago ez dugula partida eta entrenamenduen artean ezberdintasun handiegirik jaso⁴⁶. Edonola, entrenamenduetako hizkuntza-praktikak eta partidatxoak berdintsuak direla esan dezakegu arbel egiteko beldurrik gabe. Giroa ezberdina izanagatik eta gaztelaniaz aritzen den talde baten aurka jokatzegatik, Zarauzko taldeak, adibidez, euskararen erabilerari eusten dio. Realeko entrenatzaile eta gazteen hizkuntza-praktikak ere berdintsuak dira entrenamenduetan eta partidetan.

Gauza jakina da hizkuntza baten erabileran gaitasuna giltzarria dela, eta ikerketa honetan ere entrenatzaileen gaitasunak garrantzia handia duela ikusi ahal izan dugu.

⁴⁶ Partida gutxi behatu ditugu (futboleko bat eta eskubaloiko bi), baina entrenatzaileen elkarriketetan ere hori agertzen zaigu.

Euskaraz egiteko eroso sentitzen diren entrenatzaileen jarduna askoz handiagoa dela ikusi dugu. Realean, adibidez, lehen entrenatzaileak zirenak ia denbora osoan euskaraz aritzen ziren arazorik gabe, gaitasuna ahulago duten perzibitzen duten entrenatzaileak, ordea, euskara oso gutxi erabiltzen dute. Zarautzen ere oso argi geratu da hori. Behatu ditugun entrenatzaileak gaitasun eta ohitura handia dute euskarazko erregistro ezberdinetan aritzeko. Kirol jardueretan euskaraz aritzea, hortaz, eroso zaie.

b. Gazteak

Nerabeen artean behatu dugun egoera bestelakoa da. Alde handiak nabaritu ditugu Zarautz (euskarazko erabateko jarduna) eta beste taldetako gazteen artean.

Realeko gazteen artean bi hizkuntzak entzun ditugu baina ez maila berean. Azpimarratzekoa da elkarriketa gutxi jaso ditugula, entrenamenduetan eta partidetan gazteen artean hizketaldi gutxi izaten baitira. Erabiltzen dituzten esamolde motz asko gaztelaniaz dira: “Corre!” “Bien!”. “Que ídolo!”, “No lo había visto!”, “Yo tampoco”, “buena!”, “banda!”, “empieza!”. Atezainak dira gehien hitz egiten dutenak eta hauen hizkeran ere gaztelania nagusitzen da. Entrenamenduen amaieran ere sortzen diren elkarriketetan euskara erabiltzen badute ere, gehienbat gaztelaniaz ari dira “Azkeneko gola sartu dut” “Pasa la botella” “Llevas balones? “Yo lleve ayer”, “Hau guria da?”. Entrenatzaileek adierazi digutenez, hizkuntza-ohitura eta hizkuntza-gaitasuna ezberdinak dituzten jokalariai dituzte. Batzuekin euskaraz egitea komeni zaie esan nahi dieten mezuak hobeto ulertzeko, beste batzuk gaztelaniaz hobeto moldatzen dira, eta, aurretik aipatu dugun bezala, gutxi batzuk ez dakite euskara.

Zarauzko jokalarien jarduna ia erabat euskaraz da. Entrenamendua hasi aurretik eta amaitzerakoan jaso ditugun gazteen arteko elkarriketa informalak euskaraz ziren. Beroketa ariketak egiten dituzten bitartean ere binaka edo hirunaka hitz egiteko aukera dute eta halakoetan ere euskaraz aritzen dira. Entrenamenduetan antolatzen diren jolas eta bestelako ariketetan euskaraz komunikatzen dira, entrenatzailearekin eta baita euren artean ere. Salbuespen bakarra jaso dugu. Nesken taldean atezain bat tarteka gaztelaniazko esamoldeak botatzen zituen: “a que te doy?”, “qué dices?”, “casi me salgo de la portería!”, “faltan dos” “Quince-once, ganamos nosotras”. Badirudi ez duela besteek bezain besteko ohitura euskaraz egiteko, baina ez du arazorik euskaraz

egiteko eta beste inork ez du hizkuntza aldatzen beragatik. Entrenatzaileak adierazi zigunez, horrelako kasuak tarteka dituzte, baina euskaraz egitea lortzen dute.

Getxoko jokalaria gazteen artean euskararen erabilera ez da handiegia. Batzuk gaztelania besterik ez dute erabiltzen, eta euskara erabiltzen dutenen artean bi hizkuntzak nahasten dituzte. Ez daude euskara hutsezko elkarrizketak. Entrenatzaileekin, dena den, euskaraz egiteko joera handiago dute. Entrenatzaileek adierazi digutenez, neska guztiek euskaraz hitz egiteko gaitasuna dute : “euskara ondo menperatzen dute, baina erabilera ez da hain handia”. Elkarrizketatutako entrenatzaileak gaztelaniaz hitz egitearen arrazoia etxeko hizkuntza dela uste du: “ume batzuk erdera dakarte etxetik eta zailagoa da haiekin euskeraz egitea”. Horretaz konturatu gara, entrenamendu ondoren kiroldegiko janari eta edari makina baten ondoan geratzen diren tartean. Bertan, erlaxatuagoak daude, entrenamendu saioan baino aukera handiago dute solasaldi luzeagoak sortzeko eta elkarrizketa hauek gaztelaniaz dira.

Gasteizen ere, nerabeen jarduna ia erabat gaztelaniaz da. Entrenatzaileei zuzentzerakoan batzuk ahalegina egiten dute eta euskaraz hitz egiten dute edo euskaraz erantzuten diete, adibidez:

Entrenatzaileak ume bati ea partidak zenbatera egingo dituzte galdetzen dio eta honek euskaraz erantzuten dio: “Hamarrera!”(Gasteizen behaketa, 2016-11-28)

Hau da, entrenatzaileen elkarrizketa gidatzen dutenean jokalarien euskarazko jarduna zertxobait handitzen da. Noranzkoa aldatzen denean, gazteak inizatiba hartzen duenean entrenatzaileari zerbait esateko, gaztelania gehiago erabiltzen dute:

“¡Da igual!” esan dio entrenatzaileari, eta jarraian kexaka jarraitu du “¡Si! ¡Benga!. ¡Benga tu!. ¡No ha pasau!”, “¡No vale!” (Gasteizen behaketa, 2016-11-28).

Baina ez beti:

Gazte batek pilotaren sarea zein zenbakitik egin behar duten galdetzen dio entrenatzaileari euskaraz: “Hirutik, hirura?”, “Bi eta erditik, hirura?” (...) hortik gutxira, beste gazte batek entrenatzaileari “Ni norekin? Horrekin?” galdetu dio. (Gasteizen behaketa, 2016-11-30).

Gasteizen gaztetxoen artean, denek euskara ezagutu arren⁴⁷, ez dugu euskarazko solasaldirik edo erabilerarik jaso. Adibidez, jolas edo ariketetan euren arteko hartu-emanak gaztelaniazko esamolde motzen bidez dira:

Talde honek hasteko harrapaketa jolas bat egin behar du. Umeek beraien artean hitz egiten dute, ez daude ixilik eta, “Vamos a por Unai!”, “Esta ahi!”, “Ven aquí!”, “Orejotas!” bezalakoak entzun ditut. Entrenatzailea beraiei begira dago eta azalpen edo laguntzaren bat eman behar badie euskaraz ematen die: “Baten bila joan!” (harrapatzeko). Umeen aldetik, bestalde, “No vale!”, “Hasta el cuatro!”, “¡Pero que haces!”, “¡A mi no me han pillau e!”, “¡Oye! ¡Eso no vale!” (Gasteizen behaketa, 2016-11-28)

c. Ikusleak/gurasoak

Partidetan eta entrenamenduetan egoten diren ikusleen jarraipena egitea ez da ikerketa honen xede garrantzitsu bat, baina aipagarriak iruditu zaizkigun aspektu batzuk azalduko ditugu. Oro har esan daiteke ikusleen artean euskara gutxiago entzun dugula entrenatzaile eta gazteen artean baino. Realeko entrenamenduetan guraso gutxi topatu ditugu eta gutxi horiek gaztelaniaz entzun ditugu. Zaramagan guraso batzuk egoten dira entrenamendu saioetan kantxa aldeko atzeko bankuetan eserita. Ez ditugu beraien arteko solasaldiak behatu baina tarteka amen eta entrenatzaileen arteko solasaldiak eman dira. Batzuk gaztelaniaz izan dira, baina euskarazkoak ere behatu ditugu. Entrenatzaileak azaldu zigunez: “Gurasoekin saiatzen naiz beti lehen hitza euskeraz egiten, eta gero ba ikusten badut beraiek erderara jotzen dutela edo ez dakitela euskeraz ba erderara pasatzen naiz”. Getxon eta Zarautzen gurasoak ez dira entrenamenduetan egoten.

Partidetan, Realeko zaleak (jokalarien familiarrak gehienbat) nagusiki gaztelaniaz ari ziren eta partida horietan askotan egoten den ikusle batek hala ziurtatu zigun: “gurasoak %100 gaztelaniaz...%100, eh?, ez %98 edo %99, ez: %100”. Zarauzko ikusleen artean ere jokalaria eta entrenatzaileen artean nabaritu dugun euskarazko giroa jaso dugu. Ez ditugu Zarauzko gurasoen elkarrizketa askorik jaso, baina entzun ditugun animo oihiak euskaraz ziren: “Venga, defentsa hori!”, “Hoi da, hoi da”, “Eutsi! Hor, hor...”. Partidetako beste taldeetako gurasoen artean denetatik topatu dugu: Errenteriako jarraitzaileak gaztelaniaz nagusiki, Ordiziakoak eta Azpeitiakoak

⁴⁷ Entrenatzailearen ustez “Euskera, ulertu eta hitz egin guztiak dira kapaz. Batzuk ba maila gehiago edukiko dute, beste batzuk gutxiago baina bai”

euskaraz, baina halakoetan ere gurasoen arteko elkarrizketa batzuk gaztelaniaz jaso ditugu: “¿Qué fichaje la portera!”, “Es buena eh?” (Zarautzen behaketa, 2016-12-04).

d. Epaileak

Epaileak entzuteko aukera handirik ez dugu izan. Eskubaloiko bi partidetan euskaraz aritu ziren baina Zarauzko entrenatzaileek esan zigun askotan ez dela horrela izaten. Egia esan, konturatu gara epaileek gehiegi ez dutela hitz egiten, agindu asko txilibitu eta keinuen bidez ematen baitituzte.

Entrenatzaileekin izandako elkarrizketetan epaile askok euskaraz ez dakitela adierazi digute. Zenbait kiroletan (bolein adibidez) zaila omen da epaileak topatzea, eta horrek zailtzen du euskaraz dakiten epaileen presentzia. Eskubaloian ere euskaraz ez dakiten epaile asko omen dago, eta adinarekin lotutako kontua dela esan ziguten: epaile gazteek euskaraz dakite, helduek ez. Gainera, eskubaloiko epaileen formazioa gaztelaniaz da, horren arduraduna euskaraz ez baitaki. Arabako esku-pilotan, halaber, epaileak ez dira normalean gazteak izaten eta euskaraz ez dakite.

Gipuzkoako futboleko denetatik topatzen dela adierazi ziguten. Guk behatutako partidako epailea euskaraz aritu bazen ere, aurreko hiru edo lau partidetan erdaraz hitz egiten zuten epaileak egon zirela aipatu ziguten. Federazio mailan ez dago horretarako hizkuntza-ezarpenik: epaile bakoitzak hitz egiten du nahi duen moduan (gaztelaniaz edo euskaraz), euren esku geratzen da

e. Beste langileak, boluntarioak...

Klubetan aritzen diren bestelako langileak edo arduradunekin ez gara egon ikerketaren xede-taldea ez zirelako. Realean beste hainbat langileren edo kolaboratzailearen jarduna behatzeko aukera izan dugu. Horietako bat heziketa arduraduna da, berarekin denbora tarte bat egoteko aukera izan genuen, eta nagusiki euskaraz aritzen dela jaso ahal izan dugu. Realeko gazte guztiekin harremana du eta denak euskaraz zuzentzen zatzaizkio.

Zarautzen eta Getxon klubeko arduradunak euskaldunak dira. Bolondres lana bidez kudeatzen diren klubak direnez ez dituzte kontratupeko langileak. Gasteizen jokalarien gurasoek eramaten dute kluba modu boluntarioan eta euskaraz dakitenak eta ez dakitenak daude.

3.5.2. Hizkuntza-mudantza

Honako hau nerabeekin egindako ikerketa denez hizkuntza-mudantzarekin lotutako elementuak jasotzea interesekoa iruditu zaigu, nahiz eta ikerketaren ezaugarriengatik gauza handirik ez den atera. Joan Pujolar-ek erabiltzen duen hizkuntza-mudantzak (*mudes lingüístiques*) kontzeptua⁴⁸ oinarritzkoa izango da. Gure kasuan, gaztetxoek aldaera berria (hizkera, hizkuntza, erregistro...) bereganatzen duten momentuari erreferentzia egingo lioke.

Izan ere, Euskal Herrian azken urteetan egindako datuen bilketek eta hizkuntza aztertzen dutenen azterketek egitate bat erakusten dute: haurtzarotik nerabearora pasatzerakoan euskararen erabilera jaitsiera nabarmena ematen da. Eusko Jaurlaritzak eta Soziolinguistika Klusterrak egindako 2011ko Arrue ikerketaren arabera ikaskideen arteko gela barruko erabilera irauli egiten da: 9-10 urtekoen artean beti euskaraz edo euskaraz gaztelaniaz baino gehiago %60k egiten badu ere, 13-14 urtekoen %60k beti gaztelaniaz edo gaztelaniaz euskaraz baino gehiago egiten du. Beraz, interesgarritzat jo dugu hizkuntza-mudantza horri ikerketa honetan erreparatzea.

Zarautzen ikusi dugunaren arabera, jokalaria hizkuntza-mudantza adinean daude baina ez eskubaloian aritzen direnean ez dugu horren zantzurik jaso. Gasteizen gaztetxoek ez dute apenas euskararik erabiltzen baina ez dugu nahiko elementurik adinaren arabera konparazioa egiteko. Getxon ere antzeko egoera ematen da baina Aixerrrotako entrenatzaileak mudantza ematen dela deskribatu zigun:

Konturatu naiz txikiagoak direnean, bejaminekin ta hola, pixkat emozionatuta daude euskerakin ez?. Ta euskeraz egiten dizute ta errezagoa da, haiei euskeraz entzutea eta hola. Gero nagusiago egiten dia eta zailagoa da..., gero pixkat hizkuntza hori ez dute galtzen, baina haien artean hitz egitean erdera erabiltzen dute, normalean...gehiago. Kasuak daude, baina bueno! (Getxoko entrenatzailea)

Realeko entrenatzaileek ez dute nabaritzen hizkuntza-praktiketan adinaren arabera ezberdintasunik, baina Zubietan aritzen diren jokari gazteenak 12 urtekoak direnez, ez dute haurtzarotik nerabearora aldaketa ematen den jakiteko elementurik.

⁴⁸ Emprem el concepte de “muda lingüística” per referir-nos tant als canvis com a les permanències lingüístiques que es troben en qualsevol contemplació dinàmica dels usos lingüístics, és a dir, en la comparació entre els usos lingüístics en dos àmbits o camps relacionals o en dos moments diferents (Pujolar et al. 2010).

3.5.3. Hizkuntza-alternantzia eta kode-aldaketa

Hizkuntza-alternantzia eta kode-aldaketa hizkuntza ukipen testuinguruetan beti agertzen den fenomeno bat da. Garatu dugun ikerketaren helburua ez da honen inguruko azterketa bat egitea, baina azterketan agertu denez labur-labur fenomeno zer den azaldu nahi izan dugu.

Jean-Baptiste Coyos-ek “Soziolinguistika Eskuliburua”-n idatzitako “Hizkuntza-Ukipena” kapituluak dio hiztun talde batek bi hizkuntza ezagutzen dituen edo erabiltzen dituenean, hizkuntza horietan eraginak izan daitezkeela. Izan ere, elebidunen kasuan, hizkuntza-alternantzia fenomenoak ematen da, hau da, bi hizkuntzak erabiltzeko joera. Bi motatakoa izan ohi da: alternantzia situazionala, egoera ezberdinen arabera gertatzen den hizkuntza-alternantzia; eta kode-aldaketa (code-switching), berbaldi berean hizkuntza bat baino gehiago txandakatuz hitz egitea (Coyos, 2010:145). Kode-nahasketa esaldi berean hizkuntza bat baino gehiago erabiliz hitz egitea da; adibidez esaldi bat euskaraz hasi eta erdaraz amaitzea. Kode-alternantzia esaldi batetik bestera hizkuntza aldatzea da; adibidez elkarriketa batean euskaraz agurtzea eta ondoren erdaraz aritzea. Coyosek, Uriel Weinrich-i jarraituz, (ibid.:146) ohartarazten digu interferentzia kontaktuan dauden bi hizkuntzetan izan daitezkeela baina praktikan, gehienetan interferentziak norabide berean gertatzen direla, gehiengotik gutxiengora. Euskal Herriko kasuan interferentzien bidez erdaretatik euskararako transferentziak gertatzea da ohikoena.

Gure behaketetan kode-nahasketa jaso dugu. Realeko bi entrenatzaileraren artean adibidez, baloiak jasoetako unean jolas moduko bat erabiltzen dute eta honelako esaldiak jaso ditugu: “Ikusi, ikusi... hoy no la he clavado!”. Getxon ere entrenatzaileen artean oso ohikoa da esaldi bat euskaraz hasi eta gaztelaniaz bukatzea. Bertan euskara erabiltzen duten gazteen artean ere kode-nahasketaren joera oso nabarmena da: euskara eta gaztelania nahasten dute, nagusia den gaztelaniazko giro batean. Gasteizen eta Zarautzen kode-nahasketarik apenas jaso dugu, gazteen artean ia erabat gaztelaniaz (Gasteizen) edo euskaraz (Zarautzen) aritzen baitira.

Testuinguru formalago batean hizkuntza-alternantziaren adibidea da Real Sociedad taldean heziketa emozionala landu zuten saioa: “Espero que esteis dispuestos a hacer

teatro, antzerkia egiteko prest?” (Realeko psikologoa, 2016-11-18). Hala ere, saioa aurrera joan ahala euskararen presentzia gutxitu zen eta azalpen gehienak gaztelania hutsez izan ziren. Bestalde, partidetakoa lehiaren ondorioz sortzen den tentsioak kode-alternantziak areagotu dezakeela nabaritu dugu:

Entrenatzaileek euskaraz ari dira nagusiki baina une batean Azpeitiako entrenatzaile bat haserretu da bere taldeko gazte batekin eta hala esan dio “ El es así, tú eres así...” Adierazi nahi dio askoz altuagoa dela eta ezin diola utzi baloia buruz kentzen. Beste batean ere “está en fuera de juego!” edo “Ostia! El puto balón!” oihukatu du. Gehienbat euskaraz egiten badu ere, nabaritzen zaio tentsioarekin edo haserrearekin erdarara pasatzeko joera (Zubietan behaketa, 2016-12-17)

Gaztelania eta euskararen arteko kode-aldaketa nabarmen honekin batera, tarteka ingelesezko zenbait esamolde edo hitzekin nahasketa ere jaso dugu. Getxoko Aixerrota taldean adibidez, lokuzio gutxi batzuk ingelesez erabiltzen dituzte: “Out!” (baloia kanpora ateratzen denean), “Match Ball” (partida irabazteko jokaldia adierazteko) edo “Free ball”.

3.5.4. Kluben hizkuntza-estrategiak eta kudeaketa

Ikerketan parte hartu duten kirol klubek ez dute hizkuntzarekin lotutako plangintza zehatzik garatu. Esan daiteke, talde guztietan euskara biziberritzearen aldeko jarrera dagoela eta horretarako hainbat tresna garatzen dituztela, baina orohar ez dago horri begirako kudeaketa planik.

Real Sociedad Fundazioaren egungo arduradunen aldetik euskararen erabilera sustatzeko interesa eta nahia dago baina, hala ere, lanketa, oraingoz, entrenatzaile bakoitzaren esku geratzen da: “pixkat libre geratzen da, bakoitzak erabakitzen du nola” (Realeko entrenatzailea). Realeko arduradunekin izan genuen bileran gazteen entrenatzaileak hautatzeko erabiltzen dituzten hiru irizpideak aipatu zizkiguten: euskaraz jakitea, heziketa arloko formazioa edukitzea eta futbolaz jakitea. Eredu interesgarria izan daiteke, batez ere Euskal Herriko egungo hezkuntza sisteman euskara oso txertatua dagoelako: ziur aski, euskara gehien erabiltzen den esparrua hezkuntza da.

Bestalde, erakunde gisa Realak hainbat jarduera puntualak egiten ditu euskararen praktika soziala sustatzearen alde dagoela publikoki azalduz. 2016ko euskararen

egunari begira, adibidez, bideo bat prestatu dute eta sare sozialetan zabaldu dute⁴⁹. Egun horri begira, bestalde, sinbolikoak diren hainbat ekimen txiki ere prestatzen dituzte, kafe-makinaren kafea eta txokolatea doan izatea, esate baterako. Kanpora begirako komunikazioak bi hizkuntzetan izaten dira: prentsa-aurrekoetan, sare-sozialetan, bileretan...

Estrategia zehatzei dagokionez, ikusi dugu nola Realeko entrenatzaile batzuk euskara lehenesten dute jokalariren batek euskara ez ulertu arren. Ez da beti hala gertatzen, ordea, eta horren adibide da lehen behaketan ikusi ahal izan nuen heziketa-emozionaleko saioa. Horretaz arduratu zen psikologoak bi hizkuntzak erabiliko zituela adierazi zuen “taldekide bat Errioxakoa delako” eta hala hasi zen: “espero que esteis dispuestos a hacer teatro, antzerkia egiteko prest?”. Hala ere, eta aurretik deskribatu den moduan, saioa aurrera joan ahala euskararen presentzia gutxitu zen eta azalpen gehienak gaztelania hutsez izan ziren.

Zarautzen ez dugu plangintza edo estrategia kontzienterik jaso. Euskaraz aritzeko ezer berezirik ez dutela egiten esan digute; “natural” egiten dutela eta ez dela planifikatuta dagoen ezer. Dena den, entrenatzailearekin izandako elkarriketan jaso genuen, beste zenbait sozializazio alderdiekin batera, hizkuntzaren arloan entrenatzaileen autoritateaz baliatzen diela: “Nik ikusten erderaz seituan mozteiet” edo “Watsapan ta hola, erdi erderaz jartzen baie seituan jartzeiet: a ver zer da hau?”. Beste herrietako taldeekin edo epaileekin izaten dituzten harremanetan ere jarrera proaktiboa dutela diote: “Nik esateizut nik baldinbakit euskeraz dakila euskeraz ingoiot”, eta behatu ditugun partidetan hala dela baieztatu dugu.

Zarauzko egoera linguistikoari egozten diote eskubalo klubean dagoen hizkuntza-praktika, eta herriko beste kirol taldeetan ere gauza bera gertatzen dela diote. Entrenatzaileak hartzerakoan euskaldunak izatea ez da derrigorrezko baldintza, baina guztiak herrikoak direnez ia denak euskaldunak izaten dira⁵⁰. Hau ez da beti horrela izan, duela 30 bat urte entrenatzaile erdaldun gehiago zeuden, baina aspaldi aldatu omen zen egoera.

⁴⁹ Twitter-en bidez, adibidez, euskarazko eta gaztelaniazko kontuetan zabaldu zuten:
<https://twitter.com/RealSociedad>

⁵⁰ Une honetan euskaraz hitz egiten ez duen entrenatzaile bakarra dute. Kontutan hartu behar da urtero 30 bat talde osatzen dituztela eta talde bakoitzean bi entrenatzaile egoten direla.

Getxoko Aixerrota taldearen abiapuntuak garrantzia duela uste dugu. Aixerrota instituan sortutako taldea da, eta oso argi dute “talde euskaldun” bat dela, hau da, euskara klubaren nortasunaren oinarritzko elementua dela hala sortu zelako “kluba euskaraz sortu zen” (Getxoko entrenatzailea). Alde horretatik, interesgarria iruditu zaigu klubeko arduradunen eta sortzaileen erreferentzia duen garrantzia. Getxoko entrenatzailearen hitzetan:

Klubean euskeraz. Bai, ze aber azkenean da, Alberto ta Iñaki taldea...kluba mugitzen dute, eta Asier ere bai dago hortik. Kluba mugitzen dute ta euskaraz egiten dute beraien artean, ta hori guri transmititzen digute, ta bilerak egiten dutenean euskaraz ibiltzen gea. (Getxoko entrenatzailea)

Hizkuntza plangintza zehatza ez duten arren, eta entrenatzailea izateko euskaraz jakitea derrigorrezko baldintza ez den arren, adostuta dute klubeko hizkuntza euskara dela eta euskaraz egin behar dutela: “Sin más, plangintza bai: euskaraz egitea. Euskaraz egitea da ideia, ta punto” (Getxoko entrenatzailea). Entrenatzaileek, beraz, erabiltzen duten estrategia nagusia beti euskaraz egitea da:

Batzuk egiten dutena da “Ez dizut ulertzen”(esatea), txikiak direnean bereziki. “Ez dizut ulertzen” baina azkenean, nik uste, hori euskerari gorrotoa hartzeko aukera bikaina dela. Osea ez dizut ulertzen eta benga euskeraz eta benga euskeraz errepikatzea. Guk egiten duguna da: erderaz egiten dizu? Bale, zuk euskeraz jarraitzen duzu ta lixto. Ta berak, umeak, azkenean ulertzen du zuri euskeraz egin behar dizula eta zuzenean aldatzen du txip-a, ze ez dago eroso erderaz egiten ez? (Getxoko entrenatzailea)

Euskaraz egitearen aldeko hautu honek ez du soilik gazteengan eragiten. Entrenatzaileek adierazi digutenez, euskaraz ezagutzen duten gurasoak entrenatzaileengana euskaraz zuzentzen direla: “dakitenak guri euskaraz egiten digute”.

Zaramagan ere, entrenatzaileek erabiltzen duten estrategia nagusia gaztetxoekin beti euskaraz egitea da. Horrekin batera, gurasoekin lehen hitza euskaraz egiten saiatzen dira. Esan bezala, jokalariek nagusiki erdaraz egiten dute, baina entrenatzaileak ez diete euskaraz egiteko agintzen, ez baitute uste hori estrategia egokia denik:

Ez zait ateratzen barrutik *euskeraz*, *euskeraz*, *euskeraz* (umeei hitz egiteko esateko). Azken finean nik uste, ikastolan dabiltzala hor atzetik *euskeraz egin*, *euskeraz egin...* esaka, ta pelotara etorrita ere... Azkenean, euskeraz hitz egitea ez da ateratzen agintzen dizutelako. Ateratzen zaizu barrutik edo ez zaizu ateratzen. (Gasteizko entrenatzailea)

Klubeko arduradunek entrenatzaile berriei adierazten diete euskaraz dela erabili behar duten hizkuntza “garbi uzten zaio ba umeekin beti euskaraz hitz egin behar duela eta entrenatzaileak beraien artean umeen aurrean ere” (Gasteizko entrenatzailea).

3.6. Komunikazio formen analisia

“Hitz egin behar dugu konstantemente!”. Hala adierazi zien bere jokalariei Real Sociedad taldeko entrenatzaile batek. “Hitz ein!, hitz ein!. Atzen gaudenak hitz ein behar deu, bestela ezin da ezer ein!”, esan die Zarauzko entrenatzaileak bere taldeko jokalariei. Izan ere, talde kirolean komunikazioa oso garrantzitsua da. Jokalarien artean komunikazio zuzena eta etengabekoa edukitzea kirol emaitzarako sekulako abantaila da. Horregatik, entrenamenduetan lantzen den arlo garrantzitsua izaten da, eta adinean gora joan ahala handitzen eta hobetzen den kontua da. Dena den, gure behaketetan ikusi dugunaren arabera jokalarien arteko ahozko jarduna ez da oso nabarmena. Jokalariak gutxi hitz egiten dute eta entrenatzaileen ahotsak dira, batez ere, partidetan eta entrenamenduetan entzuten direnak. Jarraian behatu ditugun komunikazio formak aztertuko ditugu.

3.6.1. Noranzkoa

a. Entrenatzaileengandik gaztetxoengana

“Gure aholkuan zai daude, guk esaten deuna amen!” (Zarauzko entrenatzailea)

Ikusi dugunagatik ahozkoa da kirol hauetako komunikatzeko era, eta noranzko nagusia entrenatzaileengandik gazteenganakoa da. Entrenamenduetan eta partidetan entrenatzaileak etengabe aginduak ozen ematen dituzte, eta maiz banakako iruzkin edo elkarrizketak dituzte jokalariekin. Noranzko nagusi hau argi ikusten da partidetakoko atsedenetan talde bakoitzak kokatzen den moduan: zelaiaren alde batean jarrita gazteak lurrean esertzen dira eta entrenatzaileak, zutik, azalpenak ematen ditu. Tarteka jokalaria batek galdera edo aipu bat egiten du, baina orohar entzun besterik ez dute egiten. Partidetan jokalarien arteko komunikazioa ia bakarra besteen izenak esatea da, baloia eskatzeko, animatzeko edo zerbaiten inguruan ohartarazteko: “Va... voy yo!” “Dale!” “Ondo!” “Que viene...” (Zubietan behaketa, 2016-12-17). Tarteka ere

ospakizunak ere espresatzen dituzte: “Ue!”, “Ondo!”, “Bien!” (Getxon behaketa, 2016-11-21).

Dinamika hau zertxobait aldatzen da esku-pilotaren kasuan. Talde-kirola ez denez, eta askotan binaka jokatu behar dutenez, hizkuntza-dinamika ezberdina da. Bikotekideen artean gehiago hitz egiten dute, eta kexa, protesta, ospakizunak adierazteko esamoldeak gehiagoetan entzuten dira: “¡Benga!”, “¡Va!”, “¡No es justo!”, “¡Esta, esta, esta!”, “¡La he tocado!”, “¡Potra, potra!” eta “¡Por el otro lado!” (Gasteiz, 2016-12-28). Kirol honetan ere, entrenatzaileek jokalarien arteko komunikazioa garrantzia duela adierazten die, euren artean hitz egin eta elkar ulertu behar dutela.

b. Atezainen hizkuntza-protagonismoa

Futbolean porteroa izaten da asko hitz egiten duen jokalaria, edo gutxienez beste jokalaria baino gehiago, bere posiziotik jokaldiak ikusteko erraztasun handiago duelako. Animo oihuak eta aginduak izaten dira. Realeko partidaren halakoak jaso genituen “venga Real!”, “Sí, sí, sí. Sí...”, “Segi, segi...”, Ondo Haimar ondo”... Hitz egitea Realean atezainekin lantzen den arlo bat da. Irratiaren metafora erabiltzen dute horretarako:

Atzetikan izan behar da radio bat moduan. Beaiak eduki behar dute altu-bajoa ahotsean: tarteka ahots bolumena igo defentsak esateko “ostrak!”, tarteka buila txiki bat atentzio pixkat deitzeko, igotzeko pixkat (Realeko entrenatzailea)

Eskubaloian ere atezainaren ahozko jarduna oso garrantzitsua da. Azaldu digutenez, atezainak du jokoaren ikuspegi zabalena, eta taldekideei informazio, agindu eta aholkuak eman behar dizkio: “ta jokalaria zeanian asko eskertu itezu porteruak esaizuna” (Zarauzko entrenatzailea).

3.6.2. Hizkera

Esan bezala, behatu ditugun entrenamendu eta partidetan ez dira elkarriketa luzeak ematen eta emozioekin, aginduekin eta animoekin lotutako lokuzioak nagusitzen dira. Erabiltzen den hizkerari dagokionean, errealitate soziolinguistikoaren arabera ezberdintasunak topatu ditugu: Gasteiz eta Getxon gazteek gaztelania modu informalean erabiltzen dute, hurbiltasuneko tratamendua darabilte beraien artean. Zarautzen hizkera informal hau euskaraz da, eta Realean tarteka euskaraz da, baina

egoera informal hauetarako gaztelaniaren presentzia handi samarra da. Entrenatzaileek orokorrean hizkera formalagoa (euskara batua) erabiltzen dute, baina Zarautzen bertako hizkeraren erabilera da nagusi.

a. Hitanoa

Hitanoaren erabilera Zarautzen bakarrik jaso dugu. Bertan bi talde behatu ditugu, bat mutilez osatuta eta bestea neskez osatuta. Mutilen taldeak bi entrenatzaile zituen bat gizonezkoa eta bestea emakumezkoa. Gizona hika zuzentzen zitzaien etengabe nerabeei: “hoi dek Unax, hoi dek!”, “ondo ziok baino bukatu!”. Emakumea, ordea, Zarauzko hizkera erabili arren ez du hitanoa erabiltzen: “ondo do!” “ezin dezu bota ya”. Nesken taldearen entrenatzaileak emakumezkoak dira eta ez dute inolako momentuan hitanoa erabiltzen, horretan aritzeko ohiturarik ez dutelako: ““Hoi da!”, “Benga Laida muitu!”, “eskubira pasa eta ezkerrera jun!”, “pentsauuuuu!”.

b. Euskalkiak

Realeko entrenatzaileek nahiko hizkera estandarra erabiltzen badute ere, bakoitzak bere euskalkia erabiltzeko joera du. Aretxabaletako entrenatzaile baten kasua horren erakusle da, bera bizi den herriko hizkera erabiltzen du euskara batua eta gaztelaniarekin nahastuz:

“Ez dogu nahi bizkarra hartzia! Jonan! Hartu behar do baloia!”

“Vale, prest?, venga, venga, venga... va!”

“Geldi, geldi, geldi, baloia!”

“Kontrola! Goruntza egin!”

“Lurretik, lurretik!”

“Kontrola ona!”

“Laterala! Bakarrik zauz!”

“Enorme!”

“Urten, urten, urten... separau!”

(Real Sociedad, 2016-12-02)

Zarautzeko taldeetan nagusiki herriko hizkera entzun dugu. Getxon eta Gasteizen euskara estandarra erabiltzen dute.

c. Kirol terminologiaren adierazpena

Kirol espezialitate bakoitzarekin lotutako terminologia euskaraz ez egotea oztopo gisa identifikatzen dute zenbait entrenatzailek. Getxoko entrenatzaileak hala adierazi zigun: “hitz pilo, hitz espezifiko pilo kirolean daudela ta... ez daudela euskeraz ta... horiek gazteleraz eta ingelesez ta ordun pixkat salbuespena egiten degu”

Dena den, kirol terminologiak ez dirudi garrantzi berezirik duenik hizkuntza-praktikan. Zarautzen ikusi dugu hizkuntza-praktika euskaraz dela erabat, nahiz eta terminologia zenbaitetan gaztelaniaz izan: “Ondo portero!” “extremoa” “dobles” “zinta” edo “belozidadea” esango dute, baina euskaraz ari dira. Entrenatzaile batek esan digunez “azkenian lau hitz dira”. Realean ere antzera egiten dute eta euskaraz aritzen diren entrenatzaileek tarteka gaztelaniazko esamolderen bat esaten badute ere, “juntar para dividir” esaterako, horrek ez du euskarazko jarduna erdalduntzen.

Getxon, bolei terminologia eta partidetan beharrezkoak dituzten espresioak euskaraz adierazteko zailtasunak dituela adierazi ziguten entrenatzaileek. Gorago aipatu dugun bezala, kirol honen hitz tekniko asko gaztelaniaz eta ingelesez erabiltzen dituzte. Beharbada, esku-pilotan euskarazko terminologia eta esamoldeak erabiltzea ohikoagoa da⁵¹, hala ere, gure behaketetan ez dugu horren inguruan ezer berezirik jaso. Bi dira gehien entzun diren espresioak “va” (sakea egiterakoan) eta “voy” (bikotekideari pilotari zuk emango diozula adierazteko). Horietaz aparte kirolarekin lotutako “pilota apurtu” lokuzioa besterik ez dugu jaso.

Bada toki guztietan orokortua dagoen joera bat: zenbakiak euskaraz esatekoa. Esamolde gehienak gaztelaniaz diren tokietan ere zenbatzeko euskara erabiltzea ohikoa da:

Partidako tantoak euskaraz zenbatzen dituztela (orokorrean) konturatu naiz: baloia atera aurretik, altu esaten dute “Bi!” “Bat”, taldeak daramatzen tantuak hain zuzen. (Getxon behaketa, 2016-11-21)

⁵¹ Besteak beste, gaur egun telebistan euskaraz maiztasun handiarekin ikus daitekeen kirol bakarra delako. Zarauzko entrenatzaileak horretaz ohartarazi zigun “telebistak asko iten du, eskubaloia ez da hainbeste retransmititzen”

Realean ere, euskaraz apenas hitz egiten ez duen entrenatzaile batek ariketetan zenbakiak erabili behar dituenean euskaraz esaten ditu. Gasteizen joera hau nabaritu badugu ere, gaztetxoan artean zenbakiak gaztelaniaz esateko ohitura handia dutela ikusi dugu.

d. Animo eta aginduak

Entrenamenduan ez dira elkarrizketa edo solasaldi luze askorik egoten. Esamolde edo lokuzio motzez beteta dago entrenamenduaren hizkuntza giroa: “koskobilotikan tira hi baino handiago badek” edo “hauek dira hauek pelaiuak!” Zarautzen, edo “Uee!, sí por fin!” edo “Irten, irten! Ostras! Kontuz!” Getxon. Adin hauetako kirol jardueretan animoak eta aginduak dira gehien entzuten diren espresioak (jarraian aztertuko ditugun haserre eta poza espresioekin batera). Kirol dinamikan aritzen diren aktore denek aginduak ematen dituzte: entrenatzaileek, epaileek, ikusleek... Aginduak ozen esatea, batzuetan entrenamenduari intentsitatea emateko estrategia izaten da. Hala esan zigun Realeko entrenatzaileak:

Ba entxufatzeko igual hasieran oso intenso... gaur adibidez hola planteatu degu, oso intenso eta gure tonua eta hola: pom pom pom... Intensidadea sartzeko. Eta geo ya, pixkanaka, ba ahotsa pixkat ya desagertzen jun.

Entrenamenduetan animo adierazpenak ugariak dira. Getxon, adibidez, etengabe direla jaso ditugu “Fenomeno”, “Ondo, Maialen!”, “Ba!, venga, ba!”. Partidetan ikusleek euren taldekoen aldeko animoak botatzen dituzte eta tarteka aginduren bat ere. Entrenatzaileen kasuan alderantziz izaten da: agindu asko eta tarteka animoak. Zarautzen, adibidez, honelakoak jaso genituen: “Maite eskau!”, “Laguntzak hor!”, “Venga, Irati, va!”, “Zabalduuuu!”, “Eskuin!, venga, Amaia!”. Eta Getxon: “Ondo!”, “Beste bat!”, “Vamos... El primer saque!”, “Todos los balones fuera de sitio! Mugitu baloia!”, “Neskak ba!”, “Vamos chicas!”, “Ederto!”, “Ni tan mal, perfecto!”. Aixerrotoako entrenatzaileak zion haserrea erdaraz adierazteko joera dagoen bezala, animoak euskaraz izaten direla: “Aupa neskek!, Aupa Aixerrota!, Venga neskek!”.

e. Haserrea eta poza

Partida eta entrenamenduen intentsitateak emozioak azalarazteko balio du (bai entrenatzaile eta gazteen aldetik). Halakoetan, emozioak adierazten dituzten

esamoldez betetzen da hizkuntza-jarduna. Tantoak egiterakoan edo golak sartzerakoan, haserrea eta poza adierazten dute hitz edo esamolde motzen bidez.

Orohar, haserrea gaztelaniarekin estuki lotuta agertu zaigu. Realean behatu genuen heziketa emozionaleko saioan haserretzeko antzezpenak egiten aritu ziren eta mutil batek horretan euskaraz hobeto moldatzen dela adierazi du. Dena den, talde osoa antzezpen hori egiten hasi denean gaztelania izan da nagusi. Psikologoak “estais enfadadísimos” esan dienean, denak batera hasi dira: “ei! ¿Qué haces?”, “Cara tortilla!”, “Qué me vas a pisar tío!”, “Qué te ries tío!”, “cabeza bolo!”... (Zubietan behaketa, 2016-11-18).

Gasteizen haserre esamolde asko entzun genituen eta ia denak gaztelaniaz ziren: “Vete a casa!”, “ A la calle tú”, “Joder!, es que es injusto!”, “La osti! Cagüen Dios!”. Dena den, harritu gintuen salbuespenik ere jaso genuen; honako pasadizo honetan erabilitako esamolde hau:

Txarra egiten lehen umea joko eremutik irtetzera zihoala lagun bati “Agur zakila!” esan dio. Jarraian aitak txamarra eman, berau jantzi eta irten egin dira (Gasteiz, 2016-11-28).

Getxoko entrenatzaileak ere hala adierazi zigun:

“Erderaz beti. Bai, bai, bai, bai, bai. Nik uste...haserrea gehiago erderaz. Itxura ematen du erderaz egiteagatik haserreago zaudela edo (Getxoko entrenatzailea).

Haserre kontuak, hala ere, ez dira beti gatazka edo giro txarreko testuinguruan kokatu behar. Kirol talde hauetan konfiantzazko txantxa giroa ere oso nabarmena dela jaso dugu, eta haserre esamolde batzuk horrela ulertu behar dira. Horren adibide da entrenamendu batean jasotako hau: akats bat egin ondoren entrenatzaileak halako espresioa bota zien jokalariei: “Una somanta de ostias...!”. Jokalariak barrez hasi ziren eta entrenamendua inolako haserrerik edo gatazkarik gabe jarraitu zuen.

Entrenamenduetako jolasetan haserre eta poza adierazten duten lokuzioen erabilera areagotzen da. Gasteizen adibidez, harrapaketa jolasetan haurren artean etengabe botatzen dituzte honelakoak: “Vamos a por Unai!”, “Esta ahi!”, “Ven aquí!”, “Orejotas!”, “No vale!”, “Hasta el cuatro!”, “¡Pero que haces!”, “¡A mi no me han pillau el!”, “¡Oye! ¡Eso no vale!” (Gasteizen behaketa, 2016-11-28). Zarautzen ere antzeko jolas batean egoera errepikatzen da: “kanpon zaudel”, “Ai, ai, que leche!”.

“Ui, baloia...”, “Ez du balio!”, “Mele, zenbat zapi jarri behar dia?”... (Zarautzen behaketa, 2016-11-22)

3.6.3. Sare Sozialak

Komunikatzeko formen artean mugikorraren bidezko elkarrizketak ere kontutan hartu behar direla uste dugu. Interneteko komunitate birtualaren agerpenarekin, gazteek ia derrigorrezkoa dute IKTen sarean murgiltzea, eta telefono mugikorra da horretarako tresna nagusia. Gure behaketetan mugikorraren presentzia txikia izan da. Gazteak entrenamendu aurretik eta ondoren mugikorra erabiltzen ikusi ditugu baina hortik aurrera mugikorraren presentziarik ez dugu behatu. Entrenatzaileek adierazi digutenez Whatsappeko taldeen erabilera oso zabalduko praktika da taldekideen arteko komunikaziorako. Antolaketarekin lotutako zenbait gauzetarako erabili ohi da: partidak noiz izango diren abisatzeko edo entrenamenduetan aldaketaren bat egon bada horren berri emateko... Askotan gainera, Whatsappeko talde ezberdinak antolatzen dira. Zarautzen, adibidez, jokalariek whatsapp talde bat dute (entrenatzaileak bertan daude) eta gurasoek beste bat.

Sare sozialekin sortutako arazo edo kezka baten berri eman ziguten Realean. Realean jokatzeko duten gazteak maila batean “pertsonai publikoak” bihurtzen dira, euren herrietan gutxienez, nolabaiteko prestigio bat lortzen dute. Sare sozialekin, hortaz, kontuz ibili behar dutela esaten diete baina zaila da hori kontrolatzen. Whatsappeko profilean denek dute Realean jokatzeko duten adierazten duen argazkia, baita euren gurasoek ere.

3.6.4. Ahotsa eta komunikazio ez berbala

Kirolean komunikazioak garrantzia duela ikusten ari gara. Kirol praktikan zehar elkarrizketa luzeegiak sortzen ez badira ere, ahotsaren erabilerak garrantzia du. Aginduak, animoak, haserre eta poza adierazpenak ozen esatea ohikoa da eta hala jaso ditugu. Dena den, orokorrean nesken ahotsa gutxiago entzun dugu mutilena baino (bai entrenatzaileak bai jokalaria). Sakonago aztertu beharreko kontua litzateke, baina kirol arloan emakumeak gizonak baino baxuago hitz egiteko joera dutela nabaritu dugu.

Bestalde, berbalak ez diren zenbait adierazpen moduak ere jaso ditugu. Entrenatzaile batek, adibidez, txistu egiten du zenbait agindu emateko edo atentzioa eskatzeko. Eskuak eta besoen keinuak erabiltzea ere oso ohikoa da entrenatzaileen artean, eta epailek ere jokaldiak eta aginduak adierazten dituzte txilibitu eta eskuen keinuen bidez.

3.7. Hizkuntza-ideologiaren analisisa

2016an “D ereduko kirola” izeneko ikerketa honen xede nagusienetako bat hizkuntza-praktikak behatzea, jasotzea eta deskribatzea izan da. Hortaz, behaketetan eta elkarriketetan kirol gune bakoitzeko protagonistek hizkuntzen eta hizkuntzen dinamika sozialen inguruak dituzten pertzepzio eta diskurtsoetan ez dugu gehiegi arakatu. Jarraian, hala, ere entrenatzaileen elkarriketetan jasotako zenbait iritzi laburbilduko ditugu.

Oro har, entrenatzaile gehienek gazteen hizkuntza-praktikak familiarekin lotu dituzte. Getxoko entrenatzailearen ustez gazteen hizkuntza-praktikak oso lotuta daude etxeko hizkuntzarekin. Gaztelaniaz egiten dute etxean hala egiten dutelako: “uma bakoitzak etxean dakana dauka (...) ume batzuk euskera dakarte etxetik”. Zarauzko entrenatzailearen iritziz ere bere taldean gaztelaniaz hitz egiteko joera duten nerabeak (oso gutxi izaten dira) euskaraz ez dakiten gurasoen seme-alabak izaten dira. Antzera mintzatu zen, Realeko entrenatzailea, baina etxeko hizkuntzaz gain, Gipuzkoako futbolaren kasuan, hizkuntza-praktikak ezberdinak identifikatzen ditu herrien arabera. Talde ezberdinetan jokatu duenez eta entrenatzaile gisa beste herri askotako klubak aurka aritzen denez errealitate linguistiko ezberdinak topatu ditu, eta herri bakoitzeko taldeak euskara edo gaztelaniarekin identifikatzeko gai da.

Hizkuntza eta identitatea uztartzen dituzten aipu gutxi jaso ditugu. Zarauzko entrenatzailearen erantzun batean herri-identitatea hizkuntza-nortasunarekin lotuta dagoela adierazten du: “Gure artian beti euskeraz in deu. Ze gu... eske hemengoak gea!”. Era berean, Gasteizko entrenatzaileak esku-pilota eta euskal-identitatea lotuta ikusten du:

Pilota futbola baino euskaldunagoa da. Pelota azkenean gure kirola da ez? Eta ez da kanpotik ekarritako ezer. Eta gurea maite duten askok, futbola edo pilota ematen badiote aukeran, gurea aukeratzen dute.

Oro har elkarrizketetan parte hartu duten entrenatzaile guztien ustez hizkuntzaren normalizazioan urratsak ematen ari dira. Gasteizen eta Getxon haur eta nerabeen artean hobekuntzak nabaritzen dituzte:

Hasi nintzenetik gaur egunerarte benjaminak, txikiak, gero eta gehiago euskaraz egiten dute. Hori egia da, osea pixkat, garatzen ari da... (Getxoko entrenatzailea)

Realeko entrenatzaileak, ordea, hobekuntzarik ez du ikusten, eta gaztetxoek artean atzera pauso batzuk ere nabaritzen ditu: “erderaz gehio entzuten da, sentsazio hori daukat”. Euskararen ezagutza eta erabileran inguruan gizartean dagoen diskurtso zabalduekin bat egiten dute:

Araban nik uste dut, asko hobetu dela. Nire ustez askoz gehiago garelako euskaraz dakigunok orain, baina ez dugu erabiltzen. Ez dugu erabiltzen erabili beharko genukeenik, nire kuadrilan ere euskaraz dakigu guztiok baina erdera egiten dugu eta nahiko tristea da. (Gasteizko entrenatzailea)

Kirol arloan, aurrera begira ere urratsak gutxika eman behar direla uste du, “pixkanaka joan behar du eta ez bat-batean...bumb!”. Izan ere, bolei kirolean dabiltzan entrenatzaile askok ez dakite euskaraz baina hori aldatuko dela uste du:

Aurrera goazen heinean entrenatzaile bihurtuko diren horiek euskeraz dakite: ikastolan ikasi dutelako eta euskera gaur egun garatuta dagoelako. Ordun ba...,uste dut, pixkanakako eboluzio bat hartuko dutela, edozein kirolean eta edozein klub-ean (Getxoko entrenatzailea)

Antzeko iritzi bera azaldu digu Zarauzko entrenatzaileak: “oain datozen gazte hauek geo entrenatzaile izateianean aldatuko da, hor aukera ikustet”. Bere ustez euskararen auzian kirolean entrenatzaileak dira gakoa baina ahaztu gabe “taldeko arduradunak, kluban daon jendiak ta gurasuak inplikatu behar due e bai”. Horretaz gain, Realeko entrenatzaileak komunikabideen garrantzia aipatu digu:

ETBn partiduak ez daude. Azkenen futbola komentatzeko garaian tabernetan ia dena komentatzen da. Eta oain dakazu gehiena Cuatro edo Sport edo Canal plus... eta dana erderaz. Eta ordun bai seguraski tabernan zaudenean azkenean entzuten dezuna erderaz “pues mira akaba de decir esto, ah!pues no!” eta tabernako jendeak nahi du parte hartu: futbola iñork ez du ikusten ixilik. Dana komentatu behar da eta horrek bai seguraski eragina dula. Eske gañea imposible da euskeraz ikustea partidu bat. Lehen beti zegoen Reala edo Athletic, edo bestea ikuste zenun, baño eske oain da imposible.

4. ONDORIOAK ETA AURRERA BEGIRAKOAK

“D ereduko kirola” egitasmoak jarraipena izango duela aintzat hartuta, azken atal hau bitan banatu dugu. Batetik, analisisan ateratako ondorio nagusiak laburbildu ditugu. Bestetik, aurrerantzean egitasmo honetarako (eta gazteak eta euskara uztartzen dituzten bestelakoetarako ere) gure ustez baliagarriak izan daitezkeen hainbat hausnarketa modu luzeagoan jorratu ditugu.

4.1. Hogeitabira!: Ondorio nagusien laburpena

1. Orohar, behaketetan eta elkarrizketetan jasotako datuen arabera esan daiteke, kirol taldeetan jaso ditugun hizkuntza-praktikak txertatua dauden herrien errealitate soziolinguistikoarekin nahiko bat datozela, baina kasu guztietan euskararen erabilera handiagoa da klub bakoitzaren herri edo auzoaren kaleetan jasotakoa baino.
2. Ikerketan parte hartu duten lau klubek talde izaera ezberdina dute, baina maila batean edo bestean, denek badute ezaugarri komun bat: euren kirol-espezialitatean eta euren lurraldean erreferentziazko taldeak dira. Hori lagungarria izan daiteke, aurrera begira ereduzko hizkuntza-plangintzaren bat ezarri gero beste taldeentzat eredugarriak izan baitaitezke.
3. Argi dago kirol-espezialitate batzuk (futbol maskulinoa bereziki) besteak baino garrantzi soziala handiago dutela. Bestalde, zantzu batzuk topatu ditugu sinbolikoki espezialitate batzuk euskararekin gehiago lotzen direla esateko (esku-pilota gure kasuan).
4. Entrenamenduetan giro antzekoa jaso dugu: lasaia eta erlaxatua baina disziplina eta formaltasun handiarekin. Barrea eta ziria ere oso presente daude, baina irain edo burlarik gabeko txantxa giroa da. Horretaz gain, intentsitate eta erritmo handiko denbora tarteak dira. Hainbat errutina eta errituak errepikatzen dira eta aurrez planifikatuak egoten dira, hortaz, hizkuntza-plangintzak txertatzeko helduleku sendoak egon daitezke.
5. Lehiaren izaerak eskatzen duen bezala, partidetan entrenamenduetan baino tentsio handiagoa dago eta alderdi ludikorako tarte txikiagoa geratzen da.

6. Entrenatzaileak dira erreferentea eta gidariak. Entrenamenduak eta partidak euren esku daude. Erreferentea dira eta ikerketa honetan elkarrizketatu ditugunak kontziente dira erreferentzia horrek hizkuntza kontuetan ere garrantzia duela. Guztiek adierazi dute langintza horretan aritzea gustukoa dutela eta horregatik jokalariekin giro ona egoten saiatzen dira.
7. Taldeen artean ezberdintasunak badaude ere, esan daiteke aztertutako kirol-jarduera fisiko guztietan, modu batean edo bestean, ludikotasuna, lehia eta heziketa batera ematen direla. Batzuetan ez da erraza jokoa eta jolasa bereiztea. Jolasa, txantxa eta ondo pasa oso presente daudela ikusi eta hori abantaila handia da euskararen inguruan egin nahi den edozein lanketarako.
8. Partidetako eta entrenamenduetako une ezberdinak erabili daitezke hizkuntza lanketa egiteko, ez genuke begiratu behar soilik entrenatzaileek azalpenak ematen dituzten tarteei: entrenamenduetako jolasak emozio uneak dira, material-jasoketa uneak edo luzatze-ariketak jokalarien artean elkarrizketak sortzeko tartearak dira, partida bukaerako agurtze momentua lehiakideak izan diren beste gazteekin hitz egiteko unea izan daiteke...
9. Zenbait ezberdintasunak topatu baditugu ere, orohar, behatutako entrenatzaile gehienek kirol-jardueretan euskaraz egiteko joera dutela ikusi dugu.
10. Nerabeen artean behatu dugun egoera bestelakoa da. Alde handiak nabaritu ditugu Zarautz (euskarazko erabateko jarduna) eta beste taldetako gazteen artean (Realean bietan, Gasteiz eta Getxon gaztelania asko, euskara gutxi).
11. Entrenatzaileek elkarrizketak gidatzen dituztenean jokalarien euskarazko jarduna handitzen da. Noranzkoa aldatzen denean, gazteak iniziatiba hartzen duenean, gaztelania gehiago erabiltzen dute.
12. Oro har esan daiteke ikusleen artean euskara gutxiago entzun dugula entrenatzaile eta gazteen artean baino.
13. Epaile askoren hizkuntza-praktikak jaso ez ditugun arren (konturatu gara epaileek gehiegi ez dutela hitz egiten, agindu asko txilibitu eta keinuen bidez ematen baitituzte), entrenatzaileekin izandako elkarrizketetan epaile askok euskaraz ez

dakitela adierazi digute. Zenbait kirolean zaila omen da epaileak topatzea, eta horrek zailtzen du euskaraz dakiten epaileen presentzia.

14. Ikerketan parte hartu duten kirol klubek ez dute hizkuntzarekin lotutako plangintza zehatzik garatu. Esan daiteke, talde guztietan euskara biziberritzearen aldeko jarrera (eta identifikazioa) dagoela eta horretarako hainbat tresna garatzen dituztela, baina orohar ez dago horri begirako kudeaketa planik. Klubetan eta federazioetan dauden arduradunek hizkuntza biziberritzearen alde duten jarrera gakoa izan daitekeela uste dugu.
15. Kirol klub hauek euskara sustatzeko erabiltzen duten estrategia nagusia entrenatzaile euskaradunak hartzea da.
16. Talde kirolean komunikazioa oso garrantzitsua dela jaso ahal izan dugu. Jokalarien artean komunikazio zuzena eta etengabekoa edukitzea kirol emaitzarako sekulako abantaila omen da. Horregatik, entrenamenduetan lantzen den arlo garrantzitsua izaten da, eta adinean gora joan ahala handitzen eta hobetzen den kontua da.
17. Ahozkoa da kirol hauetako komunikatzeko era garrantzitsuen, eta noranzko nagusia entrenatzaileengandik gazteenganakoa da. Entrenamenduetan eta partidetan entrenatzaileak etengabe aginduak ozen ematen dituzte, eta maiz banakako iruzkin edo elkarrizketak dituzte jokalariekin.
18. Dinamika hau zertxobait aldatzen da esku-pilotaren kasuan. Talde-kirola ez denez, eta askotan binaka jokatu behar dutenez, hizkuntza-dinamika ezberdina da. Bikotekideen artean gehiago hitz egiten dute, eta kexa, protesta, ospakizunak adierazteko esamoldeak gehiagoetan entzuten dira.
19. Futbolean eta eskubaloian atezainaren ahozko jarduna oso garrantzitsua da. Atezainak du jokoaren ikuspegi zabalena, eta taldekideei informazio, agindu eta aholkuak eman behar dizkio.
20. Behatu ditugun entrenamendu eta partidetan ez dira elkarrizketa luzeak ematen eta emozioekin, aginduekin eta animoekin lotutako lokuzioak nagusitzen dira. Kirol jardunaren intentsitateak emozioak azalarazteko balio du (entrenatzaile eta gazteen aldetik). Halakoetan, emozioak adierazten dituzten esamoldez betetzen da

hizkuntza-jarduna. Bi motatakoak izaten dira, batetik animoak eta aginduak; bestetik, haserre eta poza adierazteko esamoldeak.

21. Erabiltzen den hizkerari dagokionean, errealitate soziolinguistikoaren arabera ezberdintasunak topatu ditugu: Gasteiz eta Getxon gazteek gaztelania modu informalean erabiltzen dute. Zarautzen hizkera informal hau euskaraz da, eta Realean tarteka euskaraz da baina halakoetan gaztelaniaren presentzia handi samarra da.
22. Kirol espezialitate bakoitzarekin lotutako terminologia euskaraz ez egotea oztopo gisa identifikatzen dute zenbait entrenatzailek. Dena den, gure behaketetan jasotakoaren arabera kirol terminologiak ez dirudi garrantzi berezirik duenik hizkuntza-praktikan.

4.2. Aurrera begira

Eta azkenean... Zer?

... Gazteak gertu-gertutik jarraitu eta gero, lekuan lekuko lana burutu eta gero, askotan egin diguten galdera da hau: eta azkenean... zer? Euskaraz egiten dute ala ez?

Horrelakoetan pribilegiatuak sentitu gara, pentsatuz, gutxi batzuk dutela aukera edo baimena gazteekin batera eta euren denboran zein eremuan egoteko. Eurekin batera, “gazte horietako beste bat” izan garenaren ilusioa edo espejismoa sortu daiteke baina, azkenean, horrek bestelako egia bat azalarazten du, gogorragoa edo gordinagoa izan daitekeena: helduen eta gazteen munduen artean zabaldu ohi den amildegia. Gure gizartean jada amildegi hori sarritan geratzen da bistan, hizkuntz kontuetan ere.

Luze joko luke orain horretan sakontzeak eta, gainera, ez da ikerlan honen ezta txosten honen helburua. Halere, abiapuntu gisa bada ere, hori azpimarratzea garrantzitsua iruditzen zaigu, aurretik ere horretaz hausnartzeko gonbitea egin badugu ere (Hernández 2010).

Gazteok izan ginenok, ez gara jada gazteak. Baina gazteak izan ginen horiek, jarraitzen dugu –ziur aski inoiz baino gehiago- gazteekin kezkatuta eta gazteen inguruan diagnostikoak eta proposamenak egiten.

4.2.1. Gazteak eta euskararen erabilera

Beste esparru batzuetara jo gabe, gurean, eta hizkuntzaren gaiarekin loturik, gazteak-euskara binomioa hizpide bilakatu da, gutxienez, 1990. hamarkadatik.⁵² Horrela zentzu metaforikoan bada ere, esan dezakegu euskal soziolinguistikaren garapena bere helduarora iristen dela, gazteekiko egondako kezkaren eskutik. Alegia, neurri batean, iritsi gara iritsi garen garapen punturaino, belaunaldi berrien inguruan, eta bereziki belaunaldi berrien hizkuntza gaitasuna, erabilera eta motibazioak kezkagai nagusienetarikoak (nagusienak izan ez badira) izan ditugulako.

⁵² Erreferentzia bat aipatzeko *Bat Aldizkariaren* bilatzailean sartu gara eta bertan gazteen inguruan argitaratutako lehen artikulua 1992. urtekoa zela ikusi dugu. EKB erakundeak sinatu zuen testua eta 7/8 zenbakian argitaratu zen. “Gazteen mundua euskalduntzeko egitasmoa” zuen izenburua.

Kezka hori zabaltzen eta handitzen joan da, gaur egun, askorentzat etsipenerako arrazoi bilakatu arte. Somatzen den etsipen eta egonezin horren atzean, gehienetan, behin eta berriro egiaztatzen den errealtatea dago: gazteek ez dute euskaraz egiten. Ikerketa kuantitatiboek hori diote, neurketek hori diote, eta, nagusiki, helduon esperientzia zuzenak (etxean, kalean, dendetan...entzuten duguna) hori erakusten digu. Eta errealtate horrek kezkatzen gaitu. Helduoi. Heldu batzuei hobeto esanda. Baina, asko edo gutxi, helduen eskutik eratu da hizkuntz politika, hizkuntz plangintza, euskal eskola, euskal soziolinguistika...

Eta gazte batzuk ere kezkatzen dira euskararen egoera eta gazteen erabilpenarekin, nola ez. Gazteek hizkuntza eta euskararen inguruan dituzten esperientziak, iritziak eta diskurtsoak jaso direnean kezka horren zantzu nabarmenak topatu dira. Are gehiago, asko edo gutxi, egon badira gazteak konpromiso zehatza dutenak hizkuntzarekin, eta aktiboki inplikatzeko direnak euskararen inguruan sortzen edota antolatzen diren ekimenetan.

Baina hau esanda, aitortu behar da, egun, gurean, euskarak ez duela toki nabarmenik gazteen kulturean. Ez du behintzat toki kualitatibo, sinbolikoa, erreferentziazkoa. Ez gutxienez haur munduan duen tamainakoa. Horregatik, besteak beste, gazte izateak, testuinguru askotan, erdaldun aktibo bilakatzea esan nahi du. Nerabeak edota gazteak atzean utzi nahi/behar du haurtzarora (eta horri loturiko praktikak) eta helduen munduari begira jartzen da. Eta egun, oraindik, helduok (edo helduon mundua(k)) erdaldun aktiboak gara.

Elementu hauek (baina ez bakarrik hauek) helduleku batzuk eskaintzen dizkigute nerabezaroan gertatzen den muda/mudantza⁵³ ulertzeko. Baina, aitortu behar dugu, egun oraindik gutxi dakigu aldaketa prozesu hauen inguruan.

⁵³ Joan Pujolarrek (2010) erabiltzen duen “muda” (*mudes linguístiques* zehatzak izateko) kontzeptuak sozializazioa bizitzan zehar irauten duen prozesu gisa ulertzera gonbidatzen gaitu, bertan ematen diren aldaketak zein iraunkortasunak –baita ere hizkuntzari dagokionez– kontuan harturik. Pujolarren planteamenduak erakusten digu aldaketa hauek ez ditugula modu negatiboan edo ezkorrean ulertu behar: aldaketa momentuak aukerak ere badira, eta Pujolar berak “mudes” ideiarekin inguruan garatutako lanak hori erakusten digute argi eta garbi. Institututik unibertsitatara joatea; unibertsitatetik lan mundura igarotzea; familia bat sortzea... Hauek pertsona baten bizitzan gertatzen diren aldaketa une garrantzitsuak dira, eta hor faktore ezberdinen eraginez aukerak sortzen dira ordura arte finkatuta zeuden joerak eta jokaerak aldatzeko. Askotan aldaketa une horien inguruan egin dira euskararen aldeko apustuak. Etopa berri bati hizkuntz identitate berri bat gehitu zaio.

Puntu honen hasieran aipatutako galdera “dramatiko” hori erantzun nahian (*gazteek euskaraz egiten dute?*) ahalegin asko egin dira eta egiten ari dira, baina gaur egun ez dago mahai gainean erantzun garbi bat. Horrek, dudarik gabe, noraeza areagotzen du. Edozein kasuan, erantzuna izan gabe, uste dugu bidean hainbat gauza argitzen ari direla. Gure ikuspegitik hiru elementu nabarmendu nahiko genituzke.

Alde batetik, pentsatzen dugu euskararen erabilerari dagokionez ez dagoela gako bakarra gazteen kasuan gertatzen den jautzia ulertzeko. Ez dago erantzun bakarra eta, ondorioz, ez dago irtenbide bakarra. Gehienez, izaera anitzeko gakoak daude.

Idea hau ez da printzipioz ezer berria, askotan nabarmendu baita gazteen euskararen erabileran aldagai ezberdinak parte hartzen dutela. Baina, gure ustez arreta gutxiago jarri da, gako ezberdin horien izaera konplexuan. Izan ere, gehienetan landu eta aipatu diren gakoak izaera soziolinguistikoa zuten elementuak izan dira ia eskusiboki.⁵⁴ Albo batera, edo behintzat, bigarren maila batean geratu dira, izaera soziologiko edo antropologikoa duten gakoek. Etorkizunari begira garatu beharreko lan ildoak litzateke hau, zeinetan orain arte ohikoak izan diren diziplinez gain, hain ohikoak izan ez diren jakintza eremuak ere gehitzea komeniko litzateke. Gehitu beharreko disziplinen artean, gizarte antropologia dagoelakoan gaude, eta zentzu horretan, ikerlan hau urrats garrantzitsua jotzen dugu euskararen ikerkuntzarekin loturiko eszenatoki akademikoan zein aplikatua antropologiaren parte hartzeari begira.

Honekin lotuta eta hizkuntza antropologiaren eremuan gertatzen ari diren garapenak kontuan harturik, gako soziolinguistikoez gain, aztergai gisa irudikatzen diren gakoak artean, bi nabarmendu nahiko genituzke. Lehenengoa, globalizazioaren hedapenarekin dago lotuta, prozesu hori hainbat galdera interesgarri mahai gainean jartzen ari delako: egungo globalizazio azkarrek eratu duen eszenatokian, zein paper dute hizkuntza gutxituek? Testuinguru berri honetan, zeintzuk dira hizkuntza gutxituen ahulguneak eta zeintzuk bere indarguneak? Zein izan behar da hizkuntza hauen logika? Zein urrats jarraitu behar dituzte euren berreskurapen prozesuetan?

⁵⁴ Kezka honi lotuta interesgarria iruditzen zait nabarmentzea *Soziolinguistika Klusterrak*, *Urtxintxa Eskolak* eta *Topaguneak* (euskara elkarten federazioak) elkarlanean gazteen hizkuntza erabileraren gaia jorratzeko egindako ahalegina. Hau ikerketa zehatz batean gauzatu zen (“Gazteen hizkuntza erabileran eragiten duten faktoreen azterketa”) eta horren emaitza litzateke *Erabileraren GPSa* deituriko materiala.

Agerian dagoenez, itaun hauek maila makro batean kokatzen gaituzte, beste errealitate batzuekin harremanetan; mundua agintzen duten indar eta energiari begira..., nahita nahiez mundu mailako eragileak direnak. Indar zentripetuak nagusitu dira egun arte gurean, baina berriz gazteengan arreta jarrita, hauek, inoiz baino gehiago, kanpora begira daudela argi dago, munduan gertatzen ari denari so eginez. Munduan zehar, hor nonbait... kokatzen dituzten euren erreferenteak, horregatik, sarritan gerta daiteke euren inguruko kideekin baino munduko beste puntan dagoen gazteren batekin egitea bat, “berea” ez den beste hizkuntza edo beste kultura bateko gazte batekin.

Marcelina Morganek dionez (Morgan, 2004) komunikazioak, globalizazioak edo transmigrazioak elebakartasuna utopia bilakatzen dute. Horren adibide argiena, gainera, gaztetxoek mundutik etor daiteke. Izan ere, nahiz eta hizkuntza bera ez izan, egun, munduko punta ezberdinetan bizi diren gazteak hizkuntz komunitate bat osatu dezakete, hitz egiteko modua, hizkuntzari loturiko sormena, berrikuntza gramatikalak partekatzen baitituzte. Horren adibidea Morganen artikulua batean topatu dugu. Bertan egileak Paris eta New Yorken bizi diren bi *hip-hoperoen* arteko loturak aztertzen ditu eta gazte hauek hizkuntza ezberdinak hitz egin arren, hizkuntz komunitate bereko kideak kontsideratu daitezkeela aldarrikatzen du. Zergatik? Bere hitzetan (Morgan, 2004:6):

In the case of these hip hop artists, the speech community is not linguistically and physically located but is bound by politics, culture, social condition, and norms, values, and attitudes about language use.

Arreta maila makroan gertatzen den horretan jartzearekin batera, hizkuntza (euskara) testuinguru zehatzetan txertatzeko dituen aukerak eta zailtasunak aztertzea ere oso interesgarria jotzen dugu. Kopuruez, eta joera orokorrean gain, euskarak egunerokotasunean eta egunerokotasunarekin loturiko komunitateetan hartzen duen itxura arakatzea, aztertu beharreko dimentsioa dela pentsatzen dugu. Hizkuntza adina, jatorri, lanbide, klase, formazio... jakineko taldeetan nola txertatzen den, eta zertan gauzatzen den ezagutu beharko genuke, hiztunen profilak eta “euskarak dituen gorputzak” hobeto irudikatu ahal izateko. Orokortasunetik zehaztasunetara. Ñabardurak jasotzeko asmoz. Eta euskarak ahalbideratzen dituen praktiketan bereziki erreparatuz. Horregatik iruditzen zaigu funtsezkoa ikerketa kirol eremuan kokatzea, eta horregatik lehenetsi dugu “praktika komunitatearen” kontzeptuaren erabilera,

besteak beste, hizkuntza eskala “errealago” batean ikertzeko aukera ematen digulako: praktika zehatz ezberdinei lotuta, eta, aldi berean, helburu zein motibazio jakin batzuei begira.

Ikerketa zein hausnarketa mailan honaino iritsi bagara, euskara helduon kezka izan delako, eta egun oraindik kezka delako izan da. Baina gazteen kasuan? Kezka al da gazteentzat euskara?

Esanda dago, batzuentzat bai, askorentzat bai. Baina kezka izan ala ez, argi dagoena zera da: euskal gazte gehienentzat euskara errealitate bat da, euren egunerokotasunari lotuta. Hori bai, lotura horrek, izaera jakina du: familia eta bereziki eskola dira gazteak eta hizkuntzaren arteko zubi-lana egiten duten erakundeek. Bien eraginez euskaldundu dira, nagusiki, belaunaldi berriak. Biek gainera ezinbesteko eragina dute gazteen gizarteratze prozesuan. Horregatik ere, gazteen hizkuntz erabilera gora beharatsuan familia zein eskola tentsiorako gune bilakatzen dira. Gazteek euren (gazte) kulturaren⁵⁵ murgildu nahian, berezko arau, interes, errutina, ohitura... jorratu nahi dituzte eta hauek, askotan, ez dute bat egiten guraso edo irakasleen arau, interes, errutina, ohiturekin...

Guzti honen ondorioz, zenbait talka zein tentsio sortzen dira. Helduok gazteak presionatzeko joera dugu euskara erabil dezaten; gazteek presio hau kexa eta aginduekin identifikatzen dute. Horren aurrean batzuk prest daude “jokoa jarraitzeko”, *to play de game* Monica Heller-ren hitzetan (2006), baina beste batzuk ez, edo gutxienez ez neurri berean.

Eskola da gaur egun tentsio horren eszenatoki nagusienetarikoa bat. Bertan, Hellerrek (ibid.) Torontoko ikastetxe batean aztertutako errealitatearen inguruan egiten duen interpretazioa jarraituz, bi eremu ezberdinen arteko bereizketa sortzen da: alde batetik eremu publikoa (*front stage*) egongo litzateke, non eskolan ofiziala den hizkuntza nagusitzen den; eta, bestetik, eremu pribatua (*backstage*) izango genuke, non gazteak

⁵⁵ *De jóvenes, bandas y tribus liburuan* Carles Feixak gazte-kulturak horrela definitzen ditu: Las culturas juveniles son las maneras en que las experiencias sociales de los jóvenes son expresadas colectivamente mediante la construcción de estilos de vida distintivos, localizados fundamentalmente en el tiempo libre o en espacios intersticiales de la vida institucional (Feixa, 1999:84).

euren hizkuntza errealtatea kudeatzen saiatzen dira, talkak, kontraesan zein paradoxaz beterik. Kasu honetan, *backstage*-en, “ofiziala” ez den hizkuntza (edo hizkuntzak) nabarmen nagusitzen dira. Bi esparru hauek, bakoitzak biltzen dituen ohitura, praktika, erreferenteekin..., elkarlotzen dira, hizkuntz egoera konplexu bat irudikatuz.

Hau da egungo argazkia, behintzat gazteen hizkuntza bizipenak hobekien jasotzen dituen, bere kontraesan, talka, gora behera, mudantzekin...

4.2.2. Gazteak eta hizkuntza sozializazioa

Ikerketa honek –aurretik egin ditugun beste batzuk bezala- arrazoi ugari eman dizkigu hizkuntza-sozializazioaren kontzeptuak duen garrantzia azpimarratzeko.

Jakina denez, hizkuntza-sozializazioaren bidez pertsona bateko komunitate jakin baten bizitzan eraginkortasunez eta egoki parte hartzeko beharrezkoak diren ezagutzak, joerak eta jarduerak eskuratzen ditu (Kasares, 2014:47). Prozesu hau haurraren harreman sozialak hasten diren unean abiatzen da eta pertsonen bizitza osoan jarrai dezake. Gure ikerketan argi ikusi dugu gazte hauek hizkuntza-sozializazio batean murgilduta egon direla eta direla (egun ere), eta prozesu honen bitartean hizkuntza(k) (euskara zein gaztelera) tresna komunikatibo gisa bereganatzeaz gain, hizkuntzekin lotutako joerak, jokaerak, ohiturak, usteak, balioak..., alegia, hizkuntza-kultura bat ere bereganatu dutela.

Bereziki azpimarragarria iruditzen zaigu, azken hamarkadetan haurren inguruan garatutako euskal unibertsoa, bertan kultura materiala (literatura, antzerkia, musika...), erreferente sinbolikoak (kultur “izarrak”: pailazoak, marrazki bizidunak) zein harreman mundu oso bat (festak, ekitaldiak...) barnebiltzen direlarik. Zalantzarik gabe 0-12 urte bitartean umeei aukera “eskuragarri” ugari dituzte euskaraz murgiltzeko eta sozializatzeko. Gainera, tarte honetan, sozializazioan funtsezkoak diren eragileen arteko lotura estuagoa dela ematen du. Alegia, familian, eskolan eta komunikabideetan zein aisialdian umeei dituzten euskarazko erreferenteak antzekoak dira.

Urteetan aurrera egin ahala, nerabegarora heltzean, euskal unibertso honen zantzuak nabarmen gutxiesten dira. Paraleloki, familia, eskola, komunikabide edota aisialdi eremuen arteko harremanak ahultzen joaten dira; gazteengan eragile hauek duten pisua

jaisten den bitartean. Apurka-apurka, familiarekiko loturak bigarren maila batean geratzen dira eta, ordurarte, eskolak zuen kutsu ludikoa eta afektiboa murrizten da. Azkenengo hau aspektu garrantzitsua dirudi, batez ere gurean eskolak ezinbesteko papera izan duelako euskararen biziberritze prozesuan.

Honek gainera, ondorio batzuk ekarri ditu. Batetik azpimarratzekoa litzateke, euskaldun alfabetatuak eta euskaraz hezitutako goi mailako profesionalen hazkundea. Bestetik, nabarmentzekoa da haur eta gazte elebidunen ehunekoaren igoera. Ageri diren bi fenomeno horien atzean dugu eskola, eta horren inguruan aritutako eta aritzen diren profesionalak.

Arlo honetan egondako inbertsioa (baliabideetan zein dedikazioan) hain handia izanik, askoren bistan euskara eta eskolaren arteko identifikazioa erabatekoa izatera pasa da. Euskara-eskola ezinbesteko bikotea bilakatu da eta gazteek, orohar, eskola euskaraz egiteko/ikasteko/aritzeko espazio gisa identifikatzen dute. Askoren kasuan gainera, familia giroa zein hurbileko testuinguru soziolinguistikoa dela eta, eskola da euskara ezagutzeko, entzuteko edota hitz egiteko ia esparru bakarra. Eurentzat, eskola euskararen oasia izan daiteke. Edozein kasuan, iraupen mugatutako oasia litzateke, adinarekin eskolako espazioa eta denbora zama pisutsu eta neketsu gisa irudikatzeko joera hartzen dutelako. Praktikan, eta beste toki batean aipatu dugunez, gazte askok eskola izendatzeko *kartzela* hitza erabiltzen dute (Hernández 2005:58).

Euskara-eskola bikote sendo honek duen garrantzia dela eta, aisialdira eta kirol arlora salto egin aurretik, urtetan izandako prozesu horretatik, elementu pare bat nabarmendu nahi dira, gazteen inguruan egiten diren ikerketetan, egitasmoetan edota gogoetan kontuan hartzekoak direlakoan gaudelako. Batetik, euskara-eskola harreman horrek hizkuntza ideologian izandako eragina azpimarratu nahi da; bestetik, bikote horrek emandako fruitu esanguratsuena nabarmendu nahi da, “hiztun berrien agerpena” alegia.

4.2.3. Eskola eta hizkuntza-ideologia

Gurean zein beste testuinguru askotan, hizkuntza tartean dela, “ideologia” hitza alboratzea izan da joera. Urte askotan zehar Euskal Herriko egoera sozio-politikoa zela eta, hizkuntza tentsio handiko eztabaiden erdigunean egon da eta, horren eraginez, euskara babestu nahian edo, kutsu ideologikoa zuen guztietatik kanpo atera nahi izan da. Dena dela, ahalegin hauek antzuak kontsideratu daitezke, hizkuntza guztiek, nahi

ala ez, dimentsio ideologiko bat dakartelako (Woolard eta Schieffelin 1994). Hori dela eta, euskararen babesa helburu zuten diskurtsoek ere ideologia zehatz bat garatzen lagundu dute, egun, egoera politiko berria dela medio (gehi beste faktore batzuen eragina tartean) krisian egongo litzatekeena.

Iñaki Martínez de Luna soziolinguista aspaldian ari da horretaz mintzatzen, *framing* berri baten beharra aldarrikatuz. Martínez de Lunaren ustez, euskararen etorkizunari dagokionez eginbehar funtsezkoa da (Martínez de Luna 2013: 14)

(...) gure ustez, euskararen etorkizunerako berebiziko bidegurutzea binomio horretan datza: euskara versus iritzi publikoa.

Egile berak azaltzen duenez, bere ikuspegia eta gaiarekiko hurbilpena teoria komunikatiboetatik dator (horregatik erabiltzen du “iritzi publikoa”-ren kontzeptua), baina horren azpian dagoen lehengaia diskurtsoa da (ibid):

(...) komunikazio politikoaren eta komunikabideen eragin kognitiboaren teorietatik edango dugu. Hurbilpen teoriko horiek lagunduko digute sistematikoki ezagutzen euskararen diskurtsoen eraketan zer-nolako osagai edo efektu, harreman, eragile eta eragin dauden.

Ikuspegia edozein izanda, planteamendu hauek baliagarriak gertatzen dira oso, azken finean hizkuntzek duten dimentsio subjektiboa azalarazten laguntzen dutelako. Argi geratzen da hizkuntzek, dimentsio komunikatiboa izateaz gain, bestelako dimentsio batzuk dituztela, besteak beste ideologiarekin (ideiekin, mundu ikuskerekin, uste edo sinesmenekin...) zerikusia dutenak. Horri, hizkuntza ideologia deitu izan zaio. Kathryn Woolard eta Bambi Shieffelin aitzindariak eta adituak dira eremu horretan eta, bere hitzak, bereziki lagungarriak dira esparru horren definizioa egiteko. Zer da hizkuntza ideologia? Hona hemen aproposa iruditzen zaigun definizioa bat (Woolard eta Shieffelin 1994: 57):

“(...) sets of beliefs about language articulated by users as a rationalization or justification of perceived language structure and use”.

Gazteek, urteetan zehar, euskara zein bestelako hizkuntzen inguruan garatutako

ideologien eragina jaso dute. Gazteak, euren inguruan garatu diren diskurtso ezberdinen baitan egon dira. Familian bertan, komunikabideetan, lagunartean..., asko eta ezberdinak dira guneak zein eragileak euskarari buruzko (eta orokorrean hizkuntzei buruz) diskurtsoak, mezuak, irudiak..., sortzen eta elikatzen dituztenak. Denen garrantzia ukaezina da, eta horien presentzia somatu daiteke gazteek beraiek produzitzen edo erreproduzitzen dituzten diskurtsoetan. Halere, aurretik esandakoaren harira, pentsatzekoa da, gazteen kasuan, eskolak berebiziko garrantzia duela hizkuntza ideologia garatzeko garaian, ezagupena zein erabilera bermatzeaz gain, ideologia zehatz bat (edo batzuk) eratzen lagundu eta laguntzen duelako.

Are gehiago, pentsatzeko da euskararen eremuan aritu direnen eragileen artean, eskola izan dela, azken urteotan hizkuntza ideologia sendoena (edo garatuena) plazaratu duena. Behintzat ume eta gazteei begira. Datuek argi erakusten dutenez, ume eta gazte askoren kasuan, eskola eremu euskal elebakar bakarra izan da, eta bertan egin den euskararen aldarria eta ekarpena horri lotua egon da. Horrela, diskurtso, mezua, irudi jakin batzuk zabaldu dira, beti ere eskolak zituen hizkuntza helburuekin bat eginik. Eskolak ahaleginak egin ditu elikatu dituen irudiak eta diskurtsoak bere hezkuntza-praktikekin koherente izateko. Eta, neurri handi batean, horrela jaso dute gazteek.

Esanda dago: gazteen kasuan, eskola da hizkuntza ideologiari dagokionez eragile nagusia. Ez hainbeste eskolaren mezua onartu eta barneratu egiten dutelako, eskolaren mezua modu argi batean identifikatuta dutelako.

Publikoki, eskolak eremu euskaldun bat ordezkatzeko du, eta eskolan proiektzio publikoa duten figurek (jende aurrean ari direnak), -irakasleak nagusiki- euskaraz egiten dute. Hau oso garrantzitsua da ume eta gazteen hizkuntza sozializazio prozesuan, eskola barruan hizkuntzaren bidez (euskararen bidez kasu honetan) umeak eta gazteak sozializatuak izateaz gain, hizkuntzan (edota hizkuntzaren erabilpenean, sinesmenetan, hizkuntzari lotutako arau sozialetan...) sozializatuak izaten baitira. Ideia hau argiki azaltzen du Paula Kasaresek (2015:16):

Hizkuntza sozializazioak bi dimentsio nagusi aztertzen ditu, haurrak nola diren sozializatuak hizkuntzaren erabileraren bidez eta nola diren sozializatuak hizkuntza

erabiltzeko (...). Paradigma horretan⁵⁶ hizkuntza sozializazioa prozesu dinamikoa, elkarreragilea, bizitza osoan dirauena eta inguruneari lotua da.

Hizkuntzarekin loturiko sozializazioak garrantzia handia badu ere, gurean, oso arreta gutxi bereganatu du orain arte euskal soziolinguistikan. Kasaresek egindako lana ia erreferentzia bakarra da eta, zalantzarik gabe, lan horrek irekitzen dituen bideak arakatu eta garatu beharrekoak direlakoan gaude. Gizarte antropologiaren ikuspegitik, iker lerro honek hausnartzeko eta aztertzekeko eremu zabala irekitzen du. Ikerketa honen kasura ekarrita, planteamendu honetatik horrelako galderak agertzen zaizkigu: euskararen erabilera dela eta, nola izan dira hiztun hauek sozializatuak? Izan duten eta duten testuinguruak zer esaten die euskararen erabilpenari dagokionez? Zein arau, konbentzio, eredu edo jarraibide jaso eta barneratzen dituzte haur eta gazteek euskararen erabilerari dagokionez? Azkenean, zein ideologia dute eskuragarri euren jokabidea moldatu, osatu edo egokitzeko?

Gure hipotesia zera da: garaiak eta egoerak aginduta, euskararen zabalpenean hizkuntza bera (bere korpusa) erakustea izan da lehentasuna. Horretan inbertitu da arreta eta energia gehiena. Bide horretan hizkuntza eta euskararen inguruan –eta bereziki euskararen erabileraren inguruan- sortzen ari zen kultura (materiala, harremanezkoa zein sinbolikoa edo ideiei lotutakoa) (Hernández 2016) ikusezin mantendu da, prozesua behatzen eta aztertzen ari zirenentzat. Egun, pentsatzekoa da ezagutza eta erabileraren artean ematen den jauzia, besteaz beste, horren ondorioa ere izan daitekeela.

Euskara bezalako hizkuntza baten kasuan, erabilerak sostengu sozial eta kultural oso bat behar duela uste dugu eta egun testuinguru mesedegarri hori ez da edonon topatzen. Ikertutako gazte hauen kasuan, testuinguru hori eskolan eta familian aurkituko dute gehienbat, eurentzat –gazte gisa- erreferente desiragarriak ez diren eremuak, alegia. Gazteak, gazte gisa, (euren) gazte kultura garatu, osatu eta mantentzea baitute helburua.⁵⁷

⁵⁶ Kasu honetan egileak aipatzen duen paradigma *language socialization* bezala ezagutzen denaz ari da, Estatu Batuetan bereziki Elionor Ochs eta Bambi B. Schieffelin antropologoei 1980. hamarkadan garatutako iker lerroari erreferentzia egiten diona (Kasares 2015: 15).

⁵⁷ Gazteek gazte kultura sortzeko eta elikatzeko garatzen dituzten praktiken inguruan “Gu gazteok” izeneko ikerketa-txostena aipatu nahi dugu, hau, euskal gazteek euskararekiko duten harremana, gazte

Planteamendu hau bat dator aurretik aipatutako datuekin: familian baina batez ere eskolan egiten dute euskara gazte hauek. Hau logikoa dirudi, orain arte hizkuntza politikak eta hizkuntza plangintzak bultzatutako (hizkuntza) sozializazioa horretara bideratu dituelako umeak zein gazteak. Euskararen inguruan garatutako “kultura” (materiala, harremanezkoa zein sinbolikoa edo ideiei lotutakoa) horretara bideratu dituelako hiztun belaunaldi berriak. Gazteek barneratu dute testuinguru, esparru, eremu eta egoera jakin batzuetan euskara, bai ala bai, erabiltzen dela eta erabili behar dela. Hori konbentzio bilakatzen den neurrian, horretara egokitzen saiatzen dira. Baina, zer gertatzen da sozialki onartuta dagoen horretatik aparte, hau da arau soziala den horretatik aparte?

4.2.4. Hiztun berrien agerpena eta hizkuntz paisaia berria

Beste toki batean idatzi dugun moduan (Hernández 2011), eskola mistoa ez da nahikoa izan berdintasuna lortzeko; era berean, eskola euskalduna ez da nahikoa izan euskaraz bizi ahal izateko. Gelan euskara lehen hizkuntza dutenak eta ez dutenak batera daude. Ordu asko ematen dituzte elkarrekin, irakasle berdinen aurrean, gauza berdinak lantzen eta ikasten. Denek helburu berdinak bete behar dituzte, antzeko lan dinamika, etxeko lan, betebeharrak... Halere, gela barrukoa baino, kanpokoak ematen digu errealitatearen neurria.

Orain arte azpimarratu dugun moduan, eskolak, zalantzarik gabe, lan nabarmena egin du belaunaldi berriak euskalduntzen, eta, alde horretatik, ezinbesteko protagonismoa bereganatu du gaztetxoek euskalduna sendotze prozesuan. Baina sendotzearekin batera – paradoxikoa badirudi ere- zabaltzen prozesu bat ere gertatu da. Horren balorazioa edozein izanda ere, onartu behar da eskolak (hiztunen) dibertsitatea areagotu egin duela. Helburua bestelakoa izan badaiteke ere, gizarte egiturari lotutako bestelako ezaugarriak eta baldintzak abiapuntu oso ezberdinak ezartzen dituzte hiztunen profilak osatzerakoan, aukerak biderkatuz. Edozelan ere, gurean orain arte gauzatutako ikerlanetan zaila da egoera (konplexu) horen isla topatzea, ez baldin bada hizkuntz ezagupenari erreferentzia egiteko.

izate horretatik aztertzeko saiakera bat baita. Txosten hau eskuragarri dago interneten: http://www.ogasun.ejgv.euskadi.eus/r51-catpub/es/k75aWebPublicacionesWar/k75aObtenerPublicacionDigitalServlet?R01HNoPortal=true&N_LIBR=051908&N_EDIC=0001&C_IDIOM=eu&FORMATO=.pdf (2017/02/18)

Horregatik da bereziki zaila, egun, gazte euskaldunei buruz hitz egitea. Helduok beste errealitate bat ezagutu dugu: agian gogorragoa, arrotzagoa, baina seguraski argiagoa. Orain dela 30-40 bi hiztun profil nagusi zeuden: euskara zekitenak eta ez zekitenak. Egun ikastetxe bakarra hartuta edota Euskal Herri osoa hartuta, dibertsitatea da nagusi, baita era hizkuntzari dagokionez. Orain continuum zabal baten aurrean gaude. Eta hori –berriz diogu- posible izan da eskolari esker (eta euskalduntze lanetan parte hartu duten erakundeei esker).

Continuum-aren ideia erabili izan dugu batzuetan (ibid), eta continuum honetan kokatu behar ditugu egungo euskal hiztunak. Horren ondorioz, gero eta zailagoa egiten zaigu hiztunaren profila irudikatzea. Lehenago ez bezala, orain ñabardurak dira nagusi, baita ere aurreikuspenak egiteko garaian.

Jarritako helburua lortu da. Euskarak hiztun berriak lortu ditu. Eta hiztun berri horietako asko izan ditugu aurrean ikerlan hau gauzatzen ari ginela. Ziurtasunez ezin badugu esan ere, behatutako nerabe gehienak edo asko profil “berri” horren barruan kokatu ditzakegu.

Zer dakigu hiztun berri horiei buruz? Zer dakigu bizi izan duten (euskalduntze) prozesuari buruz? Zer egin dute eta zer egiten dute hiztun berri horiek hizkuntzarekin? Azken hamarkadetan gehien handitu den hizkuntz tipologia hau dela jakinda ere, esan daiteke, egun, hiztun berrien inguruko profilaren deskribapena egiteke dagoela.⁵⁸ Zentzu horretan, adierazgarria da Ane Ortega eta bere taldekideek (Ortega et al. 2014) hiztun berrien inguruan ondorioztatu dutena: hiztun berri gehienak ez dute bere burua definitzen euskaldun zahar bezala, nolabaiteko legitimitatea ez diotelako ematen euren buruari. Baina, era berean, asko ez dira identifikatzen euskaldun-berrien irudiarekin. Ez batean ez bestean. Horregatik asko eta asko *euskaldun* bezala agertzea nahiago dute. *Euskaldun* besterik ez.

⁵⁸ Zorionez egun, hiztun berrien gaiak interesa piztu du, bai Euskal Herrian, bai Euskal Herritik kanpo. Hori dela eta, hainbat ikerlari ari dira eremu horretan lanean. Interes horren fruitua da, esate baterako, Ane Ortega, Estibaliz Amorrortuk, Jone Goirigolzarri, Jaqueline Urla eta Belen Urangak osatutako azterlan interesgarria.

4.2.5. Gazteak, aisialdia eta kirola

Patioak edozein herriko plazaren antza du. Bertan, umeak edota nerabeak aske dira, helduen bistan (batzuetan irakasleak, besteetan gurasoak), baina aske euren arteko jolasak eta elkarrizketak gauzatzeko. Betebeharrik gabeko denbora, berea den espazio batean. Gelak ez du zerikusirik patioarekin. Eskolak ez du zerikusirik kalearekin. Edo bai?

Ikerketan zehar ikusi den bezala, eta txosten honetan aipatu den moduan, nerabeen artean aisialdiak garrantzi handia du. Euren denbora eta eurentzako denbora gisa kontsideratzen dute. Are gehiago, gazteen artean aisialdiak duen indarra ikusita esan daiteke, neurri handi batean, aisialdia dela gazteen identitatea osatzeko ezinbesteko unea/gunea. “Gazteek, neurri handi batean, aisialdiaren bitartez eraikitzen dute euren bizimodua, izaera, diskurtso... euren gazte izateko era” (Hernandez, 2011:591).

Aurretik egindako hainbat ikerketetan oinarrituta (Berrio-Otxoa, Martínez, Hernández 2001, 2003) esan daiteke gazteei begira osatutako aisialdiaren definizioa egitera iritsi garela (Berrio-Otxoa, Martínez, Hernández, 2003:7):

“Ezbairik gabe, gure gizartean denbora librea garrantzi handiko denbora da gazteentzat. Izan ere, ikasketekin edo bestelako betebeharrekin okupatuta ez dagoen denbora izanik, aukera ematen die gazte-garaian oso premiazkoa den beharrian bati erantzuteko: norberaren subjektibitatea garatzea eta modu librean adieraztea. Horrela, eskoletatik eta gainontzeko eginbeharretatik kanpo gelditzen zaien denbora librea bezala definituta aisialdia, aisialdiko denbora horretan bere harremanak, zaletasunak eta bete nahiak lantzeko aukera dute. Seguru asko, aisialdi momentu horiek euren barneko nahi, balio eta desioak adierazteko aukera bezala ikusten dituzte; aukera gauzatua edo frustratua izango dena, inguruan topatzen edo sortzen dituzten harreman, jarduera eta eskaintzen arabera”.

Aisialdia ezinbesteko elementua litzateke gazte identitatea (gazte izatea zer den) ulertzeko, edo beste hitzetan, gazteek, neurri handi batean, aisialdiaren bitartez eraikitzen dute euren bizimodua, izaera, diskurtso... euren gazte izateko era.

Noski, aisialdi garatzeko aukera anitzak daude egun. Denak ez daude denen eskura, eta, denek ez dute berdin asetzen gazteen behar edo desio. Beste toki batean (ibid.) gazteen

aisialdiak hartzen dituen eszenatoki ezberdinen deskribapena egin dugu. Horrela, gune konpartituak, gune monitorizatuak, gune birziklatuak eta berezko guneak bereiztu ziren. Sailkapena baliagarri gertatu zen, aisialdi mota bakoitzean sakontzeko aukera ematen duelako. Gainera, gune bakoitzarekiko gazteek agertzen duten jarrera, nahiak... eta abar, jasotzen eta kokatzen ahalbideratzen du.

Sailkapen bera erabili izan da urte batzuk beranduago beste ikerketa batean (Euskararen Aholku Batzordea 2016), eta kasu honetan argi geratu da, nerabeen kasuan (12-14 urte ingurukoak), aisialdiaz ari garela, bi gune gailentzen direla. Batetik, gune birziklatuak (plazak, parkeak, kaleko txokoak...), eta bestetik, gune monitorizatuak, adibidez, aisialdi taldeak, gaztelekuak, eta bereziki kirol taldeak. Ikerketa horretan argi agertu zenez, kirola garrantzi handiko esparrua da. Zalantzarik gabe, eskolaz kanpoko jardueren artean nabarmenena da, bai praktikan, bai gazteen zaletasun aldetik ere. Txosten honetan bertan, lehenengo atalean, hainbat datu esanguratsuak eman dira horren inguruan. Horietan islatzen den moduan, adin honetako gazte askok kirol praktikaren bat egiten dutela.

Gainera, praktikatik aparte, gazteentzat kirolak erreferentziazko mundu bat osatzen duela nabarmendu behar da, hainbat kasuetan –bereziki futbolariak- euren idoloak izanik.

Kirola beraz paradoxa batean kokatuko genuke. Batetik, gustuko jarduera dute gazteek (eta bereziki nerabeek); baina bestaldetik, gune monitorizatu batean kokaturik, izaera adulozentriko⁵⁹ nabarmena du, azken finean kirola (gune monitorizatu horretan kokatu daitezkeen bestelako jarduerak bezala), gazte gehienek praktikatzen duten kirol mota behintzat, helduek sortua, antolatua eta gidatua litzateke. Are gehiago, neurri batean, helduen interesetara egokitutako jarduera izango litzateke.

Hizkuntzari dagokionez, aurretik aipatutako ikerketan (Euskararen Aholku Batzordea 2016) parte hartu zuten nerabeek kirol praktiketan euskararen presentzia ez dela oso handia aitortu zuten. Beraien kasuan, praktikatzen zituzten kirolean - futbola,

⁵⁹ Konzeptu hau –*adulozentrikoarena* alegia- Joan Pallarés eta Carles Feixak erabiltzen duten gisara erabili nahi izan dugu guk ere. Egile hauek azaldutakoaren hariria, eredu *adulozentrikoa* helduen ikuspuntu, nahi edo behar ezberdinetatik diseinatutakoa litzateke, erdian gaztetxoek nahiak edo balioak baino gurasoena edo nagusiek dituztenak kokatuz. Konzeptu honen inguruan azalpen gehiago behar izanez gero, *ikus*: Feixa, Carles (2000): “Espacios e itinerarios para el ocio juvenil nocturno”. *Estudios de Juventud*, 50.

eskubaloia eta saskibaloian- euskaraz eta gaztelaniaz aritzen zirela azaldu zuten, baina lekuan lekuko lanean antzeman genuenez, kirolarekin jasotako adierazpen eta erreferentzietan gaztelaniak askoz presentzia handiagoa zuen euskarak baino. Nabarmenena futbolaren kasua izan zen: ia mutil guztientzat oso garrantzitsua den praktika da eta ikerketan zehar futbolarekin lotuta jasotako hizketaldi, esamolde, antzezpen eta bestelako erreferentzia guztiak gaztelaniaz izan ziren.

Modu honetan, aisialdia eta bereziki kirolaren eremuak kontraste handia suposatzen du eskola eremuarekin. Modu horretan, eskolaren lanak, zaila du jarraipena izatea behin bere ateak igaro eta gero. Baina hau esanda, azpimarratu behar da, azken urteetan euskararen inguruan egindako hainbat ikerketak, aisialdian garatzen diren jardueren garrantzia nabarmendu dutela. Horren adibide esanguratsuena Arrue izeneko ikerketa da (Eusko Jaurlaritza, 2013). Bertan ondorioztatu zuten DBH2n hizkuntza-erabilera eskolaz kanpoko jarduera antolatuetan dela ikasleen eskolako erabilera orokorrean garrantzia handiena duen aldagaia. Beraz, eskolaz kanpoko hizkuntza-giroak eskolaren baitako erabileran duen zeharkako eragina handia da (Eusko Jaurlaritza, 2013:61).

Hau, noski, arrazoi indartsu bat izan daiteke kirol arloan euskara bultzatzen jarraitzeko, baina gehiago daude. Horrela, txosten honi bukaera emateko, horietako arrazoi batzuk aipatuko ditugu, kirol eremuan esku-hartzearen aldeko argudioak mahai gainean jartzeaz gain, interbentzioa planteatzeko garaian kontuan hartu beharreko zenbait elementu azpimarratzeko asmoz.

Lehenik eta behin, kontuan hartu behar da, aisialdiko jarduerak, eta bereziki kirola, haurtzarotik nerabazarora eta, gero, gaztarorako igarobidea izaten dela kasu askotan. Hau da, 12 urte inguruan kirola uzteko joera nabarmena bada ere, asko dira euren gustuko kirolean mantentzen direnak. Era honetan, aukera dago kirolak sozializaziorako gunea gisa duen indarra eta garrantzia luzaroan irauteko. Bertan euskaraz garatutako harremanak zein praktikak eta ohiturak sendotzeko parada izango lukete gazteek.

Beste elementu bat kontuan hartzekoa kirolak gazteei ematen dien protagonismoa litzateke. Egitura adoltozentriko batean bada ere, heldu askoren ardurapean bada ere, gazteek kirolaren erdigunea hartzen dute. Beste gizarte eremu askotan gertatzen ez den moduan, bakarka nahiz taldekako kirolean, beraiek dira jokoa bideratu eta gauzatzen dutenak. Beraiek dira begirada guztien jomuga. Kirola beraz gazteen agentzia

eskuratzeko bidea izan daiteke, orohar “isildutako norbanako hauek” gizartean eragiteko eta ekiteko duten gaitasuna aitortuz eta berreskuratuz (Altuna 2016:57). Izan ere, gazte askok euskararen auzian duen arduraz kontzienteak badira ere, horri aurre egitekoa euren eskuetatik kanpo geratzen dela pentsatu dezakete, arlo honetan egitekoak beti beste batzuen eskuetan –helduen eskuetan nagusiki- egon direlako.

Agentzia horretatik, uste dugu gazteen zeregina birformulatzeko parada egon daitekeela. Batez ere, edo, bereziki kirolaren eremuan/eremutik.

Johan Huizingak (1972⁶⁰) ekarpen oso garrantzitsua egin zuen, jokoak kulturarekin duen harremana hobeto ulertzeko. Gaur egun ezinezkoa da jokia zein kirolari buruz hitz egitea Huizingaren lanari erreferentzia egin gabe. Ikerlan honen kasuan ere egile honen planteamendua inspiratzailea izan da, gazteak kirolean ari direla zein elementu dauden “jokoan” hobeto ulertzeko.

Huizingaren ustez kultura jokia da (Huizinga 1972: 94), jokoak kultura sortzen eta islatzen duelako. Testuinguru hurbilago batean Joseba Zulaikak (1988) kultura eta jokia/jolasaren arteko lotura estua aldarrikatu du behin baino gehiagotan, borroka armatua ulertzeko orduan, jokia/lehiak euskal kulturaren dituen sustraiak abiapuntu gisa irudikatzen iritsiz.

Ez da gunea, ez unea planteamendu hauetan sakontzeko, baina ideia pare bat berreskuratu nahi izan ditugu lantzen ari garen gaiarekin zerikusia dutelako. Horietan, gainera, aukerak ikusten ditugu aurrera begira hainbat lan ildo teoriko zein aplikatuak garatzeko.

Aipatu denez, Huizingak jokoak/kirolak kulturaren sorrerarekin duen loturaz ohartarazten gaitu. Garrantzirik gabeko jarduna edota denbora pasa hutsala denik guztiz ezeztatzen du; lehiak ondo erakusten duen moduan, horrelakoetan jokoan dagoena jokia bera gainditzen du, askotan herri edo talde baten identitatea erdigunean jarritz (Hernández, Díez 2017). Modu honetan, jokia kultura eta identitatearen eszenatoki bilakatzen da. Maila makroan pentsatzen jarrita, ideia hau erraz lotu dezakegu futbolaren inguruan antolatzen eta jokatzen diren txapelketa handiekin; baita ere Olinpiar Jokoekin. Baina planteamendu honek maila mikroan ere kontuan hartu beharreko gauzapeña duela uste dugu.

⁶⁰ Originala 1938an argitaratu zen.

Horrela, ume zein gaztetxoak, jokoan eta jokoaren bidez, kultur sortzaile eta eragile gisa agertzen zaizkigu, eta ondorioz, hizkuntz kultur sortzaile eta eragile. Horretako bideratuko testuinguru bat beharko dute noski, baina protagonismoa (ere) bere gain egon behar du, eragiteko eta eraldatzeko gaitasuna eurek dutelako.

Jokoak gainera gaitasun hori ahalbideratzeko hainbat aukera ematen ditu. Batetik, eta talde kirolari dagokionez, “kultura” talde jarduna bihurtzeko aukera egongo litzateke; jardun partekatuta, taldea bera indartuko duen jarduna. Bestetik, jokoak pertsonari errealitatetik ihes egiteko ematen dion aukera genuke (Hernández, Díez 2017), “balitz” antzeko batean kokatzeko aukera, “orain eta hemen” agintzen digun horretatik alde egiteko. Jokoak zein jolasak horretarako bidea ematen dute. Eta hori ilustratzeko, Kike Amonarrizen txiste hau etorri zaigu burura:

Soraluzeko adiskide batek kontatu dit, duela gutxi, bertan gertatutako pasadizo esanguratsu hau.

Haurrak jolasean ari dira eta kafea hartzen ari diren gurasoetako bat erdaraz ari direla ohartu da. Mahaitik altxa, inguratu, eta zera esan die:

- Haurrak! Euskaraz egin!

Eta haurretako batek:

- Aizu! Gurasoetara ari gara jolasten!

“Balitz” horrek aukera ematen badu errealitatetik ateratzeko, hor egoera berriak sortzeko bide bat (edo gehiago) egon daitekeela pentsatzen dugu.

Bidea edo bideak aztertzen jarrita, “D ereduko kirola” sortzeko unean ume eta gazteek berebiziko protagonismoa eduki behar dutela uste dugu. Hori egin ezean, “D ereduko eskolaren” ibilbidean gertatutako huts egiteak errepikatzeko arriskua egon daitekeelakoan gaude.

Charlotte Selleck-ek Gales-en egindako lan etnografikoak argi erakusten digu eskolan oinarritutako ideologiak eta praktikek gazteengan sortutako eragina, jada aisialdiaren eremuan antzeman daitekeena (Selleck, 2016:554):

I draw on the Youth-Club as a site that captures a component of young people’s leisure time and leisure space, in order to explore the informal contexts and processes whereby young people can shape and manage their identities. It is such a space, away from parents and teachers, that significant aspects of young people’s personal and

social identities are affirmed, contested, rehearsed and re-worked.

Eta Selleckek berak azpimarratzen duenez, justu espazio hauetan, eskolaz kanpoko espazio “aske” hauetan, galesa arriskuan jartzen ari da: (...) *outside in the ‘real’ world the Welsh language is threatened on a daily basis.* (ibid).

Eskolan eta eskolatik kanpoko. Selleckek berak nabarmendu du, bi espazio horien artean sortutako hutsunea (... *a gulf between the increasing number of young people receiving their education through the medium of Welsh, and the levels of Welsh language use outside school* – Selleck, 2016: 561-) etorkizunari begira dagoen erronka nagusienetarikoa dela galesa bezalako hizkuntza gutxitu batentzat. Horrekin lotuta, azken urteotan hizkuntza politikak hartutako hainbat erabakien gainean zalantzak agertzen ditu, izan ere, Galesen nagusitu den joera gazteen aisialdian eskuhartze zuzenagoa eta zorrotzagoa bultzatzea izan da. Horrek, Sellecken ustez hainbat galdera uzten ditu airean: lortuko du horrek hizkuntza (galesa) “bizi” bat? Zein jarrera sortaraziko ditu gazteengan? Asaldatako dira gazteak eta politika horien kontra joko dute? Eta euren aisialdirako bultzatutakoa ez den beste hizkuntza bat (kasu honetan ingelesa) aukeratzen dutenak, baztertuak izango dira?

Gaude Selleckek planteatutako galderak baliagarriak eta aplikagarriak izan daitezkeela euskal soziolinguistikaren eremuan. Era berean, egileak egoera horren aurrean duen jarrera biziki interesgarria iruditzen zaigu. Soziolinguistika kritiko baten alde eginez, egungo egoeraren konplexutasuna azpimarratu eta gero, “boterea” gazte belaunaldien eskuetan uztearen aldekoa agertzen baita: (...) *if the future of the Welsh language is ultimately down to younger generations, then power and control needs to be delivered to them* (ibid).

Eta azkenean... zer?

5. BIBLIOGRAFIA

ABERASTURI, Unai eta LASAGABASTER, Iñaki (2016) *Araubidean egin daitezkeen moldaketak, gaztetxoel kirola D ereduan egin dezaten ziurtatzeko*. Udaltop. On-line kontsulta <http://www.udaltop.eus/documents/192363/807222/Unai+Aberasturi_I%C3%Blaki+Lasaga+baster.pdf/d1b7b437-28ad-4c83-8f99-d70b1fc1fde7>

ALTUNA, Jaime (2016) “Euskara generoaren ispiluan barrena. Hizkuntza praktikak, bizipenak eta gogoetak Lezo eta Pasai Donibaneko nerabeen artean “. Master Amaierako Lana. Argitaratu gabe.

BERRIO-OTXOA, Kontxesi; MARTÍNEZ, Zesar; HERNÁNDEZ, Jone M. (2003) *Gaztetxoak eta Aisialdia. Etorkizuna aurreikusten (2001-2002)*. Soziologiazko Euskal Koadernoak 13. Eusko Jaurlaritza.

ASOCIACIÓN DE FEDERACIONES DEPORTIVAS DE ÁLAVA (2013) “Mujeres en el deporte federado de Álava: propuestas para fomentar su participación” On-line kontsulta <<http://www.afdalava.com/wp-content/uploads/2015/04/Informe.pdf>>

EUSKO JAURLARITZA (2004) “Registro de entidades deportivas del Pais Vasco” On-line kontsulta<<http://www.kultura.ejgv.euskadi.eus/u75aWebAppWar/consultasJSP/clubs/u75aDisplayNavTab.do?R01HPage=518&idOtraModalidad=&idModPrincipal=&idTerrHistSocial=1&d-103214-p=104&idLocalidad=59&R01HPortal=r46&idLocalidadSocial=59&clubName=&accion=Bilatu&idTerrHist=1&R01HLang=eu>>

EUSKO JAURLARITZA (2013) *Ikasleak hiztun. 2011ko Arrue proiektua*. Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saila.

EUSKO JAURLARITZA (2016) “EAEko kirol arloko giza baliabideen lan-egoerari eta kualifikazioari buruzko azterlana” Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saila. On-line kontsulta <http://www.euskadi.eus/contenidos/noticia/estudio_situacionlaboral/eu_def/adjuntos/Kirol_eragilean_lan_eta_kualifikazio_azterlana_euskera.pdf>

EUSKARAREN AHOLKU BATZORDEA. HIZKUNTZA POLITIKARAKO SAILBURUORDETZA (2016) *Gu gazteok*. Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritza.

EUSTAT (2016) “Biztanleen Udal-Erroldaren Estatistika (BUEE)”. 2016ko urtarilaren 1ean. ON-line kontsulta <http://eu.eustat.eus/municipal/datos_estadisticos/info_territorial_e.html>

FEIXA, Carles (1999) *De jóvenes, bandas y tribus. Antropología de la juventud*. Barcelona: Ariel.

FEIXA, Carles (2000) “Espacios e itinerarios para el ocio juvenil nocturno” in *Estudios de Juventud*, 50: 23-41

GASTEIZKO UDALA (2010) “Udalaren II. Gazte plana”. On-line kontsulta <<https://www.vitoria-gasteiz.org/wb021/http/contenidosEstaticos/adjuntos/es/27/34/32734.pdf>>

GASTEIZKO UDALA (2013) “Euskara biziberritzeko plan nagusia-Gasteiz 2013-2017” On-line kontsulta < <http://www.vitoria-gasteiz.org/wb021/http/contenidosEstaticos/adjuntos/eu/07/37/60737.pdf>>

GASTEIZKO UDALA (2016a) “Gasteizko 2016ko biztanleriari buruzko txostena” On-line kontsulta: <<https://www.vitoria-gasteiz.org/wb021/http/contenidosEstaticos/adjuntos/eu/40/39/64039.pdf>>

GASTEIZKO UDALA (2016b) “Oroit-Idazkia Memoria” Kultura, Hezkuntza eta Kirol saila. On-line kontsulta <<http://www.vitoria-gasteiz.org/wb021/http/contenidosEstaticos/adjuntos/es/91/74/69174.pdf>>

GASTEIZKO UDALA (2017) “Kirol instalazioen udal sarea” On-line kontsulta <https://www.vitoria-gasteiz.org/we001/was/we001Action.do?aplicacion=wb021&tabla=contenido&idioma=eu&uid=u_4507d506_12ba3d5752f_7f72>

GAZTEEN EUSKAL BEHATOKIA (2013) “Gazteen adierazleak. Euskadiko gazteen panoramika” Eusko Jaurlaritza. Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila. On-line kontsulta <http://www.gazteaukera.euskadi.eus/contenidos/informacion/gazteen_panoramika/eu_liburua_k/adjuntos/fitxak_e.pdf>

GETXOKO UDALA (2010) “Getxon Euskarak badu etorkizunik III-Azterketa soziolinguistikoa” On-line kontsulta <http://www.getxo.eus/DocsPublic/euskara/EUSK_behin_betikoa.pdf>

GETXOKO UDALA (2015) “Pasa baloia euskarari!” On-line kontsulta <<http://getxo.eus/eu/euskara/noticias/183>>

GETXOKO UDALA (2015) “Euskara zerbitzuak 2014an egindako lanaren inguruko txostena” On-line kontsulta <http://www.getxo.eus/DocsPublic/euskara/OROITIDAZKIA_2014_def.pdf>

GETXOKO UDALA (2016). “Getxoko kirol klub Zerrenda”. On-line kontsulta <<http://www.getxo.eus/eu/getxo-kirolak/deporte-federado/listado-de-clubes>>

GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA (2016) *Eskola-kirola 25 urte*. Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura, Turismo eta Gazteria Saila. On-line kontsulta <<http://www.gipuzkoakirolak.eus/documents/205722/250178/25+an%CC%83os+deporte+escolar+eu.pdf/e6f93838-8b69-4f9f-ba5e-4bc4cbfd4cdf>>

HELLER, Monica (2006) *Linguistic Minorities and Modernity*. New York: Continuum.

HERNÁNDEZ, Jone M. (2005) *Jolasgaraia. Gaztetxoak, hizkuntzak eta identitateen adierazpenak*. Soziologiazko Euskal Koadernoak 16. Eusko Jaurlaritza.

HERNÁNDEZ, Jone M. (2010) “Baina gu ere gazteak izan ginen. Gazte euskalduna izatearen esanahia atzo eta gaur” in *Euskera*, 55-2: 579-607.

HERNÁNDEZ, Jone M. (2011) “Arnas-uneak. Gazteak eta euskararen momentua” in *Ikasleak hiztun. 2011ko Arrue proiektua*. Eusko Jaurlaritza; 251-257.

HERNÁNDEZ, Jone M. (2016) “Jarrera eta motibazio kontzeptuen haratago... Hizkuntza kultura, praktikak eta emozioak”, *BAT aldizkaria*, 99; 179-195.

HERNÁNDEZ, Jone M.; DíEZ, Carmen (2017) “Cuerpos que compiten. Cultura vasca y procesos de generización”. Prentsan.

HUIZINGA, Johan (1972). *Homo ludens*, Madrid, Alianza editorial.

KASARES, Paula (2014) *Euskaldun hazi Nafarroan. Euskararen belaunez belauneko jarraipena eta hizkuntza sozializazioa familia euskaldunetan*. Euskaltzaindia.

KASARES, Paula (2015) “Euskararen belaunez belauneko jarraipena aztergai eta jomuga”, *BAT aldizkaria*, 94; 13-45.

KIROLBEGI- GIPUZKOAKO KIROL BEHATOKIA (2012) “Estudio: Sobre la participación en el deporte federado en Gipuzkoa” On-line kontsulta
<http://www.kirolbegi.net/docs/reports/Informe_deporte_federado_Gipuzkoa_10.pdf>

KULTURA, HEZKUNTZA ETA KIROL MINISTERIOA (2015) “Licencias y clubes 2015”. Espainiako Gobernua. Kontsulta on-line
<<http://www.csd.gob.es/csd/asociaciones/1fedagclub/03Lic>>

MARTÍNEZ DE LUNA, Iñaki (2013) “Euskarak duen "Framing" Berri baten premia asetzeko proposamena”, *BAT aldizkaria*, 86; 13-83.

MORGAN, Marcyliena (2004) “Speech Community” in Duranti, Alessandro (2004): *A Companion to Linguistic Anthropology*. London: Blackwell; 3-33.

ORTEGA, Ane; Amorrortu, Estibaliz; Goirigolzarri, Jone; Urla, Jacqueline; Uranga, Belen (2014) “New Basque speakers: linguistic identity and legitimacy” in Maite PUIGDEVALL (coord.). “New speakers of minority languages: belonging and legitimacy” [online dossier]. *Digithum*, no. 16, pp. 47-58. UOC. On-line kontsulta<<http://journals.uoc.edu/index.php/digithum/article/view/n16-ortega-amorrortu-goirigolzarri-urula-uranga/n16-ortega-amorrortu-goirigolzarri-urula-uranga-en>>

PUJOLAR, Joan; GONZALEZ, Isaac; MARTÍNEZ, Roger (2010) “Les mudes lingüístiques dels joves catalans” in *Llengua i ús. Revista Técnica de Política Lingüística*, 48:65-75.

REAL FEDERACIÓN ESPAÑOLA DE FÚTBOL (2014) “Licencias 2013-2014”. On-line kontsulta <http://cdn1.sefutbol.com/sites/default/files/pdf/licencias_2013-2014.pdf>

REAL SOCIEDAD FUNDAZIOA (2016) Elkartearen web orria. On-line kontsulta
<<http://fundazioa.realsociedad.com/>>

SELLECK, Charlotte (2016) “Re-negotiating ideologies of bilingualism on the margins of education” in *Journal of Multilingual and Multicultural Development*, 37-6; 551-563.

SOZIOLINGUISTIKA KLUSTERRA, TOPAGUNEA eta URTXINTXA (2011) *Gazteen hizkuntza erabileran kokatu eta bertan esku-hartzeko gida. Erabileraren GPSa. Soziolinguistika Klusterra*.

SOZIOLINGUISTIKA KLUSTERRA (2016) “EDB datu basea”. On-line kontsulta
<<http://www.soziolinguistika.eus/edb/index.php?erakus=aurkezpena>>

UGALDE, Dorleta (2016) “16 urtez azpiko kirola: antolamendua eta araubidea EAEn. Udaltop”. On-line kontsulta
<<http://www.udaltop.eus/documents/192363/807222/Dorleta+Ugalde.pdf/a8f81ac2-d9fd-443e-8477-3cd9eb91f5d1>>

UNSAIN, Joxan (2011) *12-16 urte bitarteko nerabeen kirol-jarduera fisikoak. Lasarte Oria, 2009-2010*. Argitaratu gabeko tesia. Euskal Herriko Unibertsitatea UPV/EHU.

WOOLARD, Kathryn; Schieffelin, Bambi (1994) “Language Ideology” in *Annual Reviews Anthropology*, 23; 55-82.

ZARAMAGA PILOTA ELKARTEA (2016). Elkartearen web orria. On-line kontsulta
<<http://zaramagapilotaelkartea.blogspot.com.es/p/instalazioakbaliabideak.html>>

ZARAUTZ KIROL ELKARTEA (2016) Elkartearen web orria. On-line kontsulta<<https://zke-eskubaloia.com/>>

ZULAIKA, Joseba (1988). *Violencia Vasca. Metáfora y sacramento*. Madrid, Nerea.

ZULAIKA, Luis Mari Zulaika (2016) “8-16 urte arteko neska-mutilen kirola Euskal Herrian: eskola kirola, kirol eskolak eta ulertzen ez ditugun beste elkarketa batzuk” Udaltop. On-line kontsulta
<<http://www.udaltop.eus/documents/192363/807222/Luis+Mari+Zulaika.pdf/d31a81e4-ee00-4d6e-a4ed-5c7f36ee006c>>

6. ERANSKINAK

Behaketarako gidoia

Datu orokorrak:

Tokia:

Eguna:

Ordutegia:

Behaketa egin duen pertsonaren datuak:

Izen-abizenak:

1.- Hasiera:

(Gunera iritsi eta deskribapen orokorra egin ezazu)

- 1.1.- Tokiaren ezaugarri orokorrak deskribatu
- 1.2.- Pertsonen deskribapen orokorra (adina, generoa...)
- 1.3.- Nabaritzen duzun giroa

2.- Sarrera

- 2.1. Sartzeko/iristeko modua (banaka, binaka, taldeka...; lasai/astoratuak, helduekin datos?, bakarrik?...)
- 2.2. Hizkuntza: euskararen erabilera, erabilera mota egoeraren arabera, hizkera mota...
- 2.3. Nola zuzentzen dira bertan daudenei (agurtzen dute?, helduengana jotzen dute, beste gazteengana...)
- 2.4. Saioa hasi bitartean egiten dutenaren deskribapena

3.- Saioa

(Entrenamendua edo partida)

- 3.1. Parte hartzea: nolakoa izan da? Nork hartu du parte? Nork ez du parte hartu? Parte hartzeko modu ezberdinak, protagonistak (edo liderrak).
- 3.2. Giroa: nolakoa da? Lasaia? Astoratu? Zerk eragiten du giro bat edo beste bat?
- 3.3. Harremanen deskribapena: beraien artean, entrenatzaileekin, gurasoekin, arbitroarekin...
- 3.4. Hizkuntza praktiken deskribapena:

a) Entrenatzailea:

- Zer hizkuntza erabiltzen du: azalpenetan, aginduetan, talde handian, talde txikietan, banakako elkarriketetan, gurasoekin, epaileekin, beste entrenatzaileekin...?
- Zer hizkera mota erabiltzen du? (formala, informala, euskalkia, hitanoa, nahasketa...) Egoera guztietan hizkera bera al da?
- Nola adierazten ditu emozioak? Haserrea? Tristura? Poza?. Egoera hauen hizkuntza praktikak deskribatu: epailearekin haserrea, entrenatzailearekin haserrea, gola sartzerakoan poza, gola sartzerakoan tristura, animoak, txantxak...

b) Gazteak:

- Zer hizkuntza erabiltzen dute: entrenatzailearekin hitz egiterakoan, talde handian, talde txikietan, banakako elkarrizketetan...?
- Zer hizkera mota erabiltzen dute? (formala, informala, euskalkia, hitanoa, nahasketa...) Egoera guztietan hizkera bera al da?
- Nola adierazten dituzte emozioak? Haserrea? Tristura? Poza?. Egoera hauen hizkuntza praktikak deskribatu: epailearekin haserrea, entrenatzailearekin haserrea, gola (tantua, saskia...) sartzekoan poza, gola (tantua, saskia...) sartzekoan tristura, animoak, txantxak...

c) Ikusleak:

- Zer hizkuntza erabiltzen dute: entrenatzailearekin hitz egiterakoan, talde handian, talde txikietan, banakako elkarrizketetan...?
- Zer hizkera mota erabiltzen dute? (formala, informala, euskalkia, hitanoa, nahasketa...) Egoera guztietan hizkera bera al da?
- Nola adierazten dituzte emozioak? Haserrea? Tristura? Poza?. Egoera hauen hizkuntza praktikak deskribatu: epailearekin haserrea, entrenatzailearekin edo gazteekin haserrea, gola (tantua, saskia...) sartzekoan poza, gola (tantua, saskia...) sartzekoan tristura, animoak, txantxak...

4. Amaieran

- 4.1. Ateratzeko modua (banaka, binaka, taldeka...; lasai/astoratuak...)
- 4.2. Hizkuntza: euskararen erabilera, erabilera mota egoeraren arabera, hizkera mota...
- 4.3. Nola alde egiten dute? Agurtzen dute? Kanpoan geratzen dira?

5. Entrenatzaileekin solasalditxo

(Amaitzerakoan entrenatzaileekin solasalditxo bat edukitzea komeniko litzateke beraien inpresioak jasotzeko)

Elkarrizketen gidoia

Elkarrizketaren datu orokorrak	Elkarrizketatuaren datuak
Tokia:	Izen-abizenak:
Eguna:	
Denbora:	Adina:
Elkarrizketa nork egin du:	

1.- Elkarrizketatuaren kirol-testuingurua

- 1.1.- Zer harremana izan duzun kirolarekin?
- 1.2.- Noiz hasi zinen kirola egiten?
- 1.3.- Zer kirol egin izan dituzu?
- 1.4.- Zer mailetan jokatu duzu?
- 1.5.- Zure kirol ibilbidean nolakoa izan da hizkuntza-praktika? Euskaraz? Bietan? Taldeen arabera?

2.- Entrenatzaile ibilbidea

- 2.1. Noiz hasi zinen? Zergatik?
 - 2.2. Beste talde batzuetan ibili zara?
 - 2.3. Beti adin bereko gazterekin?
 - 2.4. Formaziorik jaso al duzu?
 - 2.5. Gustatzen al zaizu? Zer eskaintzen dizu?
- Nola definituko zenuke zure burua entrenatzaile bezala? Zure ustez, badituzu ezaugarri jakin batzuk entrenatzaile gisa? Zein ezaugarri?

3.- Kluba

- Dakizunaren arabera, zein da klubaren jatorria?
- 3.1. Azaldu nolako kluba da hau: handia, txikia, jende asko mugitzen ote duen, neskak/mutilak... Esango zenuke klubak “filosofia” edo balio jakin batzuk dituela/bultzatzen dituela (zerekin identifikatzen da kluba?)
 - 3.2. Nola datoz gazetxoak klubera? Eskolen bidez? Kanpainaren bat egiten duzue? Zaila al da jendea erakartzea?
 - 3.3. Lana egiteko jendea topatzea zaila al da? Boluntarioak al dira?
 - 3.4. Deskribatu klubean dagoen giroa. Zein nolako ume-gazteak? Zein nolako familiak?
 - 3.5. Zer baliabide ditu? Instalazioak? Nola lortzen ditu diru-baliabideak?
 - 3.6. Zer harremana duen erakundeekin? Beste klubekin?
 - 3.7. Nola aukeratzen dira entrenatzaileak? Lehen entrenatzaile nor izango den nola erabakitzen da?

4.- Entrenamenduak eta partidak

- 4.1. Aurretik prestatzen al dituzue?
- 4.2. Planifikatuak al daude?
- 4.3. Zer nahiago duzu partidak ala entrenamenduak?
- 4.4. Azaldu entrenamendu baten ohiko sekuentzia edo eskema.

5. Hizkuntza-praktikak

a) Entrenatzailea:

- Zer hizkuntza erabiltzen duzu? azalpenetan, aginduetan, talde handian, talde txikietan, banakako elkarrizketetan, gurasoekin, epaileekin, beste entrenatzaileekin...?
- Zer hizkera mota erabiltzen duzu? (formala, informala, euskalkia, hitanoa, nahasketa...) Egoera guztietan hizkera bera al da?
- Nola adierazten dituzu emozioak? Haserrea? Tristura? Poza?. Egoera hauen hizkuntza praktikak deskribatu: epailearekin haserrea, beste entrenatzailearekin haserrea, gola sartzerakoan poza, gola sartzerakoan tristura, animoak, txantxak...

- Kirol terminologia zehatza zer hizkuntzan erabiltzen duzu? Entrenatzaile gisa, formazioaren bat jaso duzu euskaraz? Zein?

b) Gazteak:

- Zer hizkuntza erabiltzen dute: entrenatzailearekin hitz egiterakoan, talde handian, talde txikietan, banakako elkarrizketetan...?
- Zer hizkera mota erabiltzen dute? (formala, informala, euskalkia, hitanoa, nahasketa...) Egoera guztietan hizkera bera al da?
- Nola adierazten dituzte emozioak? Haserrea? Tristura? Poza?. Egoera hauen hizkuntza praktikak deskribatu: epailearekin haserrea, entrenatzailearekin haserrea, gola (tantua, saskia...) sartzerakoan poza, gola (tantua, saskia...) sartzerakoan tristura, animoak, txantxak...
- Kirol terminologia?

c) Ikusleak:

- Zer hizkuntza erabiltzen dute: entrenatzailearekin hitz egiterakoan, talde handian, talde txikietan, banakako elkarrizketetan...?
- Zer hizkera mota erabiltzen dute? (formala, informala, euskalkia, hitanoa, nahasketa...) Egoera guztietan hizkera bera al da?
- Nola adierazten dituzte emozioak? Haserrea? Tristura? Poza?. Egoera hauen hizkuntza praktikak deskribatu: epailearekin haserrea, entrenatzailearekin edo gazteekin haserrea, gola (tantua, saskia...) sartzerakoan poza, gola (tantua, saskia...) sartzerakoan tristura, animoak, txantxak...

Zein paper/garrantzia ematen diozu gazteekin duzun komunikazioari? Zerbait egiten duzu komunikazio hori bultzatzeko? Komunikazio behar/nahi horretan zeri ematen diozun garrantzia: hitzari, keinuei, kontaktu fisikoari... Zein dira hizkuntza gehien erabiltzen diren uneak? Zerrendatu eta nolako solasaldiak sortzen diren aipatu: entrenamendu hasieran/bukaeran, aurreko partida komentatzeko tarteak, luzaketa ariketak egiteko tarteak, takoak jartzeko unea... Nork hitz egiten du horrelakoetan? Nola?

6. Hizkuntza-diskurtsuak

- 6.1. Zein da zure iritzia egungo hizkuntzen egoeraren inguruan? Garapenik ikusi al duzu (azken urteotan edota umea zenetik gaur egun arte)
- 6.2. Kirol arloan nola ikusten duzu gaia? Euskararen presentzia nolakoa da? Orokorrean esango zenuke kirol munduan hizkuntza (euskara) kezka bat dela? Eta zure ustez kezka izan beharko luke? Kirol munduan zentratuta, esango zenuke kirol batzuk beste batzuk baino "euskaldunagoak" direla? Horrela bada, zeren baitan dago bereizketa hori.
- 6.3. Beste klubetan nolakoa da egoera?
- 6.4. Zerbait egin beharko litzateke? Zer? Nola? Zeinen ardura da?

7. Hizkuntza-plangintzak

- 7.1. Zuen klubean hizkuntza-plangintzarik al dago? Zerbait antolatua al dago euskararen erabilerari begira?
- 7.2. Nola egiten dira bilerak?
- 7.3. Entrenatzaileak euskaldunak al dira? Beharrezko baldintza al da?
- 7.4. Entrenatzaile berri bat sartzen denean euskararen erabilerari begira nola jokatu behar duen adierazten al zaio?
- 7.5. Gazteekin nola jokatzen duzue? Estrategiaren bat erabiltzen al duzu gazteek zurekin euskaraz egiteko? Edo beraien artean?
- 7.6. Gazte batek euskaraz ez bada ondo moldatzen zer egiten duzue? Eta ez badaki? Eta euskaraz dakiena baina erabiltzen ez duenarekin?